



*Jeneroa eta
baloreak*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

*Jeneroa eta
baloreak*

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1995

IZENBURUA:	"Jeneroa eta baloreak"
EGILEA:	EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Idazkaritza
KOORDINATZAILEA:	Ana Rincón
DATA:	Otsaila 1995
ALE ZENBAKIA:	1.000
ORRI ZENBAKIA:	360
DESKRIBATZAILEAK:	Sexu bereizkeriak, women's studies, baloreak, ihardunaldiak
IRUDI DISEINUA:	Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia
ILUSTRATZAILEA:	M ^{re} José Gamboa
FOTOKONPOSATZAILEA:	RALI, S.A. C/ Particular de Costa, 8-14. 48010 BILBO
INPRIMATZAILEA:	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4. 01010 VITORIA-GASTEIZ
ISBN:	84-87595-34-0
LEGE GORDAILUA:	VI-36/95

JENERO ETA BALOREEI BURUZKO IHARDUNALDIAK

Jenero eta baloreen eragina ikerkuntza lanetan

Vitoria-Gasteiz, 1994ko urtarrilaren 13 eta 14an

Urtarrilak 13:

10,00etan HASIERA

KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jaun txit garaia
Lehendakaritzako Kontseilari Idazkaria

Goizeko saioaren koordinatzailea: IÑAKI MTZ. DE LUNA PZ. DE ARRIBA
Lehendakaritzako Idazkaritzaren Arakatze Soziologikorako Kabinetearen
Arduraduna

10,30etan *"Sexu/jenero sistema eta baloreak: ikuspegi materialista"*

MARÍA JESÚS IZQUIERDO BENITO andrea

Soziologiako Irakasle Titularra. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko
Soziologi Departamentua

Txostenari ihardespena:

MARGARET BULLEN andrea

E.H.U.ko Atzerritarrentzako Ikastegiko Irakaslea

12,00etan ATSEDENALDIA

12,30etan TALDE LANA

14,00etan BASKARIA

Arratsaldeko saioaren koordinatzailea: LUIS SANZO GONZÁLEZ jauna
Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Azterlanen eta Araubide Juridikoaren
Zuzendaritzako Azterlanen Arduraduna

15,00etan *"Baloreak epistemologia kritikoaren aldetik"*

SALVADOR CARDÚS I ROS jauna

Soziologiako Irakasle Titularra. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Soziologi
Departamentua

Txostenari ihardespena:

JOSE MIGUEL APAOLAZA BERAZA jauna

Antropologia Sozialeko Irakasle Titularra E.H.U.ko Filosofia eta Hezkuntza
Zientziak Fakultateko Baloreen Filosofia eta Antropologia Sozialeko
Departamentua.

16,30etan TALDE LANA

18,00etan EGUNEKO IHARDUNALDIAREN AMAIERA

Urtarrilak 14:

Koordinatzailea: ANA ALBERDI ZUBIA andrea
EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundeko Azterlan, Plangintza eta Dokumentazio Arduraduna.

9,30etan *"Jeneroaren produkzioa jenero harremani buruzko azterlanetan: ikuspegi deseraikitzaile feminista"*

TERESA CABRUJA I UBACH andrea
Psikologia Sozialeko Irakaslea. Gironako Unibertsitatea.

Txostenari ihardespena:
MARÍA LUZ ESTEBAN GALARZA andrea
E.H.U.ko Emakumearen Azterlanen Institutuko kide ikertzailea

11,00etan TALDE LANA

12,30etan ATSEDENALDIA / BAZKARIA

13,30etan *"Balorea eta jeneroa: ikuspegi psikoanalitiko bat"*

REGINA BAYO-BORRÁS FALCÓN andrea
Cornelláko Adimenaren Higienarako Zentroko Psikologo psikoanalista eta Bartzelonako haur eta nerabeekiko Klinika Psikoanalitikoaren Eskolako Irakaslea

Txostenari ihardespena:
CARMEN DÍEZ MINTEGUI andrea
Antropologia Sozialeko Irakasle Titularra E.H.U.ko Filosofia eta Hezkuntza Zientziak Fakultateko Baloreen Filosofia eta Antropologia Sozialeko Departamentua

15,00etan TALDE LANA

16,30etan ONDORIOAK

17,00etan BUKAERA

TXARO ARTEAGA ANSA andre txit argia
EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakundeko Zuzendaria

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	9
SARRERA	11
SEXU/JENERO SISTEMA ETA BALOREAK: IKUSPEGI MATERIALISTA	
M.º Jesús Izquierdo Benito	17
TXOSTENARI IHARDESPENA	
Margaret Bullen	51
AZKEN BERRIKUSPENA	
M.º Jesús Izquierdo Benito	59
BALOREAK EPISTEMOLOGIA KRITIKOAREN ALDETIK	
Salvador Cardús i Ros	67
TXOSTENARI IHARDESPENA	
José Miguel Apaolaza Beraza	85
AZKEN BERRIKUSPENA	
Salvador Cardús i Ros	91
JENEROA ETA BALOREAK: HORIEN LOTURA IDENTITATEAREN	
TEORIETAN ETA JENERO HARREMANAK IKUSPEGI	
DESERAIKITZAILE BATETIK	
Teresa Cabruja i Ubach	97
TXOSTENARI IHARDESPENA	
M.º Luz Esteban Galarza	123
AZKEN BERRIKUSPENA	
Teresa Cabruja i Ubach	131

BALOREA ETA JENEROA: IKUSPEGI PSIKOANALITIKO BAT

Regina Bayo-Borrás Falcón 137

TXOSTENARI IHARDESPENA

Carmen Díez Mintegui 165

AZKEN BERRIKUSPENA

Regina Bayo-Borrás Falcón 173

Aurkezpena


Jeneroa, baloreak eta ikerlanetan duten eragina aztertu zituen ihardunaldiaren edukina jaso dugu argitalpen honetan. Ihardunaldiaren helburua gizarte-zientzien ikuspegi ezberdinetatik nozio horiek sakonki aztertzea zen, honako hauek jakiteko: nola sortu diren kontzeptu horiek, nola egituratzen den gizonezkoen eta emakumezkoen nortasuna botere-harreman jakin batean oinarrituta dagoen gizarte-sistema baten beharrian eta baloreen arabera, nola betiketzen den norberetasun hori baldin eta bakoitzak gizartean betetzen duen lekua sexuaren arabera mugatzen bada, nola helarazten dizkieguren eredu horiek gure seme-alabei, e.a. Azken finean, gizartean diren ezberdintasunak, batetik, eta, bestetik, emakumezkoek zein beste talde batzuek jasaten duten bereizkeria gainditzeko tesna teorikoak sortzea zen helburua.

Gure gizarteak emakumezkoen berezko zeregintzat jotzen du bizia birsortzea eta zaintzea. Gizonezkoen berezko eginkizuna, aldiz, ekonomi produktioa eta ondasunak administratzea dateke. Lana sexuaren arabera banatze horrek dakarren ezberdintasuna emakumearen kalterako da: soldata, heziketa, ospea edo boterea gizonarena baino apalagoa da. Emakumeen iharduerak balio gutxiagokotzat jotzen dira. Horrek argi erakusten du, beraz, baloreak sexuaren arabera mailakatuta daudela.

Zientziak jeneroari lotutako errealitateak finkatu ditu: izaeraren alderdi eta ezaugarri batzuei beste batzuei baino balio handiagoa ematen die eta, horrela, haien nagusitasuna justifikatzen du eta betiketzea ziurtatzen die. Objektibotasuna eta kultura, esaterako, gizonezkoen ezaugarritzat jotzen dira, subjektibotasuna eta natura, aldiz, emakumezkoek dagozkie. Kontzeptuak horrela bereizita zientziak eragin duen jenero-banaketak ezberdintasunean oinarritutako gizartea iraunarazten laguntzen du.

Horregatik, zientzi ereduak aldatzeak gure gizartean hain erroturik dauden sexu-ezberdintasunak gainditzeko lagunduko digu. Eredu horiek aldatuko badira gizarte-zientziek ekarpen garrantzitsua egin behar dute eta, horretarako, eginkizun hau bete: gizarte-errealitateak historian zehar nola sortu diren aztertzean jarrera kritikoa hartu behar da eta, horrenbestez, agerian utzi behar da gezurrezkoa dela gaur egun balio handiagokotzat hartzen diren balore edo portaeren ustezko berezkotasuna. Izan ere, balore horiek ez dira inola ere berezkoak: gizarteak eta historiak sortuak dira, agintean daudenek beren boterea betiketzeko eta beren interesei erantzuteko erabiltzen dituzte.

Emakundek, Euskal Autonomi Elkarteak Emakumeentzako Ekintza Positiborako 1991-94 Planean jasotako helburuei eutsiz, ikerlanak eta gogoeta-ihardunaldiak sustatu ditu sexuaren araberako bereizkerian eragina duten faktoteak zein diren jakiteko. Hausnarketarako tresna bat eskaini nahi izan diegu ikerlanetan diharduten sektoreei, errealitatearen azterketa objektiboagoak egin ditzaten. Azterketa horiek honako hauek lortzeko baliagarri izango lirarteke: sexuen arteko ezberdintasunak ezabatzeak, gizartea aldatzeko politika egokien garapena errazteko, zereginak eta iharduerak sexurik gabeko bihurtzeko, emakumeei erraztasunak emateko bizitza publikoaren arlo guztietan parte har dezaten, eta gizonezkoak nahiz emakumezkoak famili arloko zereginen ardura erdibanatzera bultzatzeko. Hori guztiori lortzeko, ezinbestekoa da gaur egun arlo publikoaren eta pribatuaren artean dagoen harremana aldatzea, bi arloak elkarren osagarri direla eta garrantzi berbera dutela onartua.



Txaro Arteaga Ansa
EMAKUNDE / Emakumearen
Euskal Erakundeko Zuzendaria

Gaur egun puri-purian dago mendebaldeko gizarteetan eragina omen duen "baloreengana-ko kezka" eta "baloreen krisialdia", batez ere komunikabideetan. Binomio bat osatzen duten baloreek eta jeneroak emakumeen egoera sozialaz kezkatuta dauden taldeetan ere interesa sortu dute, politika instituzionalaren esparruan ezezik baita emakumeen mugimenduetan eta gizarte zientzietan ere, lehen "Emakumeari buruzko azterlanak" eta gaur egun "Jeneroa" deitzen den arloan.

Nola uler daiteke interes hori? Ez da erraz erantzuteko galdera, eta gure asmoa ez da lerro hauen bidez erantzun osoa ematea. Gai honekin zerikusirik izan dezaketen arazo batzuk baizik ez ditugu azalduko: ohizko erreibindikazio feministen krisialdia, hala nola berdintasun eskubidea, krisialdi ekonomikoa, politikoa eta soziala, eta ideien eginkizunaren gaineko eztabaida zaharraren eraberritze mozorrotua.

Berdintasun eskubidearen erreibindikazio feminista zaharra auzitan jartzen ari dira eskubide hori kontsigna politikotzat hartu zuten emakume berberak. Azken urteotako esperientziak bide eman du agertarazteko emakumeak lan ordainduan integratzeak konpondu gabe uzteaz gainera areagotzen dituela emakumeentzat funtsezkoak diren arazoak. Alde batetik, emakume gutxi batzuen partaidetzari esker, politika, zientzi edo merkataritzako ekonomia-aren arloetako ihardueren ohizko eremuetan boterea, itzala edo dirua izatea dakarkie eta horrek jarrera kritiko bat hartzeko bidea eman du tradizioz maskulintzat hartu izan diren inguru horiei buruz. Gaur egun aitortzen da kargu horiek ez dituztela gizonak, oro har, okupatu, gizonen gutxiengo batek baino, beraz bereizkeria ezabatzeak ez du emakume guztiengan eraginik izango, emakumeen sektore txiki batean bakarrik baino, hain zuzen ere, beren egoera sozialarengatik zeuzkaten baldintzak zirela bide, bazterkeria profesionala, politikoa edo soziala, "baliotsuak" ziren mailetan, sexu bereizkeriari zor zitzaion eta ez beste edozein arrazoiri. Jakin badakigu, ordea, sexua ez dela desberdintasun sozialaren eragile bakarra, eta sexua aldagaiarekin batera beste aldagai hauek: adina, jatorri etnikoa edo klase soziala aintzat hartzeak behartzen gaitu berdintasun eskubiderako borrokaren emaitzetan zenbait ñabardura egitera. Emakume gutxi batzuk baizik ez dira iristen, ia denak mendebaldekoak, gizon gutxi batzuen eskura dauden karguetara, hauek ere ia denak mendebaldean.

Laburki esateko, egia bada ere emakumeek munduan zehar zorte bera dutela, era berean da egia emakumeen multzoaren barnean desberdintasun sakonak daudela, gizonen artean

bezalatsu. Egiaztapen honek berekin dakar emakumeak helburu amankomuneko kolektiboztat hartzea, baina aldi berean kolektibo hori zerbait homogenotzat ez hartzea. Galdera hau azaltzen zaigu, zer gertatzen da emakumeen multzoaren homogenotasuna desagertzen den horietan: adinen gorabeherak, edo diferentzia etnikoak, edo bakoitzak duen klase soziala direla medio? Harreman solidariorik ezartzen ote da?, desberdintasun horiekiko axolarik eza nagusitzen al da?, edo kolektibo horren barruan ere gatazkarik edo borrokarik izaten ote da?

Gizarte mugimendu berriak deitzen diren horiek, hala nola bakezaletasuna, ekologia, hirugarren munduarekiko elkartasuna, beren eragina izan dute berdintasunaren irizpide liberala, zeinen esamolde osoa aukera berdintasuna baita, kritikagai izan dadin. Kritika horretan mugimendu feministak berak ere parte hartu du modu eraginkorrean. Eztabaida irekia dago, baina aukera berdintasunaren eskaria banderatzat hartzen da. Horrek behin eta berriro gogorarazten dizkigu itzaropide horren sustrai liberalak eta horren inplikazio politikoak. Errebindikazio liberal horren azpian dago tradizioz maskulinoztat jo diren iharduez emakumeek egiten duten balorazio positiboa, emakumeen arteko desberdintasun sozialaren egiturazko alderdiei erreparatu gabe.

Egun hauetan, hain zuzen, egunkarietan irakurri dugu aurtengo "Emakume Progresista" saria eman dela. Delako saria eman zaie maskulinoztat jotzen diren lanbideetan ari diren hiru emakumeri: treneko makinista bati, itsasontzi bateko patroiarari eta suhiltzaile bati. Ez dakigu saririk eman ote zaien beren progresismoarengatik etxeko lanei alternatibak jarri dizkioten emakumei, edo ama izateagatik, edo gaur egun edozein gizakirentzat lan ordaindu bat izateak eta era berean bere harreman pertsonalen kalitatea zaintzeak eskatzen duena eztabaidan jarri duen emakumeren bati. Progresua "ona" da, eta progresista da tradizioz gizonak egin izan ohi dutena emakumeek ere egitea. Nolatan eztabaidatzen da emakumeen arteko desberdintasun soziala edo lanaren banaketa sexuala, garrantzi gehiena emakumeek gizonak egotzitako karguak betetzeari ematen baldin bazaio?

Berdintasun eskubidearen eskaria ere berrikusi beharrean gara, argi baitago botere harremanek sarritan menpekotasun ideologikoa sortzen dutela. Emakumeek, berdintasun eskubidea eskatzen badute itzaropide horrekin batera gogoeta sakon bat egin gabe, errealitatearen aurpegi maskulinoaren balorazio positiboa erakusten ari dira: maskulinoa ona eta desiragarria da, maskulino horretara iristea ondasunak dauzkatenekin partaide izatea bezalaxe litzateke. Alabaina, berdintasun eskaria, emakumeen askatasunaren aldarrikapena baino gehiago gizon/emakumearen arteko menpekotasun ideologikoaren adierazpena da,

emakumeek baloratzen dutena boterea daukatenek baloratzen dutena bera baita. Indarrean dagoen eztabaidak, hots, berdintasunaren aldeko feminismoaren eta bereiztasunaren aldeko feminismoaren arteko eztabaidak zerikusi zuzena du baloreen berrikuspenarekin eta horiek jeneroarekin duten loturarekin.

Iharduera ordainduetan emakumeen egoera pixka bat bederen aldatu da, gehienetan benetako aldaketak baino gehiago itxurazkoak diren arren, baina horrekin batera familiaren barnean gizartearen aldaketenganako zer joera itxiak dauden somatu dugu. Pertsonen itxaropenak, gurariak eta lokarri afektiboan izaera astiro baino astiroago aldatzen dira. Emakumeen egoera soziala bakoitzaren amak izan zuenarekin alderatzen badugu, ukaezina da aldaketarik izan dela. Hala eta guztiz ere, harreman afektiboaren baldintzak eta bakoitzak bere familian betetzen duen lekua ez dira neurri berean aldatu. Horren ondorioz tirabira latza suertatzen da arlo "publikoaren"¹ eta "etxearen" artean, edota nabarmen azaltzen da emakumeek ez daukatela nonnahitasun ahalmenik, ezin baitute bi toki aldi berean bete. Emakume batek bere indar guztiak oroz gain lanbideari, hezkuntzari, partaide-tza politikoari dedikatzen badizkie, etxeko ihardueretan eta harreman pertsonaletan ematen den dedikazioaren kalitatea eta gradua murriztu egiten da. Lan ordainduan parte hartzeak, gizonen baldintzetan eta emaitza beretsuekin, nahitaez eskatzen du gizonen dituzten jarraera eta dedikazio beretsuak. Egungo egoera sozialean, hau da, gizartea aldatzen ez bada, emakumea gizonen parekide izateko, "gizona bailitzan" ihardun behar du. Horrek adierazten digu emakumeen desberdintasunak egiturazko sustraiak dituela, gizartean aldaketarik gertatzen ez badira desberdintasuna desegiteko gurari hori tentsio iturri bat baino ez da izango, bete nahi den lekuaren eta benetan betetzen denaren artean, emakumeen eta gizonen artean, emakumeen eta haurren artean. Tentsioak arindu nahi direnean zeri uko egiten zaion haretzek erakusten du argi baino argiago baloreen ordena zein den. Beren energia administratzeko moduaren bitartez azaltzen dute emakumeek zein diren beren baloreak, printzipioei buruz egindako edozein aldarrikapenetan baino argiago.

Krisialdi ekonomikoak ere, aspalditxo honetan edozer justifikatzeko erabiltzen dugun aitzakia, eraginik izan zezakeen baloreen alderako kezka sortarazteko. Egungo egoera sozioe-

¹ Komatxoartearen bidez, bai publiko hitzaren kasuan eta baita etxearen kasuan ere, adierazi nahi da biak desegokiak direla famili harremanak eta gainerako harreman sozialak bereizteko. Behialako lelo feministak, hots, "pribatua publikoa", ohartarazten zigun ez dagoela gizartearen egituratik eta ordena soziala legitimatzen duten mekanismoetatik aparte eta independente kontsidera daitekeen esparrurik.

konomikoak ekarri du emakumeen mugimenduaren itzaropideak egoera larrian jartzea: lanerako eskubidea eta ongizate eskubidea berrikusten ari dira, eta nork jakin horrek zer ondorio ekar diezazkiekeen emakumeei. Lanerako eskubideari dagokionean, lan kontratazioaren baldintzetan, gaur egun eztabaidan, sartu dituzten aldaketak direla-eta, gizonetik emakumeen menpekotasuna bultzatzen ari dira. Aldi baterako lana kaleitxi bat bezalaxe da garapen profesionalerako, eta mugikortasun geografikoa, berriz, oztopo bat izango da enpleguari eutsi nahi dioten emakumeentzat, hura bera edo haren bizilaguna tokiz aldatzen badute. Emakumearen lana bigarren mailakoa den bitartean familiako harremanetik, ez da zaila zer gertatuko den asmatzea bikoteko kide bati mugikortasuna ezartzen bazaio.

Bestalde, ezaguna da ongizatearen Estatuaren krisialdia ez dela krisialdi demokratiko bat, esan nahi baita, krisiaren ondorio kaltegarriak ez dira berdin banatzen hiritar guztien artean, eta gogorrago erasotzen die emakumeei, horiengan du bereziki eragina, zeren eta emakumeek gizonetik nozitzen duten menpekotasun finantzarioak adierazpen publikoa baitu, Estuari buruzko menpekotasuna. Estatu nola ere bait gizonaren ordezkaria da. Krisialdi ekonomiak gauza batzuri uko egin beharrean jartzen gaitu beste batzuri eutsi ahal izateko. Agian, horregatixe gaude baloreei buruz gogoeta egiteko abagune egokian, eta ikusteko zein balore adierazten diren hartzen ditugun aukeretan. Gabezia somatzen denean bereziki baloreak nabarmentzen dira, eta dena ezin eskuratu denean igurikapenak, baliabideak, premiak mailakatu beharra izaten da.

Baloreak behin eta berriz aipatze horrek, baloreen krisiak eta balore berrien premiak hain eztabaida zaharra dugun ideien eginkizunaren aurrean jartzen gaituzte. Ditugun ideiak gure jokabidearen oinarrian daude, ala alderantziz, gure jokabidea da gure ideien oinarri? Baloratzen dela esaten den horixe baloratzen da benetan, ala alderantziz, baloreez hitzegitea eta baloratzea ezberdinak al dira? Zer lotura dago esatearen eta egitearen artean? Lerro hauetan ez gara burutazioak egiten hasiko desiren, arrazoien eta ekintzen arteko loturari buruz, orrialde hauetan aurkezten ditugun idazlanek beteko baitute eginkizun hori.

1994ko urtarrilaren 13 eta 14ean burutu ziren Gazteizen "Jenero eta baloreei buruzko iharaldia. Jeneroaren eta baloreen eragina ikerketa lanetan". Izan zitezkeen hainbat eta hainbat aukeraren artean erabaki zen denak modu honetan antolatzea: gai monografiko bati buruzko lan sakona, alde batetik, eta jartzen zuen interesagatik eta prestakuntza mailagatik modu askotako entzuleak egotea, bestetik, elkarrekin egokituz. Asmoa zen Gizarte Zientzien arloko ikerkuntzan ari diren pertsonak, emakumeen desberdintasun soziala azaltzen deneko alderdietako batean egun oroz eskuhartzen duten profesionalak eta eztabaida-

foro batean informatu eta parte hartu nahi duen publiko arrunta, horiek guztiak elkarrekin egokitzea. Helburu hirukoitz horri erantzun beharrez ihardunaldiok lau saiotan banatu ziren. Horietako bakoitzean txosten bana eta azalpen kritiko bana aurkeztu zen eta jarraian eztabaida egin zen. Horren ondotik eta prestatu ziren materialez baliatuz taldekako lana burutu zen.

Taldekako lanak funtsean lau helburu zituen: 1. Partaidetza zabala eta bertaratutakoei egin beharreko harrera pertsonalizatua elkarrekin egokitzea. 2. Parte hartu zuten pertsonen interesen, prestakuntzaren eta iharduera profesionalaren heterogenotasunak eskatzen zituen sarkontasun maila ezberdinei erantzutea. 3. Bertaratutakoen partaidetza aktiboa bultzatzea. 4. Bide ematea zalantzak eta kritikak bapatean ager zitezen eta zuzenean berbertan lan egin ahal zedin.

Ondotik datozen orrialdeetan aurkeztuko ditugu lan ihardunaldi hauek sortarazi zituzten txostenak. Txosten bakoitzari azalpen kritiko bana darraio eta azken gogoeta bat, ihardunaldien ondotik behar adinako tartea iragan ondoren burutua.

Froga daitekeenez, txostenetan eskaintzen da, alde batetik balore sozialen azterketari buruzko disziplina anitzeko ikuspegi bat, eta bestetik jeneroaren definizio, eduki eta eraikuntzari buruzko ikuspegia. Hasiera ponentzia batek ematen dio, zeinetan sexu/jenero sistema eta balore sistema ikuspegi soziologiko materialista batetik aurkezten baita. Hurrengo txostenak erakusten du nola gertatzen den baloreen produkzioa eta baloreen gaineko ideien produkzioa, epistemologia kritikoaren ikuspuntutik. Hirugarren txostenaren gaia honako hau da: jeneroa uler daiteke balore sozialen gainetik dagoen entitate bat bailitzan ala errealitate sozial bera izendatzeko bi modu desberdin dira?, horri buruz ikuspegi berezi bat hautatuko da, feminista dekonstrukzionista, alegia. Ihardunaldiei amaiera ematearren, prozesu psikikoak aztertuko dira, zeinen bitartez gizarte arloari dagokiona alabei transmititzen baitzaie, ideal edo atributu multzo gisa ulertuta, guraso bikotean sortzen den intersubjektivitatean oinarrituta.

Jenero eta baloreei buruzko eztabaidaren abiagune izan ziren lau txosten horiek lau ikuspegi osagarri bailiran har daitezke, horrek esan nahiko du horietako bat-bakarrak ere ez duela aztergaia agortzen, hain zuzen ere ikuspegi horietako bakoitzean ukitzen diren alderdiak ez direlako besteetan ukitutakoak berberak. Beste aukera bat da txosten bakoitza hartzea proposamen bat bailitzan, gainerako ekarpenak inplizitoki kritikatzeko duena, beraz, lau txostenen artean ez legoke osagarritasun loturarik, lehia edo gatazka baizik. Lan hauen irakurleak har beza ekarpen batzuen eta besteen arteko erlazioari buruzko erabakia.

Balorea eta jeneroa kontzeptuen berrikuspen teoriko bati buruzko gogoeta egiteko izan diren ihardunaldien emaitza horiek ez gintuzkete aldendu behar horren helburu nagusitik, hau da, tresna teoriko egokiak geureganatzetik. Berez hori ez da azken helburua, hori beharrezko urrats bat dela ulertu behar dugu, guztiontzat –emakumeak barne direla, noski– bizitzeko mundu egokiago bat eraikitzeko.

María Jesús Izquierdo

MARÍA JESÚS IZQUIERDO BENITO

**Soziologiako Irakasle Titularra.
Bartzelonako Unibertsitate
Autonomoko Soziologi
Departamentua**

Sexu/jenero

sistema eta

baloreak:

ikuspegi

materialista¹

Azken urte hauetan, legearen aurrean emakume eta gizonen arteko formazko berdintasuna iritsi ahala eta emakume batzuk benetako berdintasunetik gerturatu diren arabera, gogoeta berriak azaldu dira emakumeen desberdintasunari dagokionez. Lehenik eta behin aitortu da, gaizki ulertze bat zela medio, emakumeen berdintasunerako eskubidea eredu maskulinoarekin bat egin zela. Bigarrenez, behin eta berriz errepikatu da emakumeek berriazko balore femeninoak aportatzen dituztela, eta horien alde borrokatu behar dela. Jarraian horretatik abiatuz esan izan da emakumeak gizartean integratzeak ez duela besterik gabe haien maskulinizazioa ekarri behar, baizik eta integrazioa emakumeak bereak dituen baloreak galdu gabe gertatu behar dela.

Emakumeen egoera sozialaz kezkatzen garen guztiok ohartu garenez jenero kontzeptuaren erabilera arront hedatu da aspaldi honetan, eta hedapen horrekin batera beste joera batek ere indarra hartu du, hots, uste izatea emakumeen bereiztasunak –jeneroak– balore alternatiboak zekartzala, edo balore maskulinoen osagarriak behinik behin, eta horiek kontuan hartzekoak zirela. Nolabait esateko, adierazi nahi zen emakumeen baloreen ordena gizona ez bestelakoa zela eta emakumeen baloreen hurrenkeran balio handiagoko baloreak daudela, gizonezkoen baloreen hurrenkera ezagutarazten dutenekin alderatuta.

¹ Artikulu honen edukinak berekin dakar ondoko orrialdeetan terminologi irizpide egokiak erabili nahia jenero kontzeptua aplikatzerakoan. Ar/eme hitzak erabiliko ditut sexua aipatzean, maskulinoa/femeninoa/neutroa jeneroa aipatzean, emakumea eme femeninoentzako, gizona ar maskulinoentzako. Gehigarri gisa, hizketan gertatzen den sexismoa seinatzeko eta aldi berean soluzio sexistak batzuk ekiditeko, hala nola femeninoaren marka kasu guztietan ez aplikatzeko, erdarazko testuan "e" letra erabiltzea erabaki dut "a" eta "o" letren ordean substantibo, izenorde, izenlagun edo artikuluen bukaeretan, sexu nahiz jenero bietako pertsonak aipatzen ditudanean. Oroigarri gisa salbuespen hau kursibaz nabarmenduko dugu.

1.

Gizaki ereduak: jeneroa eta baloreak aztertzekeo oinarria

Praktikan lotura hertsia gertatzen ari da jeneroa eta balorea nozioen artean. Lotura hori izango da ondoko orrialdeen gaia. Dena den, gaiari heldu aitzin, behar bada komenigarria izango da horren azpian daudekeen gizaki ereduak aipatzea. Horiek identifikatuz gero errazagoa da jarrera ezberdinen nondik norakoa ulertzea.

1.1

GIZONA "GIZAKIAREN" EREDU BAKARRA

Kasu horretan emakumea kanporatua, baztertua balego bezala hartzen da, gizakitik bereiz eta aparte egotea. Horrek eskatzen du gizartean sartzea, noski, gizartearekin bat egitea, parte hartzea, eta hori lortzeko nahitaez oztopoak kendu behar, gizonetzkoek egiten dutena emakumeek egin ahal dezaten (gubernuko lehendakari izatea, ingeniaria, kamioi gidaria, orkesta zuzendaria, etab.). Esan beharrik ez dago, eredu berdintzaile hau plazaratzen den aldiko, proposamen gehienak gizartean asko baloratzen diren aktibitateei buruzkoak izaten direla, beraz, gizasemeen eta emakumeen arteko berdintasunaz baino gehiago konparaketa egiten da egoera pribilegiatuko gizonen eta, oro har, emakumeen multzoaren artean. Ez da eskatzen emakumeek muntaikatea batean lan egiteko eskubidea, orkesta zuzendari izateko eskubidea baizik. Argudia daiteke emakumeek menpe daudeino sozialki tratatu txarra jasaten dutela eta horrexegatik eskubideak eskatzea dagokiela, ez betebeharrak.

Eredu horretan ordena soziala ez da zalantzan jartzen. Hor planteatzen dena da aukera berdintasuna, emakumeak aktibitate batzuetara sartzea lege eragozpenak ezabatzearekin lotzen dena. Onartzen badugu gizartea desberdintasunak zatitzen duela eta sexuan oinarritutako desberdintasuna, bestalde, maila ekonomikoen arteko desberdintasun sozialari atxikitzen zaiola, azken finean, isilpean bada ere, klase bakoitzeko emakumeek eskubidea izan dezatela eskatzen da, klase horretako gizonen duten lekua betetzeko, eta ez, ordea, emakumeen eskubidea gizonen duten toki berbera betetzeko. Egoera pribilegiatuan dauden emakumeentzat, goi mailako ikasketak izan, kultur maila handiko familia batean jaio eta ha-

rreman profesionaleko sare batean bizi diren emakume horientzat, berdintasuna lortzeko emakume guztien eskakizuna da gizarte maila altuko postuak eskuratzea: orkesta zuzendaria izatea, enpresaria, unibertsitateko irakaslea, etab. Behe mailako ingurune batean, kultur maila apalean, eta ahalmen ekonomikorik gabeko egoeran sortutako emakumeen artean emakume guztien borrokaren ondorioak dira emakume horiei bide ematea behin-behineko lanpostuetarako, irabazpide urrikoak, zeinetan norberaren ahalmenak garatu ordez abere-tu egiten baitira. Azken buruan, emakumeen berdintasunerako borrokaren eredu honetaz mintzatzen garenean, Frantziako iraultzan izandako huts berberak egiten ari gara (iraultza burgesaren estereotipoa aipatzearren), eta ahaztu egiten dugu askatasunak eta eskubideak edukin ezberdinez hornitzen direla batbederak duen maila sozialaren arabera.

1.2

EMAKUMEA "GIZAKIAREN" EREDU BAKARRA

Alde horretatik gizasemeen nagusitasunaren sorburua da boterearen jabe izatea, balore positiboak emakumeenak badira ere. Eredu horri jarraituz, gizonezkoen boterea neutralizatu-ko balute emakumeek, mundua emakumeen irudira egingo litzateke, emakumeen balorean oinarrituta. Ikuspegi horri loturik bada esaten duenik emakumeek mundua gobernatuz gero ez litzatekeela gerrarik izango. Ikuspegi horrek jarrera esentzialistak dakarzkigu, badela izaera femenino bat, alegia, menpean egon arren tinko dirauena. Izaera horri balore posi-tiboak ematen zaio eta berreskura daitekeela uste da sozialki bultzatzen baldin bada. On-dorioz, gogoeta hau dakar, gaur egungo harreman sozialak, diren bezalakoak badira, gi-zonen erruz direla eta bizi dugun mundu hau eraikitzeko emakumeek ez dutela parte hartzerik izan. Edozein modutan ere, horrek esan nahi du gizonezkoak direla desberdinta-sun, sufrimendu eta txikizio ooren errudun, eta horien erantzukizuna egozten bazaie, uler-tzen da aukera askatasuna izan dutela, eta gauzak "ongi" ala "gaizki" egin hautatzerako-an "gaizki" egitea erabaki dutela.

Eredu honetan zailagoa da ulertzea zer erlazio dagoen gizonezkoen eginkizun aktiboaren –desberdintasun eta zapalketaren sortzaile– eta emakumeen eginkizun pasiboaren artean –desberdintasun eta zapalketaren pairatzaile–. Emakumeek horri erantzuteko gauza izan ez badira, bizi dugun mundu hau eraikitzean parte hartu ez badute, zerk bihurtuko ditu aktibo, munduaren eraikitzaile? Bestalde, gizonek bere esku izan badute boterea... gaitz egitekoa,

zertan oinarritzen gara emakumeak horren eragina ez dutela izan pentsatzeko?, eta emakumeak badira gizonak sortu desberdintasunaren eta zapalketaren ondorio, nolatan izan daitezke "onak"? Itsitura honetatik atera beharrez, berriro itzuliko gara esentzien eremura, emakumearen izaera "onera" eta gizonen izaera "makurrera".

1.3

"GIZAKIAREN" EREDU BAT-BAKARRA IZATEKO AUKERA UKATZEA

Horrek esan nahi du giza kalitateak, are eta emakumeen desberdintasun sozialik gabeko baldintzetan, dikotomikoak direla, hau da, gizakia bi motatakoa dela: maskulinoa eta feminoia. Alde horretatik, eta pentsatzen baldin bada sexu diferentziak ezberdintasun psikiko eta sozialen sorburu direla, argitu besterik ez da falta sexuen artean zer harreman mota ezar daitekeen, eta bakoitzaren egoera soziala: a) osagarritzkoa (emakumeek gauza batzuk egiten dituzte eta gizonenak beste batzuk, baina emakumeen aportazioak eta gizonenak balio berekoak dira), b) harremanik eza (gizonen eta emakumeen arteko diferentziak hain dira handiak, ezen bi sexuen arteko harremanak ezinezkoak baitira), c) harremanak bizitzaren alderdi batzuetara mugatzea (emakumeak gizonenekin erlazionatzen dira osagarri diren heinean eta gainerako aktibitate sozialetan ez da bi sexuen arteko harremanik izaten). Jarrera honetan ere lehen aipatu ditugun nozio esentzialistak agertzen zaizkigu.

1.4

"GIZAKIAREN" EREDU BERRIA PROPOSATZEA

"Gizakiaren" eredu berria izan beharko da sexuan oinarritutako lanaren banaketa eta emakumearen ezberdintasun soziala, eta horrexegatik gizakien arteko ezberdintasunak ere gainditzen dituen, horiek ez daitezen sexuen artean orain daudenak izan, baizik eta indibiduen artean izan behar dutenak, sozializazio baldintzak eta gizartearen aktibitatean parte hartzeak ez dutenean abiapuntutzat hartzen sexu ezberdintasunak, gizaki bakoitzari dagokionak baino. Eredu horrekin ezin daiteke, itxurari begiratuta soilik, aurreiritzirik izan, pertsonen ahalmen eta gaitasunari dagokienean, aitzitik baizik, bakoitzaren izakera beste-

ekiko harremanetan azalduko da. Aurrekoari atxikiz, eredu honentzat emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun soziala, funtsean, nahi ez den produktu bat da, esan nahi baita, emakumeek eta gizonak ekoizten dutena baina haien helburua hori ez delarik, zeren eta, egia bada ere gizakiok geure historia egiten dugula, oharkabean egiten baitugu, izan ere, guk geure kabuz ari garenean, egiten dugunak gizartean duen eraginaz halako susmo ilun bat baizik ez dugu izaten eta maiz aski ez ditugu kontrolatzen gure ekintzek gizartean izan ditzaketan eraginak.

Aurkeztu ditugun lau ereduok eredu hutsak dira, horietako bakoitzak erakusten dizkigu beste eruedetatik bereizten dituen ezaugarriak. Hala eta guztiz ere, jendeak nola ikusten dituen gizakiak, emakumeak eta gizonak azaltzea konplexuagoa da, eredu batetik baino gehiagotik ateratako elementuekin osatzen delako. Eredu teorikoak gaur egungo korrante ideologikoen azterketan aplikatzean argiro agertzen dira lau eruedetako elementuen konbinaketa mota ezberdinak, horietako batzuek besteek baino presentzia nabarmenagoa badute ere. Aurkeztutako gizakiaren lau ereduok erreferentzi puntu baizik ez dira. Orrialde hauetan garatzen den laneko erreferentzi puntutzat gizaki eredu horietako laugarrena hartzen dugu.

*Agirikoa eta ezkutukoa,
kontrajartzen diren
errealitateak*

Eredu bakoitzean, gizakia kontzeptuari dagokionez zenbait ñabardura aurki daitezke, eta horrezaz gainera kontuan hartu beharrekoa da egiten ahal den formulazio orotan bi maila izan daitezkeela: jakinaren gainean agirian dagoena eta ezkutukoa, zein ez baita era kontzientean azaltzen. Beste hitzetan esateko, daitekeena da eta, gertatu ere halaxe gertatzen da, emakumeen egoera sozialaren, haien nortasunaren eta ahalmenen gaineko formulazio esplizitoak ez datozela bat eduki inkontzientekin eta are kontrajarriak izan ohi direla. Hitz bidez adierazten badira jarrera ideologiko batzuk, une horretan berean, kontrolik gabe eta hitzuna bera ohartzen ez delarik, azaltzen dira adierazi nahi denaren aurkako ideiak, itxaropideak edo baloreak. Maila bien arteko kontraesanak ez du besterik gabe inkoherentzia salatzen, baizik eta gure nahia omen denaren eta benetan nahi dugunaren arteko gatazka, batuk bestea baztertzen duten nahiak edo gurariak bezala, azaltzen zaigu horrela. Askotan gertatzen da gogozkoak ditugun gauzak, balore handikotzat ditugunak eta inguruan dugun jendearen onespena lortzeko baloratu beharko genituzkeenak ezberdinak izatea. Nahi dugunaren eta nahi beharko genukeenaren arteko gatazka hori, horrela desiragarri izateko, jokabide batzuen sorburu da, itxuraz bakarrik inkoherenteak direnak: hau esan eta kontrakoa egin. Esanarazten digutena esaten dugu, egin ahal daitekeena egiten dugu. Kontraesan hauek ukatzeak, kontuan ez hartzeak, bide ematen digu geure egintzak ez aitortzeko eta are horien esanahia ukatzeko ere.

Bestalde, agiriko eta ezkutuko edukien arteko kontraesanak ez du gezurretan ari garela esan nahi, baizik eta geure egiazko nahiez jabetzeko gai ez garela, mehatsutzat hartzen ditugulako. Diskurtso bat eratzen ahal dugu emakumearen baloreari eta haren eragin sozialari buruzkoa, eta aldi berean gizonekiko begirune eta errespetozko jarrera erakutsi, emakumeekin erlazionatzen garenean erakusten ez duguna. Esan dezakegu etxekoandreek nahitaezko lana burutzen dutela pertsonen ongizatearen alde eta aldi berean etxekoandreek etxekolana nola antolatzen duten kritikatu (nahasi egiten dira, garbiketetan denbora gehiegi ematen dute, etab.) baina kritikatu gabe ordaindutako iharduera produktiboak nola dauden antolatuta (eguneko lanaldia luzeegia, produkzioaren antolakuntza desegokia, kontuan hartuz langileen osasunean eta ingurugiroan duen eragin kaltegarria). Uler dezakegu emakumea lan

ordainduan sartu ahal izateko etxeko lana erraztu behar dela, baina ez gizona etxeko lanetan aritzeko lan ordaindua erraztu behar denik. Bestalde, zaila da muga non dagoen jakitea gizarteari, sexista dela eta, kritika egitearen eta norberaren sexua erdeinatzearen artean, lehenbizikoak bigarrena estali baitezake. Hori formulatzen duena egiten duenaz ohartzen ez bada ere, begira dagoena ordea, ederki asko konturatzen da kontraesana badagoela, zerbait gaizki dagoela, zehazki zer den ez badaki ere.

Ezkutuko prozesuak izan badirela ukatzeak ez du besterik ekartzen ez bada jendeak sinistea bestek berataz diotena, eta jendeak baloratzea hitzez baloratzen duena. Prozesu horiei, kontzientziaz kanpo gelditzen baitira, behar duten garrantzia emateak berekin dakar giza-kiok zer garen eta gure egintzekin zer baloratzen dugun adieraztea, eta sarri askotan guk geure buruz egiten ditugun gogoetak razionalizazioak dira, zeinen bitartez agirikoaren eta ezkutukoaren arteko gatazka ezabatu nahi baitugu, ezkutukoa ukatuz, guztiz ezabatu ezin bada ere, hori ez dagoelako gure esku. Aterabide bat izan daiteke gatazkekin ezikusi egitea edo bestela uko egiten ahal zaie, baina ez dira horratio ezabatuko inola ere.

Gai honetaz izaera orokorreko lehen ohar hauek eginik jenero kontzeptuari buruzko gaiei helduko diegu.

Jeneroa: kontzeptuaren sorrera eta izan daiterkeen erabilerak²

Hurrengo orrialdeetan gure asmoa da "jenero" hitza hitz bezala ezezik kontzeptu bezala ere erabiltzea, pentsamentu unitate gisa³, zeinen izaera analisiaren ondorioa baita. Ezagupen zientifikoa batez ere kontzeptuala dela kontsideratzen badugu, "jeneroa" interesatzen zaigu emakumeen desberdintasun soziala kontzeptualizatzeko bidea ematen digun heinean, haien ezaugarri fisikoak baldintza sozial eta psikikoetatik berezirik. Jenero kontzeptuak sailkatzeko balio du eta eragiketa bikoitzaren emaitza da, analisia eta sintesiarena. Jenero kontzeptua garatzen dugunean, analisia horretan buruz ari gara bereizten ezagupenaren helburua, bereizten ari gara gizakia eta beste guztia, eta bi taldetan zatitzeko bide ematen digun elementua sexua da. Gizakiak bi sexutan bildu ondoren, ikusten dugu bi multzo horietako bakoitzak: espezieko arrek eta emeek osatzen dutenak, beste homogenitaterik ez duela sexuen desberdintasunean azaltzen direnena izan ezik. Era berean, ikusten dugu sexu multzo bakoitzean batzuen artean antza handiago dagoela besteen artean baino, ikuspegi psiko-sozialetik begiratuta. Demagun berriro ere sailkapen dikotomiko bat egin nahi dugula, gure analisiarekin aurrera egiteko, kasu honetan arlo psikikoa eta soziala hartuz, eratzen ditugun bi talde berriei "maskulinoa" eta "femeninoa" dei geniezaieke. Bi multzo horiek eratzeko emakumeen kasuan bilatu behar dugu "talde femeninoa kopuruz handiena izan dadila", beraz espezieko emeen artean maizenik izan ohi diren ezaugarri sozial eta psikikoetan oinarrituta, eta talde "maskulinoa" berriz emeen artean urrien aurkitzen diren ezaugarriak eta arren artean ugarienak. Eragiketa honela egitera, gure analisiaren ondorioz lau talde ateratzen zaizkigu:

³ Ondoko orrien edukian handi-handika jasotzen dira nire artikuluko baten zati batzuk "Jenero kontzeptuaren erabilera arrunta eta gehigizkoa". Bartzelonako Unibertsitateko Emakumeak eta Gizartea Disziplinarteko Mintegiaren kargura azkeneko liburuan argitaratua.

³ Bunge, Mario: *Ikerketa zientifikoa*, Bartzelona, Ariel, 1989. Kontzeptualizazio honi buruz gogoeta sakonagoa aurki daiteke Toulmin, Stephen-en *Giza ulermena I. Kontzeptuen erabilera kolektiboa eta bilakaera*, Madril, Alianza, 1977.

SEXUA/JENEROA ERLAZIO DIKOTOMIKOA


SEXUA/JENEROA	FEMENINOA	MASKULINOA
Emea	Emakumea	Eraldatua
Arra	Eraldatua	Gizona

Gure gizartean pertsona bati emakumea deitzen zaionean inplizitoki pentsatzen da emea/femeninoa dela, eta gizona dela esaten denean berriz arra/maskulinoa. Aldi berean onartzen da perfekzio graduak daudela "gizona" edo "emakumea" izatean, usu entzuten baitira honelako esaldiak: "Urlia, hura bai emakumea", edo "Sandia, bai gizon petoa", edo "benetako emakume batek ez luke hori egingo", "benetako gizona balitz ez luke hura egingo". Gurea bezalako gizarte sexista batean arra/femeninoa, edo emea/maskulinoa transgresio hutsak dira, eta transgresioa izateaz gain, gizakiaren osagaiak ez direla fisikoak soilik erakusten digute, psikikoak eta sozialak ere badirela, eta pertsonen ezaugarri psikiko eta sozialak ez daudela gure izaera fisikoaren menpe. Transgresiogilerik egotea bera da frogarik nabariena, naturaleza destinoa izanez gero ez lirateke existituko.

Aurkeztu dugun sailkapenak izaera dikotomikoa du, bi jeneroz mintzatzen baikara, femeninoa eta maskulinoa. Alabaina, sailkapen bipolodun batez ere hitz egiterik badugu, eta kasu horretan pentsa genezake femeninitasuna eta maskulinitasuna gradutan azaltzen zaizkigula; horrela gizakiak femeninotik maskulinora⁴ doan hurrenkeran sailkatzen ahal dira.

⁴ Sexu/jenero sistemari buruzko nire lanean: las, los, les (lis, lus). *Sexu/jenero sistema eta emakumea, eraldaketa sozialaren subjektua*, Bartzelona, la Sal Ed. de les dones, 1983 (bigarren argitalpena, 1985), gai horretaz argitaratu dudana lehenbizikoan, polodun izaera dimentsioanitzeko planteamendu bat proposatzen nuen.

SEXUA/JENEROEA ERLAZIO POLODUNA



Planteamendu dikotomiko batek garamatza emakumeen jarrera gizonetzkoen jarrerarekin kontrajarria eta oposizioan ikustera. Kontrajarpen horrek, jenero bakoitzean beste jeneroaren ukapena dakar, eta horrekin batera planteamendu politiko bat, gizartea jenerotan banatzearen kontrako borroka proposatzen duena eta egitura sozial bat, zeinetan sexuaren araberako diferentziak eta lan banaketa ere deuseztuko bailirateke. Baina ikuspegi dikotomikoa egokia iruditzen zaie emakumeen eta gizonen egoera gizartean diferentea izatea naturala, edo desiragarria behinik behin, juzkatzen dutenei, ulertuz diferentzia horiek ez dutela etsaigorik sortzen osagarritasuna baino, eta horrela emakumeen desberdintasun sozialari buruzko edozein erantzun politiko desegingo litzateke. Ikuspegi bipolodun batek indarra kentzen dio emakumea/gizasemea kontrajarpenari, izan ere, jeneroen arteko diferentziak gradu diferentziak, beraz kontagarriak, bailiran hartuz ez dago interes kontrajarriak behar bezala zehazterik. Praktikan ez da zalantzan jartzen gizartearen egitura, bere osotasunean. Eraiki behar den ereduak dikotomikoa izan behar duen ala bipoloduna erabakitzeaz gainera, kontuan hartu beharreko beste gai bat da ea jenero kontzeptua disziplina bakar bati dagokion edo disziplina askok, hots, giza zientziek, kultura zientziek edo gizarte zientziek amankomunean daukaten zerbait den.

Eta azkenik, beste arazo bat ere planteatu beharrean gara, jenero kontzeptua dimentsio bakarrekoa ala anitzekoa da⁵? Dimentsioanitzekoa izatera, horietako dimentsioren bat oinarritzat har daiteke? Galdera horri ematen diogun erantzunean jokoan dago berriro ere mugitzen gareneko paradigma zientifikoa eta horren azpian gure helburu politikoak.

Jeneroaren eta sexuaren arteko bereizketa horretan aitzindaritzat har ditzakegu J. Money⁶ eta R. Stoller⁷, geroztik beste egile batzuek ere erabili izan dute hitz berbera, antzeko baldintzetan baina beste disziplinetan, hala nola antropologian, soziologian eta psikoanalisian, adibide batzuk ematearren⁸. Adierazi dugunez sexuaren eta jeneroaren arteko bereizketaren helburua da sexu ezaugarriak eta horiek dakartzaten muga eta ahalmenak kontzeptualki desberdintzea, eta pertsonen ezaugarri sozial, psikiko eta historikoak, gizarte batzuen kasuan edo gizarte konkretu baten historiaren une batzuetan, non identitate ereduak, jarrerak eta estereotipoak, pertsona bat zer den eta nolakoa izan behar duen zehazten dutenak, bimodalitate bati erantzuten baitiote, bakoitzaren sexuaren arabera.

Jenero kontzeptuaren erabilerari dagokionez jarrerak arrot desberdinak izan dira. Bost dira jenero kontzeptuaren eta sexu kontzeptuaren artean ezarri diren erlazio motak:

1. Ez dira ez hitza ezta kontzeptua ere erabiltzen. Gizasemea eta emaztekoa erabiltzen dira sailkapenerako, suposatuz maskulinitasuna eta feminitasuna ezaugarri sexualen eta naturalen parte bat direla, jendearen ahalmenak baldintzatzen dituztenak edozein aktibitatean aritzeko edo gizartean edozein toki betetzeko.⁹

⁵ Azterlan bereberetan, las, los, les, delakoan, alegian, pentsatzen zen kontzeptu dimentsioanitzekoa zela.

⁶ "Sex reassignment as related to hermafroditism", in H. Benjamin, *The transsexual phenomenon*, New York, Julien Press, 1966.

⁷ 28orr. *Recherches sur l'identité sexuelle*, Paris, Gallimard Arg. 1978. (Sex and Gender, 1969).

⁸ Adibidez A. Oakley, *Emakume diskriminatua*. Biologia eta gizartea, Madril, Debate, 1977. (Sex, gender and society. Londres, Maurice Temple Smith Ltd., 1972). S.W. Baker, "Biological influences on human sex and gender". SIGNS, 6. liburukia, 1. zk., 1980. Halaber, aipa daiteke N. Chodorow, *The reproduction of mothering: Psychoanalysis and the sociology of gender*, Berkeley eta Los Angeles, University of California Press, 1978. M.J. Martin; B. Voohries: *Emakumea: ikuspegi antropologiko bat*, Bartzelona, Anagrama, 1978 (*Female of species*, New York, Columbia University Press, 1975). Azpimarra daiteke, bestalde, klasiko bihurtu den artikulua bat: G. Rubin: "The traffic of women: notes on the political economy of sex" in R. Reiter (arg.). *Toward and anthropology of women*, New York, Monthly Review Press, 1978.

⁹ Moebius, P.J.: *Emakumearen adimen gutxiagotasuna*, Bartzelona, Bruguera, 1982, (*Überden physiologischen schwachsinn des weives*, 1900); edo Fox . R. eta Tiger, L., *L'animal imperial*, Paris, Robert Laffont, 1973, (*The imperial animal*, 1971); adibide batzuk aipatzearen.

2. Kontzeptua erabiltzen da baina hitza ez. Emakumeen eta gizonen egoera buruz irudikatzen da produktu sozial bat bailitzan, eta bitartean sexu diferentziak ez dira gizonezkoen eta emakumeen arteko desberdintasunaren sortzaileak justifikazioak baino.¹⁰

3. Kontzeptua eta hitza erabiltzen dira¹¹. Gizasemeen eta emakumezkoen egoera produktu sozial eta psikiko bat bailitzan irudikatzen da, kontuan hartzen dira emeak femeninoak eta arrak maskulinoak izatearen ondorio sozialak. Hitza eta kontzeptua erabiltzen direneko konstrukzio teorikoek halako egoera sozial batera bultzatzen dute ezen jenero kontzeptuaren zentzua galtzen baita analisirako tresna gisa; maskulinoa eta femeninoa bereizteak zentzua galtzen duenez elementu bi horien presentzia bi sexuetan agertzen da.

4. Hitza erabiltzen da baina kontzeptua ez. Egoera honetan gertatzen da mekanikoki sexu terminoa jenero terminoarekin ordezkatzela. Besteak beste, desberdintasun fisiko, ekonomiko, historiko, sozial eta psikikoen artean bereizketa teorikoa ezarri arren, kontuan hartzen dira eme batek jenero femeninoa bereganatzeak dakartzan ondorioak, edo are ez bereganatzeak ere, baina ez da aintzakotzat hartzen zer inplikatzan duen ar batek jenero maskulinoa bere egiten duenean edo egiten ez duenean. Osagarri gisa kontuan hartzen dira lanaren banaketa sexualaren baldintzak eta ondorio berekiak, eta ahantzi egiten dira, ordea, jeneroaren arabera lanaren banaketa indibidualaren alderdiak ezezik baita egiturazkoak ere¹². Horrela, ez da ezer jakin nahi jenero bien artean dagoen egiturazko hierarkiaz eta menpekotasunaz, hain zuzen ere gizartean maskulinitzat jotzen diren baliabide intelektual eta material gehiago esleitzen baitira femeninitzat jotzen direnak baino. Gai honi aurrerago helduko diogu.

5. Joera berrienak: "deseraikitzearen" estrategia. Joera berriek emakumearen desberdintasun sozialari buruz bestelako hurbilketa bat dakarkigute, hots, jenero hitza agertu ez

¹⁰ Kokagune honetan ondoko lanak sailkatzen ahal dira: Beauvoir, S. de, *Bigarren sexua*. Buenos Aires, Siglo XXI, 1977, Mitchell, J., *Emakumearen izaera*. Bartzelona, Anagrama, 1977 (1966).

¹¹ Egoera honen adibide gisa aipa daitezke Chodorow eta Rubin, aurrez aipatu ditugunak.

¹² Hauxe da egoerarik arruntena maila akademikoan. Gertaera hori egiazta daiteke argitalpen berrietan. Jenero eta Geografian buruzko ihardunaldiak antolatzen dira, adibidez, sexu desberdintasuna azaldu nahi duenean eta ez jenero desberdintasunaren kasuan. Edo kongresu baten barruan, esate baterako, Jeneroaren Soziologiari hobeki egokitzen zaionean. Badirudi dena aldatzeko planta egiten dela ezer alda ez dadin, horrekin hasieran tresna kontzeptual horrek zuen erradikaltasun guztia ezabatzen da eta egiturazko aldaketei bide emango liekeen baldintzak hobetzeko aurrerapenak gelditzea dakar. Egintza horren bitartez gizartea gaur egun dagoen bezala kudeatzeko ezagupen baliagarria sortzen da baina oztopatu eta itxi egiten ditu emakumeen desberdintasun soziala gizartearen egiturazko ezaugarriekin lotzeko bide guztiak.

arren jenero kontzeptua agertzen dela. Adibidez, Chantal Moufferen¹³ planteamenduak hartzen baditugu, egile honek seinalatzen du ezin daitekeela behar bezala ulertu harreman sozialen aniztasuna, batez ere konpromezu demokratiko erradikalari atxikiz gero, nortasun esentzialak deseraiki gabe. Horrek inplikatzeko du "emakume" kategoria nola eraikitzen den aztertzea, diskurtso ezberdinetan, eta eramaten du emakumearen menpekotasunaren kontrako borroka era espezifikotik planteatzera. Beste alde batetik, emakume edo gizaseme entitate homogenorik ez dagoenez, ez du zentzurik emakumeen eta gizasemeen arteko berdintasunari nahiz diferentziari buruzko eztabaidak. Mouffek jakitera ematen du indibiduo berbera, ar nahiz eme, "subjektu egoera" desberdinetan dagoela kokatua. Haren proposamena da "gu" bat eraikitzea, hiritar demokratiko erradikal gisa, nortasun politiko kolektibo bat, baliokidetasun printzipioaren bidez artikulatua, eta diferentziak deusezten ez dituenak. Borroka feminista harentzat honako hau da: "borroka egitea 'emakume' kategoria menpekotasun gisa eraikitzen deneko hainbeste formen kontra".

Bistan denez, jenero kontzeptuaren eta hitzaren erabilpen mota ezberdinen sailkapena egin gogo dugunean, ohartzen gara egoera konkretuak hor tartean kokatzen direla, tipo batetik gertuago edo hurrunago, eta sailkapen horri ez zaio izaera deskriptiboa ematen analitiko baina.

¹³ "Feminismoa hiritargoa eta politika demokratikoa", *Eztabaida feminista*, 4. urtea, 7. liburukia, 1993. Jatorriz Butler, J.; Scott J. W.-ek argitaratua: *Feminists Theorize the Political*, Routledge, 1992.

Sexuaren eta jeneroaren arteko erlazioa

Ikuspegi deskriptibotik edo hertsiki analitikitik zilegi bada ere jenero femeninoa eta maskulinoa erabiltzea, polodunak eta dimentsioanitzekoak, puntu horretan geldituz gero analisi prozesua moztuko litzateke eta horrekin prozesu horren balio politikoa. Analisiak ematen duen aniztasuna baino haruntzago joan beharra dago eta abstrakzio prozesu baten bitartez femeninoa eta maskulinoa bi jarrera ezberdin eta bereizitatzat hartu beharra, ezin ulertzekoak elkarrekin lotzen ez badira. Horrek inplikatzan du jeneroa, bi balore, maskulinoa eta femeninoa, bata besteagandik bereiziaz hartzen dituen, aldagaitzat hartu ordez, ulertu behar da jenero kontzeptuak erlazio sistema batera garamatzala. Jeneroak ez dira garrantzizkoenak, baizik eta gizakien artean sortzen diren harremanak, batbederak barnertzen duen nortasunaren arioan, eta besteek haiengan identifikatzen duten jeneroaren arabera. Jenero bata bestearekin erkatu behar da bietako edozeinen esanahia ulertu ahal izateko. Proposatzen dugun hurrengo baldintza da jeneroaren dimentsio guztietatik ahalmen interpretatibo handiena duena hautatzea. Horrela egitea baliteke eraginkorra ez izatea baldintza sozialak, psikikoak edo historikoak ikertzeko, baina bai gizartearen egitura eta egiturazko aldaketa sozialen ezaugarriak.

Gure ustez, eta tradizio materialistaren jarraitzaile garen aldetik, existentziaren produkzioan betetzen den tokiaren dimentsioak zertzen du azken finean emakumeen eta gizasemeen arteko desberdintasun soziala. Hautapen hori egiten dugu, hain zuzen ere, sexu/jenero sistema lanabes teoriko gisa garamatzana gizasemeen eta emakumeen arteko desberdintasun soziala delako, zeren eta, gure iritziz, funtsezko desberdintasuna gizakiek beren existentziaren produkzioan izaten dituzten harreman moduetan baitatza. Praktikan, desberdintasunari buruzko teoria materialista eratzea da helburua, baina ez dira, inola ere, bizitza sozialeko beste arloak ahanzten, baizik eta azken finean pentsatzen da legearen alderdiak, baloreen hurrenkera, etab., edo horiek izan dezaketen garrantzia existentziaren produkzioa antolatzeko moduaren ondorioan dagoela.

Ikuspuntu horretatik gure gizartean jenero femeninoaren ezaugarri dena, eta sexuaren eta jeneroaren artean erlazio bat dagoen bitartean, emeei dagokiela kontsideratzen da gizabizitza sortuz existentziaren produkzioan parte hartzea. Horixe da etxeoandreen eginkizuna, eta iharduera hori estereotipo eta jenero ereduaren ikuspegitik emeei datxekie. Haatik, etxeoandreak ez dira gizabizitza sortzera dedikatzen diren bakarrak, kontuan hartzen baditu-

gu lan ordainduko sektore batzuk, zeinetan gehienak emeak diren, ohartuko gara iharduera horiek pertsonen zerbitzurakoak direla, giza bizitzari era orokorrean laguntza ematekoak: erizainak, maistrak, puerikultoreak, prostitutak, etab. Horrek esan nahi du jeneroaren desberdintasuna egitura sozialaren esparruan azter dezakegula. Gizartea bi jenerotan dago egituratua, gizabizitza sortzen eta birsortzen duena eta aberastasuna sortzen eta birsortzen duena. Ikus dezakegunez, gizabizitzaren sektore sortzailea aberastasuna sortzen eta administratzen duen sektorearen menpe dago. Dena den, azken hau ez da autonomia, izan ere iharduera maskulinoak ez lirateke egingo femeninoak egingo ez balira, baina hala ere menperatzailea da, harreman sozialak baldintzatuz baitaude aberastasunaren produktioa eta administrazioa direla bide¹⁴. Mintzatzen garenean jeneroaren desberdintasunaz, era horretako desberdintasuna ari gara aipatzen. Jeneroaren desberdintasuna beti gertatzen da, aktibitate horietan aritzen diren pertsonak emeak izan ala ez. Jeneroaren egiturazko desberdintasunaren adierazpenak dira esate baterako iharduera femeninoen lansari, prestakuntza, prestigio edota botere mailak apalagoak izatea iharduera maskulinoetakoak baino, horietan dihardutenak arrak edo emeak diren begiratu gabe.

Jeneroaren desberdintasunarekin hertsiki erlazionatuta dago sexuaren desberdintasuna. Maiz gertatzen da sexuaren desberdintasuna eta jeneroarena nahastea. Seguru aski hutsegite horren oinarria da oso erlazio estua dagoela sexuaren eta jeneroaren artean, halatan non ohizkoena baita emeak femeninoak izatea eta arrak berriz maskulinoak. Kontua da, sexuaren desberdintasuna dela medio emeak, hala gizarte-maila femeninoan nola maskulinoan kokatuak egon, lansari apalagoak eskuratzen dituztela, makurrago baloratuak daudela, edo arrek baino botere gutxiagokoak direla, langintza berdinetan.

¹⁴ Aberastasunaren iharduera sortzaileari buruz, "maskulinoaren" nagusitasunaren adierazgarri dateke haurtzaindegien beharra nola arazoitzen den. Esan ohi da emakumeek haurtzaindegiak behar dituztela lan ordaindutan aritu ahal izateko. Planteamendu horren azpian dago emakumeek produkzio sistemaren eskakizunei men egin behar dietela baldin eta lan ordaindu bat lortu nahi badute, lanean ari direino ez dute aldamenean haurrik izan behar, ez eta haurren zaintza eta lan ordaindua batera egin behar (horrekin loturik esan beharra dago Cadizko emakume zigarrogileek joan den menderako lortu zutela). Bestalde, haurtzaindegiak izateko ez da arazozi nagusi bezala planteatzen umeen premiak. Uste da "gizarteak" berak eman behar dituela horretarako soluzioak, lan ordaindua eta gizabizitza sortzea bat ez datozela-eta, eta, jakina, proposatzen diren soluzioek ez dute produkzio sistema zalantzan jartzen, horren egitura indartu baizik. Eskakizun mota horrek esan nahi du praktikan pertsonak sortzea baino inportanteagoa dela gauzak produzitzea, beraz, "maskulinitasuna" "femeninitasunari" gailentzen zaio.

Era horretan antzematen ahal da noiz izaten den tratu desberdina pertsona bat sexu batekoa edo bestekoa denean, eta tratu horrekin batera edo horren ordean, jendeak nolako tratua jasotzen duen edo baloratua izaten den bere jarrerarengatik, gizartean betetzen duen tokiagatik, edo estereotipo kultural jakin batzuri egokitzeagatik, horiek sexu bateko pertsonenak eta ez bestekoenak direnean. Azken kasu horretan, diferentziak sortarazten dituenak ez da sexua, baizik eta sexua sozialki nola dagoen sinifikatua. Gerta liteke, eta izan ere hala gertatzen da, pertsona batzuek sexu/jenero sistema haustea, halatan non emeak izanda jenero maskulinoa bereganatzea (industria arloan lan egitea, etxean "familiburu" izatea, zuzendaritza politikoetan karguak hartzea, etab.) edo arrak izanik jenero femeninoa bereganatzea (trabestiak, erizainak, etxekoandreak, etab.). Faktore biak, sexuari eta jeneroari dagozkienak, bereizi ezinako moduan agertzen badira ere, kasu batzuetan desberdintasunaren funtsa sexuan datza eta beste batzuetan berriz jeneroan. Hala ere ez ditugu errealitatearekin nahasi behar sexuaren eta jeneroaren artean helburu analitikoarekin egiten dugun banakuntza.

Adierazi dugun hau adibide batekin garatzen saiatuko gara. Erizaina izanez gero diru gutxiago irabazten da zirujau izanda baino, sexua gora behera, eta gerta daiteke erizain lanetan dabilen ar batek eme batek baino gehiago irabaztea. Adibide honetan soldata desberdinak izatearen arrazoia izan daiteke sexu bereizkeriaren eta jenero desberdintasunaren batura. Baina adibidearekin segituz, ikusten badugu erizain lanetan ari diren arrek ez dutela etxeko lanik egiten eta emeak baino ordu gehiago eginez lantokian eta lankideekin nahiz nagusiekin emeak baino gehiago erlazionatzen direla, emakumezko erizainak eguneko lanak bukatu bezain laister etxera joaten diren bitartean, ikusiko genuke erizain lanbidea femeninoa izanik ere¹⁵ horretan aritzen diren pertsonak ez direla talde homogeno batekoak, baizik "iharduteko modu" femeninoagoak edo ez hain femeninoak aurki ditzakegula: femeninoagoa da etxera itzultzea eguneko lana amaitu bezain laister, etxeko zereginei lotzeko (femeninoa da bat etxean eta lanean) eta maskulinoagoa da lagunekin tabernara joatea lanetik ateratzerakoan (emea etxean dago afaria prestatzen eta haurrak zaintzen). Azken egoera honek esan nahi du lantokian egoera femeninoa izatea eta mas-

¹⁵ Hastapenean iharduera femeninoak gutxiago baloratzen ziren, zeregin horietan emeak aritzen baitziren, eta murriztutako balorazio horren barnean emeen azpibalorazioa zegoen, arruntean publiko deitzen diren eremuetan, hau da, azpibalorazio horrek batez ere sexu osagaia zeukan. Gaur egun desberdintasun latzena jeneroarena da, berez, eskuartearen daukagun adibidean, erizain lanbidea zirujauarena baino gutxiago ordaintzen da, ez horrenbeste emeek burutzen dutelako, femeninoa delako baizik.

kulinoa etxean, eta hori onuragarria da lanerako, bada, etxeko maskulinitasunaren ondorioa balio erantsia da lan ordaindu femeninoa duenarentzat.

Esan dugun bezala behar-beharrezkoa da sexu desberdintasuna eta jenero desberdintasuna bereiztea. Sexu desberdintasuna nabarituko da lan berdinagatik eta kategorian berean emeak okerrago ordainduak daudenean; aldi berean, sexu bereizkeria azalduko da baldintza berdinetan lanpostu baterako arrak aukeratzen denean emearen kalterako. Jenero desberdintasuna azaltzen da femeninotzat jotzen den lana ar batek nahiz eme batek egin arren lan maskulino batek baino soldata apalago baldin badu, edo gizartean femeninotzat jotzen diren zereginetan ari diren pertsonak, arrak nahiz emeak izan, aktibitate sozialetatik beren lanaren maila dela-eta baztertuak direnean. Gainera, sexuan oinarritutako desberdintasuna areagotzen baldin bada lanbide femeninoetan, eta jenero desberdintasuna ere biziagotzen bada haien artean, aitortu beharko da sexu/jenero sistema ez dela osagarritasunean oinarritzen eta, horregatixe, ez dela erraz legitimatzen, izan ere ezin arrazoituzkoa baita batbedera zertarako dagoen prestatuen hartantxe aritu behar izatea, gaitasun femeninoak eta maskulinoak elkar osatzen dutelarik, eta aitzitik, emeen egoera soziala arren egoeraren azpitik dagoela, zer egiten duten axolarik ez duelarik; eta maskulinitasunak eta femeninitasunak ez dute elkar osatzen, baizik eta hor dagoena da menpekotasunezko erlazio hierarkiko bat.

Arlo psikikoari dagokionean, badakigu jakin, jeneroaz hitz egiten denean arruntean indarkeria, samurtasuna, lehiatzeko nahiz elkarlanerako ahalmena datozkigu burura, denak gizakien egitura psikikoarekin zuzeneko lotura dutenak, baina onartzen baldin badugu egitura psikikoa, hondarraren hondarrean, egitura sozialaren menpe dagoela, eta inolako dudarik gabe baieztatzen dugu hori, jeneroaz mintzatzeak eta sexu/jenero sistema aztertzeak inplikatzeko du errealitatea bi muturretatik hartzea, alde batetik bereizkuntza fisikoak, bizi-baldintzak, eta bestaldetik ezaugarri historikoak, baldintza sozialak.

Sexuaren eta jeneroaren artean erlazio dialektikoa dago. Gizarte jakin batean posizio sozialen banaketa sistema sexu desberdintasunetan oinarritzen bada ondoko hauek gertatzen dira:

a) Mutiko batengatik eta neskatiko batengatik espero dena ezberdina izanik, haien gurasoek eta gainerakoek, oro har, haurraren sexuaz bakoitzak bere hobespena erakutsiko du, sortuko den haurra zein sexutakoa izatea nahiko lukeen, semea edo alaba, alegia. Premutasunak garrantzi sozial handia izan dezake. Jeneroa sexuaren aurretik doa eta eratzen ari da gurasoen gogoan eta sexu bateko nahiz besteko pertsonen ematen zaien balore soziale-

an, eta eratzten joango da jaiotzetik aurrera ere, jaiio berria sexu batekoa edo bestekoa den jakinik sozialki dagokiona ematen zaionean: jeneroa. Gizakien moldagarritasuna kontuan izanik, eta batez ere jaiio berritan izaten den heldugabetasuna, jenero faktoreek azalpen fisikoa izaten ahal dituzte, adibidez, gantza-muskuloaren proportzioa bigarren mailako ezaugarri sexualetako bat da, baina, era berean, jeneroaren ezaugarri bat ere bai, faktore hormonalei ezezik bizitzeko ereduari ere loturik baitago.

Haur jaioberri bakoitza sexu batarekin edo bestearekin lotu behar da, aurrebaldintza gisa identifikazio sistemak ezartzeko, zeinen bidez bere nortasun psikikoa garatzeko modurik izango baitu, eta baita maila soziala erdietsi eta garatzeko aukera emango dion ikasketa prozesu bati ekiteko ere. Haur sortu berriaren sexua gizarte sexista batean ez identifikatzea nortasunik gabe uztea bezalaxe izango litzateke. Bere baitakoa bai, izango litzateke, baina ez beretzako, ezta besteentzako ere, eta horren ondorioz ezin izango zen subjektu bihurtu. Alderantziz, bereizkuntza anatomiko nabariak gertatzen ez direnean, zailtasunak izan daitezke nortasuna eraikitzerakoan.

b) Sexua ezin ukatuzko oinarria da gizakiak bereizteko, eta halaxe da transzendentziarako dugun gure lehen gaitasunari, hots, birsortzeko gaitasunari buruz. Bereizkuntza horietaz ohartzen garenean irudikapen sozial bat sortzen dugu errealitatearengan eragina duena, jenerotan egituratuz. Esan nahi baita, gizarte itxura batean oinarrituz tajutzen dugu: sexuen arteko bereizkuntza anatomikoetan.

Orrialde hauetatik proposamen hau egiten dugu: hots, jenero kontzeptua izaera materialista eta gatazkatsuz hornitzea. Gatazka-ikuspegiak inplikatzeko du jeneroak ez kokatzea feminotik maskulinora doan ardatzean, baizik eta konturatzea bi kategoria kontrajarriak eta elkar baztertzailak direla: dimentsioanitzeko eredu erabiltzen badugu, dimentsio bakoitzean, eta erabiltzen dugun eredu baldin bada dimentsioetariko bat determinatzailetzat hartzen duena, proposatzen dugun dimentsioa da "existentzia materiala sortzeko baldintzak" izenburua duena. Horren gatazka-izaerak inplikatzeko du hura erabiliz eratzten diren garapen teorikoek ez dutela jeneroen arteko desberdintasunari buruzko soluziotzat berdintasuna ematen, baizik eta jenero desberdintasunak ezabatzea, desberdintasunak gizabakoaren esparruan kokatuz eta ez sexu motan. Horrek esan nahi du alde aurretik maskulino edo femenino deitu den hori edozeinen ondare izan daitekeela, sexu batekoa nahiz bestekoa den begiratu gabe.

Beste alde batetik, azpimarratu behar da sexuak eta jeneroak ez dutela izaera enpirikoa, ez dira azterlanaren xedearen partaide baizik eta eraikuntza teorikoarena, zeinekin hurbiltzen

garen azterlan horretara, izan ere, teoriak kontzeptu horiei bakarrik ematen die izaera. Izaera enpirikoa dutela pentsatzea teoriak eta kontzeptuak erabiltzea bezalaxe izango litzateke, ohartu gabe batak eta besteak eraikin batzuk direla, zeinen bitartez zentzumenezko errealitatetzat hartzen dena gainditu nahi baita. Teoria bat eta orobat teoria garatzeko kontzeptuak ere zientifikoak izateko oinarritzko baldintza da horiek berak ere xedetzat jotzea. Horixe da, hain juxtu, orri hauetan adierazi nahi izan dugun asmoa.

Baloreak, errealitatea eta baloreen errealitatea

Baloreak definitzeko modu bat da ideien eremuan kokatzea eta horiek kulturaren menpekoak, beraz izaera autonomorik gabekoak direla kontsideratzea: "Gizabanako edo giza taldeek dituzten ideiak, desiragarri, egoki, on ala txarraren gainean izan ohi dituztenak. Balore ezberdinek irudikatzen dituzte giza kulturatan izaten diren bereizkuntzen alderdi nagusiak. Gizabanakoek beren bizitzak zein kultura motatan igarotzen duten, horren arabera izango dira egiten dituzten balorazioak ere."¹⁶

Baloreak gizakien gaineko iritzien sostengu dira, bai eta haien artean sortzen diren harremanen edo bizi duten munduaren gaineko iritziena, eta aldi berean gure jokabideen orientatzaile dira, bai zentzu positiboan eta baita ere besteen erreakzioak aurrikusteko bide ematen diguten heinean, horiek nagusi diren baloreetatik urruntzen direnetan. Baloreen osagaiak ez dira elementu arrazionalak soilki, baita elementu afektiboak ere, sarritan aldaketa prozesuak oztokatzen dituztenak.

Baloreak ideien eremuan kokatzen diren ber, are gehiago, existentziaren baldintza materialen menpeko hartzen diren heinean, onartzen delarik, bestalde, ideiak ez direla finkoak izaten baizik eta aldaketan gai izan ohi direla, era berean baloreak ere ez dira finkoak izaten. Horregatik dira erlatiboak. Hala eta guztiz ere, baloreen erlatibotasunak, gizakientzako izaera unibertuala izan dezakeen balorerik seinaltatzeko ezintasunak, ez du esan nahi baloreen arloan "edozerk balio dezakeela", baizik eta horiek mota askotakoak izanik, aldaketak ez direla ustekabekoak, inguruabar sozialen ondorio baino. Alde batetik edonon balio dezakeen balorerik ez badago, toki konkretu baterako eta une jakin baterako baloreak espezifikoak dira, "edozerk ez du balio". Horiek ulertzea espazioan eta denboran kokatzea da, baina errealitate absolutua izaten dute koordenada horietan kokatzen direnean.

¹⁶ Giddens, A.: (*Soziologia*, Madril, Alianza Universidad, 1991, 770 or.). Gehienetan, soziologiaren ikuspegitik baloreak irudikatzen dira ideien parte bailiran, eta hala egiazta dezakegu arazo honek aipatu dugun eskuliburuan zer tratamendu duen ikusten badugu, bai eta beste idazlan klasikoetan ere, hala nola G. Rocher (*Soziologiaren hastapenak*, Bartzelona, Herder, 1973), edo Fichter, J. (*Soziologia*, Bartzelona, Herder, 1977). Hori ez da ordea, Cuviller, A.-rekin gertatzen (*Soziologiaren eskuliburua*. II. liburukia, Buenos Aires, El Ateneo, 1970), zeinetan baloreak alde batetik moralaren testuinguruaren barnean tratatzen baitira eta ekonomiarenean bestetik. Guretzat ikuspegi hau egokiagoa da.

Gizarte baten baloreak ez daude bata besteengandik berezirik, aitzitik baino, zeren baloreen ordenaren eta ordena sozialaren artean nolabaiteko harremana dagoelarik, horiek hierarkikoki antolatuak agertzen baitzaizkigu. Horrekin esan nahi da baloreen ordenean batzuk balio handiagokoak edo txikiagokoak direla, edo baloreentzako garrantziaren aldetikako ordena dagoela. Baloreen ordenari buruzko alderdi funtsezkoenak kontuan hartzen dute gizakiari buruz zer ulertzen den, gizaki batzuk besteekin eta izadiarekin nolako harremanak dituzten, gizakiek zer egiten duten. Horrela ez da harrizkoa pertsona bat balore horietara egokitzen ez denean gizatiarra ez dela entzutea. Gizatiar hitzak, beraz, eredu bat oroitarazten digu, zeinetan esaten zaigun nola izan behar duen, eta ez da egiaztapen enpiriko bat, gizakiak eta haien adierazpen ezberdinak nolakoak diren agertzen diguna.

Baloreak aipatzen ditugunean, orain artekoa baino definizio zabalagoa egiten ahal da. Horren arabera baliotsuena da gehien desiratzen dena. Fichterrek agertzen digun bezala¹⁷: "Azalpen gisa esan daiteke "balorerik baduela" pertsonarentzat eta taldearentzat baliagarri, desiragarri eta mirestekoa den orok". Ikusten dugunez, egile honek baliagarritasun kontzeptua sartzen du balorearen determinazioari dagokionez. Kontzeptu hori, zeinetaz aurreago mintzatuko baikara, premia kontzeptuari atxikitzen ahal diogu, eta baliagarritasuna izango da helburu hori erdiesteko bitartekoa.

Ikuspegi ekonomikotik¹⁸, eta jadanik aintzinatean eta Erdi Aroan, balorearen nozioa zuzenbide distributiboaren ideari lotzen zitzaien, (Aristotelek adibidez, bere *Etika Nikomakoren*tzako hartan). Funtsean balorea determinatzeko arazoa da nola trukatu baliokideak lanaren banaketa soziala dagoen lekuan. Aristotelerentzat balorea gauzen baliagarritasunaren eta horiek ekoizteko behar den lanaren arabera neurtzen da. Baina gertatzen da baloreari ematen dion neurri horrek inplikatzeko duela neurri unitate berberera murriztu beharra subjektibotasuna eta objektibotasuna, eta horregatik planteamendu hori ez da eraginkorra.

Zuzenbide distributiboaren arazoari soluzio bat emateko modua izango litzateke trukearen bidez lortutako baliagarritasuna bi aldeetatik baliokide izan dadila lortzea. Horrek suposatuko luke balorearen alderdi subjektiboari lehentasuna ematea. Adierazgarriena baldin bada balorearen alderdi subjektiboa, datu adierazgarria hartuko litzateke bidezko trukea

¹⁷ 295. orr. ikus 2. oharra.

¹⁸ Interesgarria da A. Cuvillier-ek bere *Soziologiaren eskuliburuan*, Buenos Aires, Ateneo, 1970, nola lotzen dituen balorearen teoriari buruzko ikuspegi subjektiboa eta objektiboa, ekonomiaren aportazioak eta soziologiaren erlazioatzean. Eta hauxe da, hain juxtu, ondoko orrialdeetan jarraitu nahi dugun bidea, sexu/jenero sistemaren eta balore ordenaren artean erlazio bat finkatzeko asmoz.

erdiesteko, beti ere, helburu bertsuak izango lituzkeena, hots, ondasun horiek produzitzeko behar izandako lana.¹⁹

Adam Smithek doktrina klasikoaren oinarriak finkatu ditu (1755). Fisiokraten tesiari erantzunez, zeinentzat lurra baita ekoizle bakarra, hark planteatzen du lana dela, printzipioz, aberastasunaren sorburu bakarra. Gaineratzen du nazio zibilizatuetan lurrak eta kapitalak lagundu egiten dutela produktuen fabrikazioan, eta beraz, balorearen finkapenean. Horrela iristen da produkzioaren kostuari buruzko teoria formulatzera. D. Ricardorentzat lana da balore guztien iturburu, baina kontuan hartzen bada ardoa bezalako produktuek zahartzen direnean balioa gehitzen dutela, denboratasuna eransten dio, nahitaezkoa dena produktua merkaturatzeko. K. Marxentzat tesia absolutuagoa da. Erabilpen balioa eta truke balioa bereizten ditu, erabilpen balioa indibiduala da eta trukearena berriz soziala. Merkantzia baten balioaren neurria izaten da hura produzitzeko erabiltzen den lan-denbora, sozialki beharrezkotzat jotzen dena.

Kontuan hartu beharrekoa da, orobat, ea zergatik lana den balioaren neurria. Cuvillierrek R. Huberten planteamendua aipatzen du hori adierazteko, zeinentzat balioaren neurri hori lanaren duintasunari buruzko irudikapen kolektiboekin lotzen baita. Guk nahiago dugu Marxen proposamenari jarraitzea. Giza bizitza praktikoa da bereziki, giza bizitza sortzeko ekintza. Horregatik dago lana erdi-erdiko gunean. Gure iritziz balioaren neurri-unitatetzat²⁰ gauzak produzitzeko sozialki beharrezkoa den lan-kantitatea hartzeak bide ematen du kontzientziatzeko gure aktibitate sozialaren produktuez inguratuak gaudela. Inguratzen gaituen gehien-gehiena gure ahaleginaren emaitza da, balorea produzitzen dugun horretan gauzatzen da, produzitzea, edozein gauza, ondasunak zein zerbitzuak, adiskidetasuna, erantzukizuna, gure energiaren akidurarekin batera doa, eta energia horiek mugatuak dira, beraz, helburu baterako erabiliz gero beste batean ezin daitezke erabili. Gure ikuspegitik, ez ditugu lanaren duintasunari buruz dauzkagun irudikapen kolektibo horiek balorearen neurritzat hartzen, baizik eta gure muga fisiko eta intelektualak azpimarratzeko, bai eta gure bizitzan mugak baditugula adierazteko. Gizakiaren errekonozimendua bilatu behar horrek bultzatzen gaitu lana balorearen neurritzat hartzera.

¹⁹ Lanaren banaketa sexuala hartzen badugu, eta horrekin batera horren emaitza, jeneroen instituzionalizatzea, alegia, sexuan oinarritutako aberastasunaren banaketa ezberdin horrek erakutsiko liguke lan-kantitate batek gutxiago balio duela izaera femininokoa denean maskulinoa denean baino, non ez den onartzen emakumeen eta gizonen artean truke ezberdina dagoela, nazio atzeratuena eta atzerarazleena artean gertatzen den bezala.

²⁰ Eta kontuan izan behar da baloreak egitate sozialak direla.

Aurreko orrialdeetan adierazi dugunez, kontuan har ditzakegun jenero-dimentsioen artean, bereziki azpimarratzen dugu dimentsio ekonomikoa, ikuspuntu materialistan oinarrituta. Horrek baloreak eta baloreen ordena aztertzea garamatza, ukaezinezko egitate sozialak baitira, ikuspuntu ekonomikotik, gizartearen oinarria egitura ekonomikoa delako eta egitura ekonomikoa lana eta lanaren banaketa delako. Baina ekonomia arloan balorea termino objektiboetan ezezik subjektiboetan ere kontsideratu izan da. Kasu honetan balorearen sorburu baliagarritasuna litzateke edo delako ondasun horrek giza beharrak edo nahikundeak asebetetzeko duen ahalmena. Gauza batek balio ezberdina izan dezake batentzat eta besterentzat. Jakinekkoa da gizakiak izaki sozialak diren aldetik eta baloreen ordena eraikin soziala den aldetik, baloreekiko subjektibotasuna ez dela pertsona batetik bestera horrenbesteraino aldatzen, baizik eta zerbait hobesteak eta erabilgarriago egiteak baduela zerikusirik pertsona bakoitzaz gairi dauden bestelako arazoekin. Eta horrela, gertatzen da objektu baten pertsona ezberdinen artean balorazio berbera izaten duela, bestela ez litzateke ulertuko publizitatean kontsumitzaileen hobespenak sortzeko egiten diren inbertsio eskergak.

Objektuaren balioari buruzko hurbiltze materialista batek, aldi berean bide emango ligukeen horrek, gizatasunarekin zuzenean erlazionatzen den aldetik baliozko objektua zer den kontsideratzeko, eramaten gaitu teoria ezberdinen artean balioa-lanaren teoria hobestera. Baina defendatzen dugun balioaren teoria garatu aitzin hitz gutxitan orain arte azaldu ditugun hiru hurbilketa horietara itzuliko gara:

1. Benetako balio objektiboa, balorearen adierazpen materiala aipatzen duena, gauzak produzitzeko behar den lan-kopurua, gauza bakoitzak eskatzen duen lana, nola objektu materialak hala konpromezu emozionalak, bizitzako proiektuak, etab.
2. Balio subjektiboa: pertsona bakoitzarentzat zer balio duten gauzek, harremanek, proiektuek, konpromezuek, e.a.
3. Balio subjektiboaren eraikuntza soziala, zein baldintza sozialetan hartzen duten balioa gauza ezberdinek (Balio subjektiboaren eraikuntzaren prozesu objektiboa).

Alde batetik, balioaren neurria baloratzen dugun hori produzitzeko behar den lan-kopuruan oinarritzen da. Horrek bi ezaugarri ditu. Gure aktibitateak eta esperientziak ordenatzen ditugu giza produktuak direla kontuan hartuta, eta beste aldetik gauzak hierarkikoki ordenatu ahal izateko modua bilatzen dugu, ezaugarri objektibo batean oinarrituta, jendearen borondateatik landa, hura produzitzeko behar izandako lan-kopurua, alegia. Horrezaz gainera guretzat gauzek duten balio subjektiboaren neurri objektiboa litzateke horietarako egiten dugun lan-kantitatea, horiek eskuratzeko eta kontserbatzeko behar den lan-kantitatea.

Adibide batekin argitu nahi nituzke aurreko planteamendu horiek. Opariaren adibidea jarriko dugu. Sarri askotan esan da gehien balio duena detailea dela, ez opariak berez balio duena. Hala ere, opari bat oso garestia baldin bada, nola edo hala saiatzen gara oparia jaso duenari zenbat kostatu duen jakinarazten. Gauza bera egiten dugu opariak ahalegin handi baten ondorioa baldin bada, edo dendarik denda nekatu arte ibili garelako ilusiorik handiena egingo bide duenaren bila, edo ordu asko behar izan dugulako hura egiteko, edo hartzaileari gehien zer gustatuko litzaiokeen asmatzen. Bestalde, pertsona batenganako estimazio gutxi daukagunean, hari egin beharreko opariak ez digu ardurra, edo batzuetan itxura baino ez duten opariak bilatzen ditugu. Maite dugunarekin horrela jokatzeari traizio egitea litzateke, maite dugunarekiko ezezik baita geure buruarekiko ere, eta opari engainagarriaren bidez saldu besterik ez dugu egiten geure benetako sentimendua. Askotan, ordea, kontraktiko ere gertatzen da, hots, gure opariak ez duela diogun maitasuna behar bezala erakusten, oparia ez dagoela pertsona horrek guretzat duen balioaren maila berean.

Norbaiti oparia egiten duenak bere buruari egiten dio, oparia aukeratzeko inbertitu duen denboraren bidez. Opariaren prezioa sentimenduen balioaren neurri objektiboa da. Opari garesti batek (opari-egilearen eros-ahalmenari dagokion heinean) esan nahi du ahalegin handia egin dela, norberaren zati handi bat ematen zaiola hartzaileari, izan ere, oparia erosteko xahutu den dirua beste nonbaitetik kendu beharra baitago, eta gehienetan alde aurretik egindako lanetik dator. Alderantziz, opari hartzaileak bera nola baloratzen duten neur dezake oparia egiteak zenbat kostatu den jakitean. Horregatik emakume bati bitxi bat oparitzen diotenean ezinbestekoa du bere buruari galdetzea ea urrezkoa den ala xaflaztatua, diamantea den ala zirkonita. Seguru aski ez du urrea ezta diamantea ere helburu, baidiz eta opatzaileak ahalegin handia egin duenentz. Aitzitik, oparia egiten badio maitatzen ez duen batek, zenbat eta baliotsuagoa izan hainbat eta erdeinagarriagoa izango da. Ez dugu nahi izaten guretzat baliorik ez duen batek opari baliotsurik egin diezaigun.

Azaltzen ari garen adibide honetan, opariaren bitartez adierazten dugu pertsona batzuk guretzat zer balio duten edo horiekin zer lotura dugun, edo haiengandik zer espero dugun. Eta balio hori oparian ezarri dugun lan-kopurua izan da: a) oparia ordaintzeko dirua da alde aurretik egin dugun lanaren agerpena, b) oparitzen duguna gerok egin bada horretarako lana egin izan dugu, c) kontuan hartu beharrekoa da, halaber, oparia erosteko dirua irabazteko lanarekin batera baita hura aurkitzeko eman dugun denbora ere.

Baloreen ordena eta botere harremanak

Baloreak eta baloreen ordena aipatzen direnean frangotan jakintzat ematen da baloreak produktu sozial bat direla, gizakien arteko adostasuna adierazten dutela. Alabaina, lehenak ez dakar ezinbestez bigarrena. Alde batetik bat baldin bagatoz ere baloreak produktu sozialak direla esatean, horrek ez du esan nahi baloreak denen artean sortzen ditugunik, ez baitugu denen artean erabakitzen zeri ematen diogun balioa. Horrek, funtsean, adierazten digu zer den zehazki gizakia gizaki egiten duena, edo jeneroari dagokionean, zerk egiten dituen gizonak gizon eta emakumeak emakume. Gauzak horrela azaltzea izango litzateke denok eragin sozial berbera dugula esatea bezala, ahalmen berbera gure hobespenak beste guztiek onar dezaten lortzeko. Horrekin ez dugu besterik egiten botere harremanak saihestea baino, bai eta boterea zilegi bihurtzen duten tresnak ere, zeinen bidez indarkeria aldioro erabili gabe, indarrez behartu gabe eta obediencia bidez gauzatzen baita boterea. Atal honen hasieran seinatzen genuen bezala, baloreek ez badute izaera autonomorik, ez du zentzu gehiegirik horiek aztertzea kontuan izan gabe zein baldintzatan garatzen diren.

Hori dela-eta, gure ustez baloreen ordenera hurbiltzeko behar-beharrezkoa da boterea eta menerapena aztertzea, eta gure proposamena da, adierazten ari garen bezala, materialismoaren ikuspegitik heltzea, hau da, azken finean, izaera sozialaren egitate nagusiak aztertzen ditugunean, gizarte harremanak tajutzen dituztenak, aurkitzen dugu horien iturria existentziaren baldintza materialak direla. Nork eta nola erabakitzen duen zerbait inportantea dela edo ez dela, zenbat energia, zenbat jende saiatuko den hori adierazten. Non-dik datozkigun baloreak, zeren edo noren eraginez balio duen zerbaitek beste batek baino gehiago, zergatik dagoen baloreen hierarkia mota bat eta ez beste bat. Galdera horiei ez dago erantzuterik ez badakigu gizarte ordena harreman ezberdinen ondorio dela. Ez luke zentzurik hori ahanzteak, gure oinarritzko kezka ez baitira baloreak edo jenero sistema, baik eta nola bi horiek ematen dioten jarraikortasuna gizarte desberdin bati.

Boterez eta menerapenez mintzatzean aintzakotzat hartu behar dira bata zein bestea ager daitezkeen modu alternatiboak. Weberri jarraikiz, boterea da besteei, haien borondatearen kontra, haien interesen kontra eta boterea duenaren aldeko aktibitateak eginarazteko ahalmena. Boterea erabiltzeak esan nahi du errealitatea menderatzen dela horretarako beste pertsonak erabiliz. Kontraesana badirudi ere, boteredunaren ahalmenak berekin dakar eskuperatuekiko menpekotasun objektiboa, esan nahi baita, haiek gabe ezin duela bere as-

moak edo helburuak bete; beraz, horiek burutzeko besteei dituzten aukera guztiak kendu behar dizkie. Boterea gauzatzen da boteredunak lortzen duenean bestek berak nahi duena egin dezaten. Eta alderantziz, menpekoek beren egitasmoen kontra iharduten badute ez dituzte beren helburuak beteko. Baina egoera horren beste alderdia da batbederaren helburuak bete ahal izateko besteengan boterea erabili beharra zenbat eta handiago den hainbat eta ahulagoa izango dela boteredunaren egoera, eta ahulezia areagotzen dela horren helburuak eta menpekoek dituztenak ezberdinak diren neurrian.

Boterea ulertzeko modu bakarra ez da hau, botereaz hitz egin dezakegu, baita ere, batbederak dituen helburuak burutzeko duen ahalmenaren aldetik, norberaren indarrez baliatuz, edo besteen laguntza borondatezkoa izanik, edo aurkariei irabazteko gai izanez gero. Botereaz mintzatzeko bide hau hartu dugunean eremu irristakorrean abiatzen gara. Izan ere, batbederaren helburuak bezala borondatezko laguntza erdiesteko edo aurkapanik ez izateko bidea ematen duten zirkunstantziak, egitate sozialak dira eta horregatik norbanakoek adierazitakoak baldin badira ere haiek gainditzen duten zirkunstantzietan tajutu dira. Gainditzen dituzte, zeren norbanako bakoitzak adierazten dituen desirak eraiki baitira besteekiko harremanen baitan, eta harremanok ez dira hautapen libre baten ondorio, gizarte maila anitzeko multzo bati eta horiek gauzatzeko modu askori dagozkie, aurrekoak eta ondokoak, baina horiek betetzean subjektuak bere lorratza utziko du.

Azken buruan, baloreen ordena eta balore ordenatuen hierarkia aipatzen ditugunean, baloreen ordena hierarkikoa denez gero, bi bide hartzen ahal ditugu, hautapidezkoak ez direnak osagarriak baino. Bide bat izango litzateke kontzienteki gure bizitzaren orientatzaile dena, agirikoa, aztertzea; eta bestea gure adierazpenen azpian dagoena, ezkutukoa. Guk zera proposatzen dugu, alegia, jeneroaren eta baloreen loturei buruzko hurbilketa burutu dadila abiapuntu gisa eta konpromezu teoriko eta politikoa hartuta: sexuan oinarritutako desberdintasun sozialaren teoriaren eraikuntza, eta desberdintasun hori deusezteko borroka, nork bere indarrak garatuz eta xede horretarako beste indar batzuk batuz eta gure planteamendua pertsona gehienentzat erakargarri eginaz. Horrek teoria bat garatzea eskatzen du, botere harremanak desmaskaratzeko, eta orobat emakumeen desberdintasun soziala finkatzen duen menerapena, beste gizarte talde batzurengan ere eragin kaltegarria duena. Gure proposamenean toki nagusian daude agirikoaren eta ezkutukoaren arteko kontraesanak, horiek guretzat behin-behineko zonak dira, hauskorrak, sexuan oinarritutako desberdintasun sozialaren zilegitze sisteman.

7.

*Proposamen materialista
balore sozialak aztertzekeo
eta horren aplikazioa
emakumeen desberdintasun
sozialaren azterketan*

Balore sozialak aztertzekeo proposatzen dugun hurbilketa materialistak berekin dakar abiapuntutzat hartzea bizitza sortzekeo kontsumitzen diren giza energi kopurua. Gure iritziz objektibatzen ahal dira ezkutuko baloreak, gure gizartean defenditzen direnak, jendeak egiten dituen printzipio aldarrikapenak edozein izanik ere. Horretarako giza energia gehien behar duten aktibitateak aztertzen dira. Ezkutuko baloreak geure bizitza produzitzeko iharduera praktikoan adierazten dira, hala geure bizitza fisikoan nola sozialean. Gure bizitzaren administrazio ekonomikoak, hau da, hain ondasun urria dela kontuan izan behar duen administrazioak, neurtzen digu zer baloratzen dugun eta zer balore-ordena ezartzen dugun.

7.1

**LAN KANTITATEA
BALOREAREN NEURRITZAT**

Guk proposatzen dugun balore neurria da gure produkzioak burutzeko sozialki beharrezkoa den lan-kantitatea, eta balore hierarkia da gure ekintzak burutzeko erabiltzen dugun lan-kantitatearen arabera ordenatzearen ondorioa. Lan-kantitatea neurri-unitatetzat hartzea, baloreen azterketaren arazoari soluzio teknikoa ematea baino gehiago gizarte harremanak eta bizi dugun mundua aztertzekeo abiapuntua da. Esan nahi du, gure analisiaren erdigunean giza bizitza ipintzen dugula, ez izate aldaezin gisa hartuz, baizik eta iharduera praktikoaren aldetik. Ez zaigu iruditzen bizi dugun munduaz kontzientzia har daitekeenik geure buruarekin erlazionatuta ez bada, eta hori gure gaitasunaren muga bat da. Ezin dugu, gai ez garenez, mundua bere hartan hartu, gurekin erlazionatuz baizik. Eta gu ez gara emaitza bat, datu finko bat, prozesu bat baino, geure burua egitekeo prozesua. Egiten dugun horretan adierazten dugu zer garen eta zer baloratzen dugun.

Lan-kantitatea neurri-unitatetzat hartzeak ondokoa adierazten du:

- Egungo lana, geure aktibitateetan darabilguna, baloratzen dugunaren adierazlea, hura lortzeko ahalegina da, zerbait balore soziala dela adierazten duena da hura produzitzeko, zaintzeko, babesteko eta abarrerako sozialki erabiltzen den ahalegina.
- Lehenengo puntuari gaineratu behar zaio, guk dugun ahalmenean inbertitutako lana, eza-gupenak eta trebeziak eskuratzeko behar izan dugun lana, eta gure osasun fisikoa eta psikikoa maila batean mantentzen erabilitako lana, norberaren eta gizartearen produkzio gaitasuna zertzen duena.
- Gaineratu behar zaio, halaber, egungo lana produktiboago egiten duten tresnak sortzen inbertitutako lana. Komunikabideak, garraiobideak, instalazioak, eta oro har, makinak, egindako lanaren emaitza dira, gure lana produktiboago egiten lagunduko diguten tresnak. Bestalde, lan-kantitatea bidera daiteke kantitatea edo kalitatea lortzera. Kalitatearen ondoren beti dator lan kantitatea. Ildo horretatik lana bideratzen ahal dugu gauza gehiago edo hobeak edukitzera, gehiago edo hobeak izatera. Gauzak produzitzeko egiten den lanaren ostean beti pertsonak daude, zuzenean erabil daiteke pertsona produzitzeko edo pertsona baten zerbitzurako gauza bat produzitzeko. Ez dago bata bestearengandik banantzerik. Asko landu den pertsona bat, hura produzitzeko lan-kantitate handia behar izandakoa, produktiboagoa da gutxi landutako pertsona bat, hots, hura produzitzeko lan-kantitate txikia behar izandakoa baino.

Erantsi behar da produkzio ihardueren artean sartzen direla bizitza eta heriotza produzitzekoak, edo bizitza produzitzeko baliabideak produzitzen dituztenak, eta heriotza produzitzekoak direnak. Bizitza fisikoa produzitzeko baliabidetzat har ditzakegu elikagaiak, gure bizi-energiak egoera fisiko onean kontserbatzen laguntzen dutenak, edo osasuna kontserbatzeko ezagupen eta iharduerak, edo gure ahalmen intelektualak²¹ garatu edo kontserbatzen dituztenak, edo ongizaterako nahiz bizitza bera kontserbatzeko eskubideari buruzko ideak produzitzen dituztenak.

Baina produkzio ihardueretan pertsonak izaki sozial bezala produzitzen dira, ez dira gizaki jenerikorik produzitzen, baizik eta tajukera sozialei loturiko gizakiak: enpresariak, langi-

²¹ Ez dugu ahanzten ongizate fisiko nahiz osasuntzat jotzen dena sozialki definitua dagoela, beraz erlazio dialektiko bat dago gure ordena balorea mamitzen deneko lan aktibitateen artean, izan ere, gure energia urriak nola banatzen ditugun erakusten baitigu, eta zer erabilpena ematen diegun, eta baliotsua denari eta ez denari buruz ematen diren definizio sozialak. Ezkutuko ordenaren eta agirikoaren arteko kontraesanak aztertu ondoren –hori ondoko orrialdeetan argitzen saiatuko gara– gure interpretazioaren arabera gatazken adierazle dira, eta baloreen ordenean, azken finean ordena soziala baita, gatazka horien bitartez aldaketan sortzaile ere bai.

leak, etxeko jaun-andreak, familiburuak, lehen munduko edo hirugarreneko bizilagunak. Subjektu sozial hauek guztiak harreman sozialen ondorio dira, eta horrenbestean baita aldateten edo are ezabaketaren xede ere. Subjektuak dira sozialki subjektatuak daudelako eta tajukera sozial ezberdinen bidez jasaten duten subjekzioaren jakitun dira, horrezaz gainera subjektatzeko gai dira, euren bizitzari zentzu kontzientea emateko, ezkutukoa eta agirikoa hurbiltzeko, ezkutukoa agirian paratzeko eta horrekin gizarte harremanen baldintzak aldatzeko.

7.2

JENERO DESBERDINTASUNA ETA BALOREAK

Jeneroaren eta baloreen arteko harremanak aztertzean atera genuen ondorioa zen emakumeen desberdintasun soziala, arazo partikular bat izanik, arazo orokorrago baten erakusle dela: emakumeak ez dira baliotsuak giza bizitzak baliorik ez duelako, edo baieztapen hau zehazteko, giza bizitzari balore soziala ematen zaio aberastasuna sortzeko balio duen heinean eta zenbat eta aberastasun gehiago produzitu eta hobeto²². Emakumeen erreklamazioek eta gizonen isiltasunak argi erakusten dute gure gizartean zein den balore ordena. Begibistakoa da edozein hiritarrek eskatzen duela beharrezkoa, desiragarria edo baliotsua juzkatzen duena. Eskakizunen bitartez, batez ere produkzio iharduerei dagozkienak, uler daiteke gure baloreen ordena eta ez, ordea, printzipio aldarrikapenen bitartez, gero ez baitira iharduera praktikoki bihurtzen. Ikusten dugunez emakumeek gizonezkoen toki sozialak betetzea eskatzen dute, eta bereziki irabazpide handiagoak, boterea edo/eta onarpen soziala ematen dituztenak, eta alderantziz, gizonek ez dute eskatzen, areago oraindik, muzin egiten diote emakumezkoenak iruditzen zaizkien toki sozialak betetzeari.

Azaldu dugun bezala, jeneroen definizio soziala egiteko ikuspegi materialista erabiltzean, produkzio ihardueren artean, bai ordaintzen direnak eta baita ordaintzen ez direnak ere, ikusten dugu emakumeak higitzez gehiago direla giza bizitzaren produkzioarekin zerikusia duten ihardueretan: etxekoandre, erizain, puerikultore, gizarte laguntzaile, etxeko lan-

²² Ondorio honetara iritsi nintzen nire "Els condicionats de la incorporació de la dona al treball remunerat", *La interdependència de les activitats domèstiques i el treball remunerat. Estudi comparatiu dones/homes* izeneko lanaren lehen txostenean, Bartzelona, Parlament de Catalunya, 1993. Kataluniako Parlamentuaren Comissió d'Estudi sobre la igualtat d'Oportunitats Home-Dona Batzordeak agindutako lana.

gile... gehienak emakumeak dira. Gizartea jeneroaren arabera dagoela egituratua esaten denean gertaera hori egiaztatu besterik ez da egiten. Aldi berean ikusten dugu aberastasuna ekoizteko eta administratzeko iharduerak gehienbat gizonetakoek betetzen dituztela, nahiz eta azkeneko hauek aurreko aktibitateak feminizatuak dauden adina maskulinizatuak ez dauden.

Gizartea jenerotan banatuta egotea eta baloreen ordena erlazionatzean bi gauza agertzen zaizkigu. Alde batetik iharduera femeninoak baxuago baloratzen dira: baliabide gutxiago aplikatzen dira, ezagupen gutxiago, eta gizartean gutxien baloratzen diren pertsonak emakumezkoak dira. Iharduera horietarako ez omen da giza gogoetarik egin behar, ezta ezagupen zientifikorik eta baliabide handirik aplikatu behar ere. Edozein emakume emankor ama izan daiteke, ez zaio inolako kontrolik egiten sortu eta zaindu behar dituen umeak bere kargura hartzeko izan dezakeen gaitasunaz. Haur bat haurtzaindegian zaintzeko ez da beste ikasketarik behar lanbide heziketakoak baino, maistra bati askoz gutxiago eskatzen zaio ingeniari bati baino. Maistrari eskatzen zaio ikasleak maita ditzala, ingeniari ez zaio eskatzen lanean emoziorik izatea, kontrakoa baino, bere sentimenduak alde batera uztea. Funtsean kontrajarren bat dago "maitasunezko" lanen eta "arrazoizkoen" artean, eta horren kariaz lehenbizikoei arrazoia beharra ukatzen zaie eta azkenekoei maitasunarena. Pertsonak zaintzen dituztenek beste ezeren gainetik maitasuna izan behar die, gauzez arduratzen direnek, batez ere beren sentimenduak baztertu egin behar dituzte, ez da amodioa erabili behar dutena, arrazoia baizik. Mezu honek ezkutuan du aberastasuna ekoiztu eta administratzea bere horretan ez dela helburua, pertsonak produzitzeko, ongizatea, osasuna, duintasuna emateko zeharkako modu bat baizik. Ezkutuko mezua da edozeinek har dezakeela bere gain jendearen, haurren, gaisoen eta zaharren ardurua, baina ongi prestatutako pertsonak behar dira etxeen edo zubien eraikuntzan, enpresa baten administrazioan edo interes kolektiboen zereginetan aritzeko.

Gure aktibitateak burutzeko oinarriztat gogoeta hartzen den gizarte honetan, ezagupen zientifikoa beste motatako ezagupenen gainetik dago, eta iharduera femeninoak dira berariaz giza bizitza zaintzera bideratzen direnak, gure senaren emaitza den aldetik, lan horietarako eskatzen diren ezagupenak urriak diren heinean. Baina aldi berean bizi garen gizarte honetan gogoeta, kalkulua, ezagupen zientifikoa aplikatzea, horiek guztiok "goi mailako" iharduerak dira, eta gizakia da, gainerako izaki bizidunen gainetik dagoena, horiek burutzen dituen. Alde batetik gure emozioen kontrolaren beharra aipatzen bada hutsik

ez egiteko, hartzen ditugun erabakiak arrazoizkoak izan daitezten²³, bestetik, pentsatzen da emakumeen lana "maitasunezkoa" dela, horrela kolpe bakar batez iharduera femeninoen arloan arrazoiari tokia ukatzen zaio, eta bidenabar sentimendu bikoitzak ere bai, jokutzen da emakumearen adierazpen ahalmenak maitasunezkoak soilik bailiran, eta emakumearen baitan gorrotoak tokirik ez balu bezala. Baina era berean "maila goragokotzat" jotzen da, arrazoiarekin zerikusia duena, kontuan hartu gabe hierarkia hori, arrazoia emozioaren gainean jartzen duena, alegia, izan daitekeela ezkutuko etsaigoaren zantzua, gerok geure buruari aitortu ezin dizkiogun etsaikeriazko sentimenduen seinale.

Emakumeen mugimendu erreibindikatioak egin duen bidea aztertzen badugu, argi azaltzen zaigu praktikan mugimendu honek ikuspegi sektorialetik tratatzen duela emakumeen jarrerara. Are pentsatzen denean ere ezinezkoa dela emakumeen desberdintasuna gainditzea, harik eta gizartea bera aldatzen ez deino. Praktikan, taktiketan zehazten denean egoera hori gainditzea zertan datzan, ezartzen diren neurriak arront korporatibistak dira. Emakumeen desberdintasun soziala emakumeena da eta gizartearen beste talde batzuk, gizonak adibidez, egoera hori gainditu beharra ikustera iritsi daitezke, zuzenbidearen zentzuak eraginda, nahiz eta aldaketa horrekin etekinik atera ez. Eta zuzenbidearen auzi horri ematen zaion erantzunik erabilienean izan ohi da emakumeak gai direla gaur egungo gizartean gizonak betetzen dituzten tokia betetzeko. Horrekin esaten dena da gizonak gizartean betetzen dituzten tokia balioetsuagoak direla emakumeek betetzen dituztenak baino. Baloreen hierarkia jeneroari atxikitzen zaio.

Horretara darabiz giza giza eta gure bizitzak, gure produktu material, zientifiko eta tekniko- en azpitik baloratzeak. Horrek esan nahi du emakumeek ez dutela "emakumearena" egin nahi, eta emakumearena egitea balio gutxikoa denez, jakina, gizonak ere ez dute hori egin nahi. Gaur egun emakumearena egitea giza bizitza produzitzea eta zaintzea baldin bada, emakumearena egin nahi ez izatean erakusten da giza bizitzari ez zaiola baliorik ematen, aitzitik, baloratzen direnak produktuak direla ez produktugileak.

²³ Eskakizun horrek berekin dakar arrazoia beti ez erabiltzea erabakiak hartzean, arazo sozialak konpontzeko aterabide ezberdinak bilatzea, edo egungo auziak konpontzeko agertzen diren arazo berriak. Izan ere, arrazoia aipatzen da giza iharduera gehienek emotibotasuna mozorrotzeko, kalkulatu egiteko baino gehiago burutu delako itxura egitearren. Arrazoia erabiltzen ahal da gure egintzak gidatzeko, edo gure egintzei arrazoizko itxura emateko.

Emakumeen eta gizonen jarrerak hartu behar dira zuzenean interpreta ezin daitekeen komunikazio kode bat bailiran. Aurrean ezartzen ahal den auzia da zertan litzatekeen mundu guztiarentzat erakargarria "emakumearena" egitea, jenero femeninoaren tokiak betetzea, hori izango baitzen baloreen ordena buruz behera jartzeko modua. Giza bizitza zaintzera zuzenean bideratutako iharduerak birbaloratzea. Balioaren adierazpena baldin bada egiten den horretan jartzen den lan-kantitatea, iharduera horiek burutzen dituzten pertsonen prestakuntza maila kontuan hartuz, horiek burutzeko ematen den denbora, eta horien esku jartzen diren baliabideak, iharduera femeninoak birbaloratzeak ekarriko luke jendearen hezkuntza maila jasotzea, soldata hobeak ordaintzea, eta horien eskura lan bitarteko gehiago ipintzea, eta horrek besterik gabe ekarriko luke gizartean maila altuagoa izatea. Baloreen ordenean giza bizitzak lehen mailako tokia izan dezanean, ez da, eskuarki, arazorik egongo umeak zainduko dituenik aurkitzeko, erien eta zaharren ardurara izango duenik. Segurki ez legoke arazorik etxeko lanez eta besteren haurren zaintzaz arduratuko liratekeen gizonak aurkitzeko, baldin eta iharduera horiek emango baliete goi mailako status sozial bat. Denbora berean, jeneroaren eta baloreen arteko erlazioa aztertu nahi badugu galde egin beharko genuke zer dela-eta puerikulture lanetan aritzeko prestakuntza gutxiago behar den ingeniari lanetan aritzeko baino, edo zergatik ez den espero ingeniarietara maita dezaten eta zergatik puerikultureetara bai. Emakumeen desberdintasun soziala gainditzeko ezinbestekoa da baloreen ordena aldatzea, giza bizitza zaintzearen eta aberastasuna produzitzearen artean dagoen lotura aitortzea, eta horretarako nahitaezkoa da jeneroen deuseztatzea, zeinen oinarrian baitago sexuen araberako lan banaketa.

MARGARET BULLEN

**Euskal Herriko Unibertsitateko
Atzerritarrentzako Ikastegiko
Irakaslea**

Txostenari

ihardespena

Eskuhartze honen helburua da María Jesús Izquierdoren txostenaz, sexu-jenero sistema eta baloreak: ikuspegi materialista izenekoaz zenbait gogoeta egitea. Horretarako gure asmoa da jeneroaren eta baloreen gaineko eztabaidaren puntu behinenak azpimarratzea eta ondotik ikuspegi materialistatik sortzen diren arazo batzuk azaltzea. Oraingo honetan antropologia sozialetik abiatuko gara, jeneroaren antropologiatik bereziki, eta puntu horretan bat gatuz Izquierdok aurkeztu duen jenero kontzeptuarekin eta bidenabar jeneroari buruzko disziplinarreko ikuspegiari gure ekarpena eskaini nahi diogu.

1.

Ikuspegi materialista bat

Izquierdoren lana aipatzean ohartzen gara zer garrantzia duten desberdintasun sozialaren eragile diren harreman materialek. Alde horretatik, jenero desberdintasunaren iturburu dira existentziaren produkzioan emakumeen eta gizonen arteko harreman desberdinak. Emakumezkoen kasuan, harreman horiek bizitzaren produkzioaren inguruan kokatzen dira, ugalketan, alegia.

Izquierdoren iritziz berdintasuna ez da jenero desberdintasunaren soluzioa, ez du hori proposatzen, baizik eta jeneroen arteko aldea ezabatzea bereizkuntza hori indibiduoaren mailan birdefinituz eta ez sexuaren mailan. Hori hala izan dadin, baloreen sistema hierarkikoa aldatu beharra dago, zeren "iharduera ekonomiko femeninoa" (giza bizitzaren produkzioarekin lotzen dena) "iharduera maskulinoa" baino (aberastasunaren produkzio eta administrazioarekin lotzen dena) maila apalagoan kokatzen baitu.

Txostenaren argudio nagusia laburbildurik, orain garrantzizko arazo batzuk ukituko ditugu.

Gizarte zientzietako teorian ezezik feminismoaren praktikan ere, berariazko balore femeni-noak aitortzeak eta jeneroa birdefinitzeak birrantolatu zuen feminismoaren proiektu politikoak. Izquierdok adierazi bezala, berdintasunerako eskubidea eredu maskulinoari asimilatzearekin nahasi zen: balore "femeninoak" aitortzeak emakumeak gizartean sartzearen berrinterpretazioa ekarri zigun, ez maskulinizazio prozesu bihurtzeko, baizik eta berariazko balore horiek defenditu eta mantentzeko. Alabaina, ez da garbi gelditu balore horiek zer diren zehazki.

Jeneroaren birdefinizioarekin ados dago antropologia. Jeneroa ez da dagoeneko sexuen arteko bereizkuntza biologiko gisa ikusten eta ulertu behar da sortzapen sinboliko edo erai-kuntza kultural gisa. Soziologoak dioenez, ez dago jeneroaren existentzia enpirikorik, baizik eta gizonen eta emakumeen arteko harreman sozial eta kulturaletan eraikitzen da. "Femeninotasuna" eta "maskulinotasuna" bakarrik ulertzen dira elkarrekiko harremanetan, gizartearen egitura ezberdinaren barruan.

Antropologia feministan arazoa jadanik ez da "gizonak bezala bihurtzea", eta birplanteatzen da jenero harremanen oinarria aldatzea. Horrek desberdintasun sozial mota guztiak gainditzea dakar.

3.

“Gizaki” ereduak

Izquierdok frogatzen digu balore “maskulinoek” eta “femeninoek” bereizirik parte hartzen dutela harremanen eraikuntzan, gizakiaren eraikuntza ezberdinetan. Era berean, antropologiak azpimarratu du zer garrantzia duen “persona” kategoria testuinguru kultural ezberdinetan eraikitzekeo prozesua ikertzeak. Emakumeari dagokionean, ikertzen da hainbat kulturatan “emakume izateak” inplikatzeko dituen kontzeptu ezberdinak eta nola “emakume” kategoria kulturala aldatuz doan denboran eta espazioan zehar.

Ez dago onartzerik nortasuna (“emakumearena” edo “gizonarena” adibidez) elkarren arteko harremanen aurretik dagoenik, aitzitik baino, ikertu behar da nola sortzen diren harreman horiek. Esan nahi baita, gauza da gizakia eta jeneroa egiten ari den prozesutzat hartzea eta ez egindako zerbait bezala.

Gizartearen errealitatea “malgua” den aldetik Izquierdo ados dago gizarte zientzien jarraitarekin, orokorrean esentzialismoa arbuatzean. Alde horretatik, aitortzen du zer garrantzia duen nortasun esentzialak deseraikitzeak, “emakume” kategoria eraikitzen duten forma ezberdinak aztertzearen bitartez. Gaineratzen du feminismoak borrokatzen duela bereziki “emakume” kategoria menpetasun gisa eraikitzen deneko formak aldatzearen.

4.

Kategoria unibertsalak eta desberdintasun sozialak

Sexu edo jenero eredu bateratuak deseginez, Izquierdok indarra ematen dio klase sozial aldagaia erabili beharri “emakume” kategoria unibertsal hori hautsi beharrez. Behiala kategoria horren baliagarritasuna zalantzan jarri bazen ere, horren inplikazioak nekez desagertuko dira proiektu feministatik. Proiektu horren funtsa da emakumeek lanean, etxean eta, oro har, gizarte osoan nozitzen duten menpekotasuna eta esplotazioa aldatzeko ekintza politikoa. Emakumeak bereizten dituzten diferentzia eskergak, egoera ekonomikoan, maila sozialean, jatorri etnikoan edo kulturaren testuinguruan, aitortzeaz gainera, ezinbestekoa da guztion menpekotasunari oldartzeko kontzientziari eustea. Izquierdok makina bat eredu maskulino eta femenino azaldu arren ahalegina egin du kontzientzia hori ez galtzeko.

Horrenbestez, argi dago munta handiko afera dela ulertzea nola sexu desberdintasunak bat egiten duen bestelako desberdintasun sozialekin, esate baterako klase sozialarekin. Sexu desberdintasuna ezezik soziala ere gainditu ahal izateko, eta emakumearen menpekotasun soziala sexuaren araberako lan-banaketan oinarrituz, ikuspegi materialistak proposatzen du bata ezabatuz gero bestea besterik gabe ezabatuko dela.

Alde horretatik, Izquierdok bereizkuntza azpimarragarri bat ezartzen du jenero ezberdintasunaren eta sexuaren artean. Lehenengoa iharduera sozial edo lanekoan gertatzen den bereizkeriari dagokio: iharduera "femeninoaren" esparruan izan ohi dena, iharduera horretan ari dena emea nahiz arra izan. Bigarrenak aipatzen du sexuaren kariaz izaten den bereizkeria, non emeek –"jenero" maila berebean– iharduera sozial "maskulino" nahiz "femeninoetan" ari badira ere arrek baino botere txikiagoa baitute.

Soziologo honek baieztatzen du lana dela elementurik behinena gure gizartearen pertsonak eta gauzak definitu eta ondotik baloratzeko. Gaineratzen du lana ezin daitekeela balore hierarkia zehazten duten botere erlazioetatik banandu eta, bestalde, giza harreman ezberdinen sisteman sartzen dela. Ohartzen gara praktikan balio gutxi ematen zaiola giza bizitza ugaltzeari (iharduera "femeninoen" eremuan kokatzen dena) eta alderantziz, balio gehiago ematen zaiola produkzio ekonomikoari eta aberastasuna administratzeari (eremu maskulino), nahiz eta ideologiaren ikuspegitik pertsonak bestelako iritzia izan.

Izquierdok azaltzen digun hitzen eta ekintzen arteko kontraesan horretan antzematen dugu emakumeek ulertzen duten moduko "balore femeninoen", eta nagusitu den diskurtsoak erakitako "balore femeninoen" artean diferentziatu beharra, bigarrenak balorea ukatzen baitio aktibitate horri.

Izquierdok eskaintzen digun ikuspegi materialistak eginahalak egiten ditu "lan femeninoa" birbaloratzen, lanaren banaketa sexuala eta emakumeen ezberdintasun soziala gainditzeko bide bat den aldetik. Iharduera "femeninoari" ospe hobea emateko neurrien artean, Izquierdok proposatzen du aipatu iharduerak hobeki kalifikatzea edo baldintza hobek ezartzea horietan ari direnak soldata hobek izan ditzaten. Hargatik, emakume ugari ordainik gabeko sektorean segitzen dutenez, bidezko da zehatzago izatea eta ordaindu gabeko iharduera "femeninoen" balioa emendatzeko modua asmatzea. Gehiengo osatzen duen sektore hori aintzakotzat hartu ezik, lanaren birbalorazioa hala-holakoa litzateke.

Horrezaz gainera, Izquierdo ohartzen da badela diferentzia bat emakumeen eta gizonen jokamoldean aktibitate "femenino" bereberian ari direlarik, eta horrek frogatzen du gizonak horretan duen parte hartzeak ez diola nahitaez etxeko lanarekiko duen jarrera aldatzen. Hori dela-eta ezin da sinetsi lan publikoaren baldintzak aldatzearekin bakarrik aldatuko litzatekeela gizonen esparru pribatuan duten jokabidea. Begibistan dago, beraz, lanaren balioa aldatu behar dela, hala etxe barruan nola kanpoan.

Azkenik, M^o Jesús Izquierdok bere ikuspegia erakusten digu, gizarte honi buruzkoa. Ondorio gisa, bai diferentzia sozialak bai eta sexualak ere, ezabatuko lirateke eta pertsonak gizabanako gisan definituko eta ez sexuaren kariaz. Jarrera horrek planteamendu feminista marxista batera garamatza, non diferentzia horiek gainditzeko modu bakarra diferentzia ekonomikoaren oinarriak ezabatzea baita. Dena den, proposamen horrek alde batera uzten ditu bestelako ezberdintasun sozialak. Aurrez aurre dugun arazoa da gizarte honetan nola definitzen den gizabanakoa. Demagun maila sozio-ekonomikoa berdinduz jenero diferentzia desagertzen dela, zer esan genezake beste adierazle sozialez, adibidez arrazaz edo hobespen sexualaz? Desberdintasunaren eta bereiztasunaren artean dagoen koskak beste utopia bat eraikitzen garamatza, Verena Stolckek formulatu zuena, hots, mundu baten non diferentziek inportantziarik izango ez duten (where differences no longer make a difference)¹

¹ Verena Stolcke: "Sexu-jenero, kategoria unibertsalen haustura?", *Ikerketa, Irakaskuntza eta Feminismoa Nazioarteko Kongresurako txostena*, Donostia, 1993ko martxoa.

MARÍA JESÚS IZQUIERDO BENITO
Soziologiako Irakasle Titularra.
Bartzelonako Unibertsitate
Autonomoko Soziologi
Departamentua

Arken

berrikuspena

Jenero eta Baloreen gaineko ihardunaldiak burutu ondoren zenbait gai nahi nituzke azpimarratu. Galdekizun horiek gainerako txostengileek eta partaideek iradoki dizkidate, eta Margaret Bullonek ere bere iruzkin kritikoaren bidez. Aipatu nahi nituzkeen galdekizunak honako hauek dira:

- Gerta daiteke desberdintasun soziala aztertzean emakumeek amankomunean dutenari garrantzi gehiegi emanez gero kategorია hori gauzaki bihurtzea.
- Giza bizitzako produkzio aktibitateen eta ugalketa aktibitateen artean egin ohi den parekaketa.
- Emakumeen taktika politikoei buruzko arazoa: lana edo produktua birbaloratzea.

Emakume kategoría gauzaki bihurtzea ebitatzea nekeza da oso, eta orobat, konturatzea kategoría horrek kanpoko izaerarik ez duela, ezta historikoki determinatutako harreman sozialak baino lehenagokoa ere. Alderantziz gizarteak egin duen zerbait da, eta horregatik des-egin daiteke. Beste hitzetan esateko azertu daiteke sozialki nola izan den eraikia eta "emakumea" eraikin sozialak zer erlazio duen gure ordena soziala osatzen duten gainera-ko eraikinekin. Gure iritziz, "emakume" kategoriaren des-eraikuntza ulertzea da txertorik ho-berena sexutan banatutako gizarte mota honi oldartzeko. Hala eta guztiz ere, ez da ihar-duera intelektuala soilik, zeregin politiko bat baino, non adimen lanak eginkizun handia betetzen duen. Badakigu des-eraikuntzak berez geldiunea dakarrela, edo hitz gogorragoz esateko, jasangaitzaren erretorikak¹ sortarazten dituela, arriskuaren, hutsalaren edo ma-kurkeriaren gaineko argudioak, gauzak nahi ditugun modukoak izan nahian egiten den es-kuhartzeak dakartzanak. Izan ere, ezagupen zientifikoa errealitatetzat hartzen dugunaren erlatibotasuna azpimarratuz erabiltzea -horrek konpromezu politikoaren aurkako argudioak ezartzen baititu-, aldi berean, zientzia helburu politikoetan erabiltzeko modu bat da, parte ez hartzea parte hartzeko modu bat ere badelako.

Nahiko nuke beste arazo bat berriro ukitzea, hots, giza bizitzaren iharduera produktiboen eta ugalketa ihardueraren artean egiten den parekaketa. Halaber, iruzkin autokritiko bat ere

¹ Esamolde hau Albert Hirschmani hartu diot: *Jasangaitzaren erretorikak*, Mexiko, Fondo de Cultura Económica, 1991. Egile honek dioenez 3 lerro argumentuzko garatu dira modernizazio prozesuari aurka egiteko: ma-kurkeriaren tesia, egoera politikoa hobetzeko ahaleginen ondorio izaten da gauzak lehen baino okerrago jar-tzea, hutsalaren tesia, gizarteak aldatzeko saioek ez dutela deus balio, eta arriskuaren tesia, aldaketak garestiegi ateratzen direla eta arriskutan jartzen ahal dituztela lehendik lortutako abantailak. Nere jarrera aski kritikoa bada ere "modernitatea" deitzen den horrekiko, aldi berean Hirschmanekin ados nago eskuhartze politikoaren kontrako argudioez egiten duen kritika gehienarekin

egin nahi nuke iharduera horiek txostenean izan duten tratamenduari buruz. Pentsamolde feministan ohitura izan da lanaren banaketa sexuala adierazteko iharduera produktiboa eta ugalketa iharduerak hitzak erabiltzea, eta giza bizitzaren produkzioa ugalketa iharduera dela ulertzea. Eta produkzioa/ugalketaren arteko bereizketari dagokionez, zailtasunak sortzen dira. Lehenengo galdera da zeren produkzioa eta zeren ugalketa? Galdera honi erantzuteko gaurdaino gai horri buruz egin diren aportazioetara jo beharrean hiztegi xume bat hartzen badugu, jakingo dugu "produkzioa" hitza produzitu aditzaren ekintza dela, eta "produzitu" aditz iragankorrik hedatuena dela "egin" aditzaren ondotik. Hiztegian "ugalketa" hitza bilatzen badugu ugaltzearen ekintza eta ondorioa dela jakingo dugu, eta ugaltzea da lehendik zegoena emendatzea, beraz, produkzioaren errepikazioa. Bide horretatik gehienez ere iritsiko gara produkzioak berritasun eta aldaketa zentzua duela jakitera, eta ugalketak berriz produkzioaren errepikazioa. Ideologiaz edo eskolaz, familiaz hitz egiten denean, adibide batzuk jartzearen, adierazten da bi eginkizun dituela: gauzak aldatu ez daitezen ahalegintzea, eta beraz, ugalketa sozialaren bitartekoak lirateke horiek denak, edo bada aldaketen bultzatzailetzat hartzen dutenik ere. Bestalde, giza bizitzaren produkzioak, etxeko lanaren bidez, merkataritzako aktibitateen arloan gertatzen diren eragiketen kidekoak izaten ditu, patata erreka berdin aurki ditzakegu geure etxean eta jatetxe batean. Arrazoi hauek naramate produkzio/ugalketa binomioa ez erabiltzera sexuan oinarritutako lan banaketa aipatzen dudanean. Baina hau ez da esamolde hori baztertzeko arrazoi bakarra, txostenaren edukiak berak eskatzen baitzuen. Gizartea jeneroek egituratzen dute, eta horrek merkataritzako aktibitateen parte bat estaltzen du erabilpen balioak ekoizteko etxeko aktibitateen parte baten bitartez, jenero femeninoko aktibitate batzuk etxeko lanak ez direlako (adibide pare bat jartzearen, erizaintzako lana edo aurrezkolako hezkuntza) eta badaude aktibitate maskulino batzuk, merkataritzakoak ez direnak (etxeko konponketak, adibidez). Produkzio ihardueren sailkapen bat jeneroaren arabera egiteak (beraz, ez dut erabiltzen produkzio/ugalketa motatako sailkapena) esku ematen digu iharduera ekonomikoak jenero batean edo bestean sailkatzeko, merkatuan presentziarik duten edo ez kontuan hartu gabe. Aipatu berri ditudan zailtasunak gainditzeko asmoz, txostenean erabiltzen nituen esamoldeak ziren giza bizitzaren produkzioa/aberastasunaren produkzioa eta administrazioa. Horrela bereizi nahi nituen kontzeptuz kontzeptu emakume gehienek –hala etxean nola lan ordainduan–, aktibitateek eta gizonezkoenek batean daukatena. Hortaz, etxekoa/publikoa binomioari uko egin eta horren aurka jarri nintzen, eta horren ordez jenero femeninoa/maskulinoa bikotea onartu nuen.

Denbora puska bat iraganik eta planteamendu honek sortu eztabaidak aditu ondoren, pentsatzen hasi naiz ea jenero maskulinoko eta femeninoko aktibitateen artean berezko diferentziak finkatzen ahaleginduz, ez ote naizen ari diferentzia horiek berezkoak direla onartzen, eta horrekin batera sexuaren araberako lan-banaketa ezinbestekotzat jotzen. Bestalde, txostenean nioen pertsonen balioa horiek egiten dutenaren balioarekin neurtzen dela. "Femeninotasunaren" aktibitate bereizgarria giza bizitzaren produkzioa izanik, emakumeen balorazio sozialik eza giza bizitzaren balorazio sozialik ezaren adierazle da. Planteamendu hori berraztertzean galde egiten diot neure buruari ea ba al dagoen giza aktibitateen bat "giza ekintzarekin" zerikusirik ez duena: hau da, gizakiaren egiteko modua, zeinen garapenak gizakiaren beraren garapena baitakar. Galdera hura, ea zergatik baloratzen diren emakumeak gizonezkoak baino gutxiago, kasu honetan, beste honi lotu beharko litzaioke, zer den gizonen "giza ekintza" eta emakumeen "giza ekintza" bereizten dituen, eta ez emakumeek giza bizitza produzitzea eta gizonezkoak aberastasuna. Dena den, argudio horietatik atera daitekeen ondorioa da gaia ez dela agortu eta oraindik ere horri buruz asko dagoela eztabaidatzeko.

Aipatu nahi nuke, halaber, Margarita Bullenek egin duen galdera emakumeek garatu beharko lituzketen taktika politikoei buruz. Nola izan eragina baloreen ordenan, zer asmatu "femeninotasuna" gaur egun baloratzen dena baino gehiago balora dadin. Ekintza politikoa botere ekintza da, zehatz-mehatz esateko gauzak norberak nahi duen modukoak izan daitezen lortzea du helburu, are gure proiektuen kontrako jarrera aurkitzen dugunean ere. Jokoan dagoena da helburu bat izatea, baina helburu bat izatea bezain garrantzitsua da hura lortzeko indarra aski izatea eta horretaz jabetzea. Indarra behar da izan eta jakin behar da indarrak badela. Indarrak ez bada aurrebaldintza da eskuratzea, norberaren indarrak ez ohartuz gero, aurrebaldintza da horretaz ohartzea. Gai politikoetan indarra askoren batasunarekin lortzen da, edo etsaiek baino arma indartsuagoak edukitzearekin. Izan ere, batasuna oso arma indartsua da.

Emakumeei dagokienean, nortasun bateratu baten eta interes bateratu batzuen garapena –horrek ugaldu eta batu egiten baikaitu–, ez dago etxeko eta familiarterako harremanen isolamenduan aurkitzerik, edo nolana ere arront bide gogorra eta zaila da hori. Izan ere, etxean "gu bezalakoengandik" bereizirik baikaude. "Gu bezalakoak" badirela aitortzea da biderik zuzenena bereizgarri indibidualak ez baina baldintza sozialak direla guk bizi dugun egoerara eta sentitzen garen bezala sentitzera eramaten gaituztenak. Gizarte arlokoari aurre egitea errazagoa da sozialtzat jotzen eta bizitzen diren harremanetan; borroka politikoa maila indibidualean ezartzen denean, seguru aski ahulezia ekarriko du eta norberaren indarrari buruz-

ko kontzientzia galtzea, hori, ekintza bateratuetan bereziki, sozialki eraginkorra baldin bada ere. Jakina denez, indibiduoaren eta gizartearen arloko lotura bereizi ezinezkoa da, horregatik ezinezkoa zaigu izaki bikoitz bezala agertzea, espazioan banandua, etxean eta kalean: zetxean indibidualtasuna, kalean gizartearen arloa. Gure nortasunaren bi alderdiok espazio biotan agertzen dira. Hala eta guztiz ere, errealitatearen gainean eskuhartzeak dakartzan zailtasunak –batez ere aldatu nahi denean, eta are gehiago aldaketek kontrako erreakzioak sortarazten dituztela ikusirik– askoz handiagoak dira izaten ditugun beharrak asebetetzea zuzenean ukitu edo arriskutan jartzen badituzte, hala nola laguntasuna, errekonozimendua, afektua, norbaitentzat eta nonbait bakarrak garela sentitzea.

Txostenean seinalatzen genuen emakumeek duten balore sozialak lotura duela, edozein gizakiren kasuan bezala, emakumeak garatzen dituen aktibitateei egozten zaien balorearekin. Lan-tailerretan eztabaida gehien sortu zuen arazoetariko bat emakumeen lana nola birbaloratu izan zen, eta proposatu ziren aterabideak batez ere bi puntu hauetan kokatu ziren: jenero femeninoako aktibitateak eta maskulinoetat jotzen direnak burutzeko eskatzen diren prestakuntza mailetan berdinkidetasuna eskatzea. Adibide bat ematearren, ohartu ginen jeneroa eta jenero bakoitzaren balorea nabaritzen direla aktibitate ezberdinak burutzeko galdatzen den prestakuntzan. Unibertsitateko karrera feminizatu eta maskulinizatuak neurri berearekin ez baloratzeaz gainera, aktibitate profesional batek alde aurretik unibertsitate mailako prestakuntza eskatzen duenean, diplomatura mailako prestakuntza aktibitate femeninoetan hedatuago dago aktibitate maskulinoetan baino, zeinetan zabalduago baitago lizentziatura graduko prestakuntza. Honelako egoeretan gardenago ikus daitezke baloreak. Eztabaidetan seinalatzen zenez, balore sozialen birplanteamendu bat egin zitekeen arlo konkretu batean, esate baterako hezkuntza sisteman, sistematikoki galdatuz prestakuntza akademiko handiagoa, hedaturaz eta sakontasunez, sozialki jenero femeninoetat hartzen diren ihardueretan aritzeko.

Ihardunaldiei buruzko iruzkin hauei amaiera eman nahi nieke berriro aipatuz jenero femeninoako aktibitateak birbaloratu beharra dagoela, hori baita jenero/baloreen harremanen muina. Mugimendu feministaren eskakizun historikoa izan zen “lan berdina, soldata berdina”, baina eskari hori aldatu beharra izan zen, emakumeei soldatekin egiten zitzaieen bereizkeria mantentzeko haien lana gizonena ez bezala deskribatu eta izendatzeko bidea hartu zelako. Baliabide horretaz argudiatu nahi izan zen emakumeak ez zeudela diskriminatuak, emakume batek gizon batek adina irabazten zuela lan bera egiten bazuen, eta gizonak ez bezala lan ezberdina egiten bazuen. Horrela agiriko bereizkeria ezkutuko

bihurtu zen. Ezkutuko bereizkeriari berehala erantzun zaio eta dagoeneko eman ditu bere lehen fruituak. "Lan berdina, soldata berdina" printzipioaren ordezkia da "soldata berdina balio bereko lanagatik". Duela gutxi epai bat diktatu da soldata bereizkeriaren gainean eta printzipio hau aplikatu da.

Ene ustez, planteamendu honen bidez zirrikitu bat ireki da baloreen ordenean, horren adierazpen materialenean, hots, lan ordainduan eta soldata arloan. Txostenean azaltzen nuen, baloreen azterketa materialistaren aldekoa naiz. "Soldata berdina balio bereko lanagatik" printzipioa da txostenean proposatzen nuen ikuspegiaren adierazpen praktikoa. Dena den, seinalatu nahi nuke eskakizun horrek kontraesana duela bere baitan. Nahiz eta irizpide objektiboa, kanpokoa eta gizonak nahiz emakumeak lanean parte hartu aitzinekoa proposatzen duen, produktutakoak –hura produzitzeko atxiki zaion lanaren balorea gogoa hartuz– berez duen baloreari buruzko irizpidea, alegia, uste dut lanak ez direla balio berekoak aldeztatik, gero bihurtzen direla baliokide. Ez dira aldeztatik baliokide zeren bata "gizonezkoen" lana eranstearen ondorioa bada eta bestea "emakumearen" lana eranstearena, "gizonezko" lanaren atzetik gizarte eta familiaren egitura dago, eta gizonarentzat toki bat gizartean eta familian, "emakumearen" lanarekin gertatzen denaren antzo. Gizon bati "gizonaren" lana egiteagatik ordaintzea gizartean eta familian duen tokia beretzeko ordaintzea da, emakume bati "emakumearen" lanagatik ordaintzea gizartean eta familian duen maila apalagoko tokia beretzeko ordaintzea da.

Esaten nuen "soldata berdina balio bereko lanagatik" printzipioaren aplikazioa hedatuko balitz baloreen arloan sakoneko aldaketen hastapenetan aurkituko ginatkeela. Emakume-lanen eta gizon-lanen artean baliokidetasunak finkatzea ez da, inola ere ez, arazo tekniko bat soilik, kontrolatzaile baten eginbeharra, arazo politiko bat baino, azken buruan lana eta soldata eskubide indibidualtzat hartu beharra dakarrena. Zalantzarik gabe, lana horrela baloratuz gero eta balorazio hori hedatzen baldin bada, nahitaez familiaren egituraren aldaketak ekarriko ditu, hain zuzen ere soldata nozioa familiaren eskubide izatetik gizabanakoaren eskubide izatera igaroko baita.

Itxaron egin behar da etorkizuna presente bihur dadin zertara iritsiko garen eta benetan "lanaren balore ordena berria" sortuko dugun ikusteko; eragozpenak, eskuarki, gero eta gehiago izango dira, gizartearen egitura bera baitago jokoan printzipio horren oinarrian, eta bestalde, egiturak oso motel aldatzen dira.

SALVADOR CARDÚS I ROS
Soziologiako Irakasle Titularra.
Bartzelonako Unibertsitate
Autonomoko Soziologi
Departamentua

Baloreak
epistemologia
kritikoaren
aldetik

1.

1.1

IKUSPEGIA

Gaiari heldu aurretik bidezkoa iruditzen zait argitzea zein den gaiari buruzko nire ikuspuntua, ez pertsonala teorikoa baizik. Eta horrela egingo dut ez bakarrik "epistemologia kritikoa" kontzeptuaren erabilpena justifikatzeko, baita jakin dezazuen zein tokitan kokatzen naizen soziologia deitzen den horretan, edo soziologiaren barnean nagusi diren praktike-tan. Beraz, ikuspegi hori zehaztu nahi nuke, hortik hasiko bainaiz gogoeta hau egiten, bai eta proposa lekidakeen beste edozein gogoeta soziologiko ere.

Aipamen pedante horiekin asper ez zaitzadaten –eta ni ere ez aspertzeko– gaiari hasiera emango diot era argi eta errazean adierazitako abiapuntu batzurekin, ondotik azalduko dugun ikuspegia horien bidez hobeki kokatuko delako. Lehenbizi, baieztatzen da gauzak ez direla diruditen bezalakoak, gizarte arloari buruz errotikako mesfidantzatik abiatzen gara-la, alegia; bigarrenik, esango dut "errealitate soziala" historian zehar definitutako eraikitze prozesu baten emaitza dela, eta horrekin baieztatzen da horren izaera erlatiboa; eta azke-nik, ene irudiko, soziologiaren helburua gizarte arloaren "desnaturalizazioa" dela, hau da, eraikitze prozesu hori aztertzea, jakintzat emandakoa, naturalizatutakoa, desmaskaratzeko. Hiru baieztapen hauekin jakinarazi nahi dut neretzat soziologia eta, oro har, gizarte zien-tzia guztiak, batez ere eginkizun kritiko bat dutela, ingeniari-tza soziala izango litzatekee-naren kontrako muturrean. Jakina, kontrako muturrean kokatzeak ez du esan nahi "elkarre-kiko ikusi ezina dutenik". Alderantziz, bata bestearekin ez nahasteari esker sor daiteke lankidetzaren eraginkor bat ezagupen kritikoaren eta sozialtasuna eraldatzeko edo kontserba-tzeko proiektuen artean.

Bestalde, ez dut inolako positibismo motarik praktikatzeko "errealitatea nolakoa den", ustez eta modu zientifikoan frogatu dena kontatzera behartzen nauena. Errealitate soziala, agian "errealitate" guztiak hain dira konplexuak ezen ezinezkoa baita bere osotasunean hatze-matea. Ikuspegi horretatik, errealitate soziala ez da "bat", baizik eta "errealitate" asko, eta definitzen dira ez ikuslearen arabera, horien funtzionamenduan inplikaturik dauden eragile sozial beraien arabera baino. Hori aski ez balitz, dena dago etengabeko aldaketari lotua. Are gehiago, "errealitate" sozialek interes berezia erakusten dute disimulaturik agertzeko, maltzurki guri "ziria" sartzeko, eta horretan izaki bizidunenetan izaten diren estrategien an-

tza dute, esaterako lore batzuk xomorrojaleak izaten dira, edo intsektu batzuek landareen txortenen antza izaten dute, inozentziarik gabeko nahaste-joko batean.

Beraz, dibertitzen nauen soziologia ez da trazedentziazko aurpegia jarriz itsasoko ura hartu eta hondartzan eginiko zulo batean botatzera bideratzen dena, baizik eta, karta-gaztelua lurrera erori gabe, pixkatxo bat erakar nazakeena, hainbeste errealitate ezberdin eta askotan gatazkatsu, eraiki, mantendu eta transmititzea bezalako eguneroko balentriaren aurkikuntzan. Karta-jokoarekin segituz, niri interesatzen zaidan soziologia horrek igjerri behar ditu zein diren truko horiek, magoak –gizarteak– liluraturik gauzkan maina horiek.

Esango didate agian ikuspegi honetan erlatibismo gehiegi dagoela, are zinismo pittin bat ere, eta zernahi gisaz, eszeptizismo gehiegi. Eta ez da horrela. Hor dagoena zera da, humorearen eta grinaren arteko lotura bat, kontraesankorra itxuraz baizik ez dena. Nork bere buruaz eta bere barne munduko trazedentziaz barre egiteko gogoia dago hor, eta sofri-mendua, hainbeste bidegabekeria errudunaren aurrean. Zeren argi geratu behar baita mago guztiek dituztela mainak. Baina mago onak eta txarrak daude, eta maina batzuk beste batzuk baino errespetagarriagoak etikaren aldetik, eta bai ezin onartuzkoak ere. Esan nahi baita, ez dela berdinean errealitate sozial oro jadanik eraikita dagoela esatea, eta errealitate guztiak, eraikita daudela-eta, era berean zilegi direla esatea. Errealitate horiei buruzko iritzi kritiko bat derrigorrezkoa da, gainera soziologoari konpromezu etikoa ere eskatu beharko litzaioke, ez bakarrik justizia, askatasuna eta berdintasunarekin, baita edertasunarekin ere, baina askatasun, berdintasun, justizia nahiz edertasun kontzeptuak aldiro berrikustekoak direla jakinik. Behin-behinekotasun hori, intelektualki sormen handikoa dena, behar bada soziologo eta filosofoek, antropologo eta historialariek ordaindu behar duten preziorik garestiena dateke ezagutzaren arbola debekatuko fruitua jateko izan duten auzartziagatik, zeinek Paradisutik urruntzen baikaitu, hots, berezko ontasunetik, oharkabeko zorientasunetik, egia gardenetik.

1.2

METODOA

Bidezko iruditzen zait, halaber, zerbait esatea erabiliko dudana "aurkikuntza" metodoaz, batez ere gero denok batera lan egin behar izango dugulako. Prozesu honek bi zati ditu. Lehenbiziko aldian, nahasmendua sortu nahi da. Nahasmendu egoera intelektualki arras produktiboa da (ez gaitezen orain ur uherrak eta arrantzaleekin nahasi). Eta ezinbestekoa da

gaia aztertzen hasten garenean izaten ditugun aurreiritziak, estereotipoak eta eskema mentalak "desmantelatzeko" –barne ministro batek "desartikulatzeko" esango zukeen–. Ondotik, arazoa berreraikitze ahalegina egingo da, baina ez begi inuxenteak jarritz, begirada maltzur eta era berean errukarriekin, hain justu ere, hartara arte ezkutatua egondako zerbait aurkitu duen batek jartzen dituen begiekin.

Beraz, hasierako irudia desenfokatzeko premia dago. Eta jorratu beharreko gaia zenbat eta hurbilago egon gugandik, hainbat eta handiagoa izango da premia hori. Hurbilago egoteak ez dakar "ezagupen" handiagoa –soziologikoa bederen–, kontrakoa baino: aurreiritzi kopuru handiagoa, are eta ustezko errealitate objektiboaren "nabaritasun" handiagoa. Eta gertukoa desenfokatzean, argazki edo zineko irudiaren antzo, barrenekoa agertzen da, paisaia, ordura arte ezkutuan zegoena, eta suerte piska batekin, eszenaren barrenean ustekabeko krimenen bat ere aurki genezake.

Desenfoke-prozeduraren helburua da gogoeta teorikoa hastea, ez aldeztetik ezarritako definizioetatik abiatuz –kultura estudiatzeko lehenbizi definizioa egin behar dela uste dutenen antzera, eta horrela seguraski ez dira inoiz iritsiko hori estudiatzera–, baizik eta "desnaturalitze" eta "kanporatze" lanaren bidez, eta horrekin lortzen ahal da asperduraz eza gutzen dena misterio harrigarri bihurtzea. Ohizkoa dena harrigarri bihurtzeko gai izatea, horixe da, hain zuzen, soziologi metodoaren lehenbiziko araua.

Beraz, gure azterketaren xede den berreraikuntza ensaiatuko dugu, kontrajarpen enpirikoekin –hemen gehienara jota adibideak baizik ez ditugu jarriko–. Horrela, esperimenduak ongi funtzionatzen badu ondorioa izango da "beste" problema batzuk formulatuko ditugula –gai berataz, noski–. Problema horientzat soluzioa edo soluzioak aurkitzea errazagoa izan beharko litzateke hautatutako aukera etikoetan, gogoratzen diren utopietan eta politika mota konkretu eta posibleetan oinarrituz gero.

Kontua da, sarritan, "arazo sozial" batek berebiziko arreta izan arren, denbora gehiegi arazo izaten dirauela. Ikusten dugunean, mesfidantza izan beharko genuke horretaz. Eta gerta baledi arazo ez izatea? Eta amarru bat balitz sozialki gu "izutzeko", aterabiderik gabeko laberinto batean okupatuta edukitzeko asmatua? Eta hainbat eta hainbat ideologo eta zientifiko, arazoa badela esaka, aziak baizik ez balira –borondate onekoak, nola ez ba–, inor txok ere ikusi ez duen deabrua ikusarazten, sinistarazten, hurbilarazten saiatzen direnak?

2.1

**NORK HITZ EGITEN DU
BALOREEI BURUZ?**

Hauetako asko, gaizki formulatutako problemak, iruzurra, alferrikako kalkulu sasizientifikoak, egiaztapen eskasekoa, "baloreekin" gertatzen da. Kontzeptu gisa, gure ohizko mintzairaren zati bat dira. Behin eta berriro gainera "arazo sozial" bezala agertzen dira. Erresuma Batutik heldu berri naiz eta urrian alderdi kontserbadoreak izandako azken kongresutik aurrera, politikan ez da besterik entzuten "balore tradizionalen itzulera" baino. Eta itzulera horren esku geldituko lirakeke irakaskuntzaren kalitatea, hiritarren segurtasuna, britainiarren urguiltasun nazionala, ekonomiaren berrindartzea, eta ez dakit zein neurriraino, baita arratsaldeko bostetako tea hartzeko ohitura betirakotzea ere.

Esan dezagun, lehenik eta behin, "hitz egitea" ez dela beti "pentsatzearen" ondorioa. Zerbaitetan arrazoi praktikoei beharturik hitz egiten dugu (adibidez "ekartzazu ura mesedez"), beste batzuetan ekintzaren osagaia da, batek bilatzen duen emaitza errazago lortzeko estrategia, alegia (a.b. "ikasten ala lanean ari zara"), eta besteetan denbora pasa ere aritzen gara berriketan, bada, batzuen belarrirako isiltasunak min gehiago egiten du mila aldiz errepikatu arren ezer berririk esaten ez duten topiko horiek baino (a.b. "errua gobernuarena da"). Gure kasuan, baloreez mintzatzeak gainera, jende arruntarentzat benetan ezohizkoa den zerbañ izan beharko luke.

Baloreen gaineko diskurtsoa, orokorrean, botere egoerari egokitu ohi zaiola baieztatu dezaket, eta are gehiago, boterea erabiltzeak sortzen duen nolabaiteko ondorearen adierazle ere izan ohi dela. Nork hitz egiten duen eta nola, baloreen gainean, zehatz notatu ahal izango balitz, ezinezko ahalegina bestalde, hortik aterako lirakekeen emaitzek arrazoia eman-go lidakete. (Hemendik bertatik zuen konfidantza eskatzen dut nire intuizio maskulinoan, bada, kidan arren horren prestigioa nagusi diren baloreetan eta agian zuenetan ere ez dela gehiegizkoa).

Ea esandakoa behar den bezala arrazoitzeko gauza naizen:

- Nik diot baloreez hitz egiten denean gehienetan "baloreen krisia" ulertzen dela. Krisi hori sumatzen ez bada, ez da horretaz hitz egiten, eritasunekin gertatzen den bezala edo eguraldi txarrarekin, osasunari eta eguraldi onari dagokienean.

- Baloreen krisiaz izaten den kezka, funtsean ordena sozialari buruzko kezka izaten da. Azken finean badirudi, gizabanakoen aldetik espero den jokabide "egokiaren" eta benetan izaten duten edo izaten dutela uste den jokabidearen arteko nolabaiteko desadostasunen ondorio dela.
- Jakina, baloreen "krisia" antzemateko igurikapen batzuk behar dira izan "jendeak egin beharko lukeenaren" gainean. Hau da, krisiak ukitutakoen taldeko partaide ez dago izaterik. Ukitutako horiek, baloreen ustezko krisiaren arabera, "beren jokabidea okertzen dute euren ohi-turen larria ez ikusteagatik". Barregarria izanda ere filme-argumentu bikain bati legokiokkeen gauza izango litzateke –horren eskubideak niretzat– pentsatzea ere "mundu guztia" jakinaren gainean egongo litzatekeela balore krisiaz eta horretaz denek serio hitz egingo luketeela.
- Gainera esan zitekeen "baloreen krisia" badela aitortzearekin bakarrik norbera hondamendi horretatik libre gelditzen dela, edo gehienez ere besteen krisiaren biktima soil dela. Baloreen krisiaren gaineko diskurtso honek antz ikaragarria dauka behialako "ez dakigu zer ikusi behar dugun oraindik", eguneratua noski.
- Laburbilduz, baloreen gaineko diskurtsoa botere-diskurtsoa da, edo hobeto esateko, boterearena. Horrela, hiru mintzamolde bereizi ditzakegu baloreen krisiaren gainean: a) aldi joanen nostalgia, non "gure" baloreak –gure botere-diskurtsoa– nagusi baitziren; b) itxaropena, gure baloreak –gure botere-diskurtsoa– inoiz nagusi izango den esperantza (edo gutxienez eskainu parlamentario pare bat edo hiru lortzekoa); eta c) borondatea, zilegitasunez lortutako gure boterearen diskurtsoa eraginkorrago izan dadin. Azkeneko kasu honetan, baloreen gaineko diskurtsoaren helburua da gizartearen morala hobetzea –arestian aipatu dudan britainiarren adibidea bezala–, baina morala bi zentzutan ulertuz, alde batetik ona eta txarra bereizteko ahalmena, eta bestetik "soldaduaeren morala" deitzen denaren zentzuan, hau da, gizartea disziplinatzeke asmoaren aldetik, manukoa eta "behar den bezala" gidatua izateko modukoa izan dadin.

2.2

BALOREEN GAINEKO DISKURTSOAREN ERAMALEAK

a) motako adibide enpiriko bat emateko egoki baino egokiagoak dira Espainiako Apezpikuen Konferentziako diskurtso batzuk –balore gaietako espezialista aitortuak aipatzearen–, baina ahaztu gabe hainbeste gurasoen igande goizetako sermoi desesperatuak, seme-ala-

ba gaztetxoak aurreko gauetik oraindik agertu ez direla-eta. b) motako adibideak izan daitezke hainbat talde eta mugimendu sozialen aldarrikapenak eta programak: ekologistak, feministak, independentistak, edo baita ere –ernamuinak artean– gure institutu eta unibertsitateetako “kontzientzia politikodun” ikasleen helburuak, eta are PPrentz mintzamolde politikoa, beren hitzetan esanda, bere diskurtsoa etorkizuna duen diskurtso progresista baita. (Ondoko digresioa zilegi bazait –gaiari lotzen baitzaio ene ustez–, hortxe datza boterean, hots, “egoera naturalean” dagoen alderdi kontserbadore baten –balore tradizionalak lasai asko aldarrikatzen baitituzte, are hauteskunderako baliabide gisa–, eta oposizioan dagoen alderdi kontserbadore baten arteko diferentzia, zeren eta horrelakoetan hautesleen borondatea eskuratzeko ezkerrean duten alderdia baino progresistago agertu behar baitira, balore tradizionalenganako sinpatia ezkatutuz.) Azkenik c) motakoa aurkituko genuke Estatu-buru edo Gobernuburuaren nazioari zuzendutako diskurtso grabeetan. Gauza bera gerta daiteke edozein motatako lanbide organizazio profesionalean ere, adibidez, herriko filatelia-elkarteko buru izendatu berriaren kasuan.

Soziologiak eta intelektualak berriaz aipatzeko utzi ditut. Horrela jokatu dut modako autore batzuen soziologiako eskuliburuak ikuskatu ondoren ikusi dudalako baloreei buruz berretako teorizazio zorrotzik gabe ohizko kontzeptu gisa arinki eta azaletik erabiltzen dutela. Aldi berean iritzi-inkesta gehiegi egiten ari dira europarren, espainolen, emakumeen, gazteriaren eta abarren baloreei buruz. Nahiago nuke soziologi-zabor mota hori “soziologiaren” multzoan sartu beharrik ez izatea, hala ere esan behar dut badirudiela kontzeptu batak zenbat eta espazio “enpiriko” (sasi-enpiriko, noski) gehiago betetzen duen soziologian, orduan eta pataalagoa dela haren garapen teorikoa, eta hori argi eta garbi ikusten da baloreen gaineko azterketetan. Iritzi-inkestetan baloreen gainean hain lotsagabeki galdetzen da, ezen hor erakusten den kopetagatik ez balitz –eta horretarako jartzen den dirutzagatik– ez legokeela modurik iruzurra estaltzeko. Horrela, adibide bakar bat jartzearen, ustezko “baloreen” zerrenda berean agertzen dira, familia, lana, independentzia, fideltasuna, erlijioa, ... Norbaitek esan dezake ziurtasun osoz zer zentzu duen Otik 10era bitarterainoko puntuazioa ematea kontzeptu bakoitzari? Zilegi al da zaku berean sartzea instituzio bat (familia), aktibitate bat (lana), proiektu politiko bat (independentzia), konpromezu pertsonal eta libre bat (fideltasuna, senar-emazteen artekoa izatekotan, hori argi ez dagoen arren), edo ia beti inozo edo lausoak diren siniskera pertsonalak (erlijioa)? Ezinbestekoa al da mundu guztiak gai horietaz bere diskurtsoa –zer esanik ez pentsakera edo iritziak– izatea? Zilegi al da dibortziatu baten eta adin txikiko baten familiari buruzko erantzunen batuketa egitea?

edo zer zentzu du lanari buruz eraikuntzako pioi baten eta lanbidez politikoa den baten puntuazioa batzeak? Nork daki zer neurtuko duten inkesta horiek! Izan ere, interpretazio batzuek –interpretaziorik dagoenean, eta ez nuke inor gutxietsi nahi–, metroko geltokietako astrologoenak dirudite. Azterketa horiek gogorarazten dizkirate liburudenda ingles batean ikusi nituen liburuxka batzuk, IQ (adimen koefizientea neurtzeko balio zutenak), bata txakurrena eta bestea katuena. (Zorionez, jadanik behin-betikoz konpon daiteke katu-prodigioen arazo larria, orain arte hain diagnosi korapilotsukoa izan dena).

Eta intelektualen kasuari, epaitegietako auzi izateko ez zaio sobera falta. Baditut artikulu batzuk, etikako katedradunek baloreen gainean idatzitakoak, ez dutela bestetarako balio toki batzuetan dagoen adimen nahasmendua neurtzeko ez bada. Askotan gertatzen denez, pentsatu behar da zein puntutaraino –agian oharkabea– intelektual batzuen diskurtsoak ez ote duen erlazio gehiago boterearen ikuspegiarekin, jendea desorientatu nahian edo horren beharrean, inguratzen gaituen iluntasun hau nolaerebait argitzeko gogoarekin baino.

3.1**BALOREEN GAINEKO KASUAK**

Hizkera arruntean, oraingo honetan adituen lengoaiatik ez dago urrun, "balore" nozioa nola erabiltzen den bost kasutan laburbilduko dut.

1) Pentsatzen da baloreak berez agertzen direla gizabanakoaren kontzientzian. Hortaz, zuengana zuzendu eta galdetzen ahal dizuet zein balore hobesten duzuen. Beraz, gizabanako bakoitzak bere baloreak ezagutu beharko lituzke eta gainera gai izan beharko litzateke haiak estimatzen dituen neurrian puntuatzeko, bai eta, soziologo-inkisidoreak hala eskatuta, askotik gutxira edo gutxitik askora ordenatzeko ere. Horrela –Europar zehar makina bat aldiz egin izan da– konparaketa bat egin daiteke nazio bakoitzeko balore "nazionalen" artean, edo elkarte autonomo bakoitzari, adin multzoari, edo komeni denari buruzkoa. Argi dago oso argi ez dagoela norberaren baloreak ote diren hobesten direnak, erabiltzen direnak, batek ahal izango balu eduki nahi lituzkeenak, gizarteak behartuta nahitaez bete beharrekoak...

2) Bestalde, uste denez, baloreak ekintza baino aurreagokoak dira. Hau da, nolabaiteko estimulo-erantzun erlazio batean, zein balore izan halakoxeak izango dira erabaki praktikoa. Beraz, hedatua bezain ustela da ekin baino lehen jendeak "pentsatu" egiten dugun ustea. Eta ekintza guztiak alde aurretik dagoen iritzi moralaren ondorio direla ere aurreko iritziaren parekoa da.

3) Gainera uste da balore batek batez ere "desinteresatua" behar duela izan. Beraz, balore batek sakrifizioen bat, ukapen bat, ahalegin poxi bat bederen –agian komunitatearen onetan eta beti ere batbederaren interesaren ginetik orokorrari lehentasuna emanaz–, eskatzen duen neurrian bakarrik erabil daitekeela kontzeptu hori. Horrek, gero ikusiko dugunez, halako tortura mentala sortzen du, gustoko eta desiragarri iruditzen zaiguna ezkutatu beharrean aurkitzen garelako, eta alderantziz, baloretzat hartu beharrean maiz aski ameskeria eta kontzientzi txarra baizik ez direnak.

4) Uste da gizabanako baten baloreek –batzutan hori gizarte oso batez esaten da– beren artean multzo koherente eta trinkoa osatzen dutela, hiru zentzutan: a) koherenteak, euren artean, multzo osoan, kontraesanerako tokirik gabe, b) koherenteak, gizabanakoak gizartearen okupatzen duen edozein mailatan, eta c) koherenteak, baloreak norberak beretzat eta bes-

teentzat hartzerakoan. Kasu hauek ezabatu egiten dituzte ohizko gertakizunak, esaterako gi-zabanakoen jokabideen nahasmendua edo anbiguitatea, pertsona berak kontraesaneko interesak izatea, hainbat eremu instituzionaletan arauak aldatzea, eta beraz, erabat ezberdinak diren “baloreak”, eta jokabide berari buruz izaten diren mota askotako iritziak, urrunagotik edo hurbilagotik ikustearekin lotzen direnak, adibide batzuk jartzearren. Hain bitxia litzateke baten batek esango balu baduela fedea adiskideen fideltasunaren balorean, –azken muturreraino beti segitzerik ez badago ere–; eta bere esparru profesionalean, ordea, fidelitatea ez dela balore bat, konpetentziarekiko lehian kalte egin diezaiokelako; eta bere bikoteari eskatzen dion fideltasuna bere buruarekin gordetzeko gai ez dela? Horrela izanik gai izango lirateke “balore-eskala” batean fidelitateari 8 edo 5 edo 3 bat jarri behar zaio-lak jakiteko?

5) Azkenik, pentsatzen da aipatzen diren baloreen eta horiek sortarazten dituzten ekintzen artean koherentzia dagoela eta egongo dela. Horretarako aurreko baldintza guztiak bete behar dira: subjektoak balorea balore bezala aitortzea, ekintzaren aurrekoa izatea, nolabaiteko dohaintasun gradua edukitzea, eta sistema orokor batean koherentea izatea, erabakia hartzerakoan zalantzarik sor ez dadin. Kasu honetan ideia bat dago, balorea beti ekintzarekin lotzen duena. Ba ote da inolako ondoriorik gabeko balorerik? Halakoak “baloreak” izango ziren? Esaten badut “askatasuna” dela nire balorerik preziatuena, hortik, adibidez, asma daiteke zein izango den nire jarrera politikoa? Behar bada, Mario Vargas Llosaren fundamentaslismo liberalean ene partaidetzaren seinale ote daiteke, edo Kataluniako tradizio libertarioko familia bateko partaidetzarena?

3.2

BALOREEN GAINEKO KASUEN KRITIKA BAT

Ikusi dugu zein ziren kasurik ohizkoenak baloreen gaineko diskurtsoetan. Ba, zera: ezagupen arruntean erabiltzen den bezala, kasu horietako bat bera ere ez dela egiazkoa iruditzen zait. Ikus dezagun.

- Soziologiaren ikuspegitik errelitatearen eraikuntza sozialari dagokio “suposatzen den mundu bat” sortu ahal izatea (taken-for-granted). Mundu hori, ezin konta ahal ebidentzia kolektiboz osatzen dena, martxan badabil lortu den automatismo graduari zor zaio, beste modu batera esateko, “kontzientzia ezagatik” funtzionatzen du. Ordena soziala ez du kul-

turarearen arlo esplizituak sortzen, inplizitua baizik: umorearen zentzua, hitz jokoa, aieruak, gorputzaren mintzaira,... mundu "naturalizatua" eta itxuraz bederen eztabaida ezina osatzen duen guztia. Mundu praktikoa batez ere, erabilpen-instrukzioen mundua, errezeta motako ezagupeneko. Praktikoak izateak ez du eduki ideologikoa galarazten, noski. Are gehiago, esan daiteke mundu praktikoa honetako ideologia dela benetan funtzionatzen duen bakarra, eta ideologia "ideologikoa" aldiz –barka gehiegikeria hau– nahasmendua sortzeko bidea litzateke, eta hein handi batean, ekintza soziala erabat geldiaraztekoa. Horrela, bada, ene ikuspegitik ez dut uste, oro har, baloreen gainean "galde egin" daitekeenik, batez ere horri dagokion diskurtsoaren jabe ez izanez gero. Funtsean, hori hain da oinarritzakoa, ezen edozein publizistak bai baitaki ez duela inolako eraginik transmititu nahi dituen baloreak argi utzi eta mezua zuzenean helburura bideratzeak. Aitzitik, subjektua zenbat eta gutxiago ohartu hainbat eta eragin gehiago izango du aginduak.

Gehienez ere, galde genezake boteredunen botere-diskurtsoaz. Botereaz, boterea izateko borondateaz, edo oroitzapen-minaz hitz egitean bere adierazpenak balore hitzaren bidez egiten dituen diskurtsoa litzateke, denek onartuko luketena, ongi hezia.

- Ez dirudi oso arrazoizkoa denik erabaki gehienek aurretik benetako gogoeta kritikoa egiten dela sinistea. Aitzitik, niri iruditzen zait ohizkoena dela, arazorik ez badago behintzat, gugatik espero den bezala ihardutea, eta hori izango da, gizartean neurritxo batean bederen integratuak bagaude, hain zuzen ere guk egin nahi genukeena bera. Espero zenaren eta egindakoaren artean kontraesanen bat dagoenean bakarrik heldu beharko zaio baloreen gainean gizarteak duen diskurtsoari, horrek kontraesan hura justifikatu edo arrazoitzeko aukera emango baitigu. Kasu batzuetan, pertsona batzuek beren diskurtsoa izango dute "gatazka" aditzera emateko eta beste kasu batzuetan berriz, esplikazio hori irakurketa batean bilatuko dute, hortan datza, hain zuzen ere, jakintsuren batek edo, garantizatutako "zentzu komuna" saltzen dutenen arrakasta, bai irratian eta baita telebistan ere, eta kasu larria izanez gero, era horretako gatazketarako baimendutako diskurtsoan espezialista baten laguntza eskatuko da zuzenean.

Laburtzeko, esan beharrean naiz, oro har, baloreen gaineko diskurtso esplizitua diskurtso abstraktua dela, nork bere burua justifikatu beharra duenaren eskura dagoena, urgentziazko kasuetarako, hau da, esperientziaren eta igurikapenaren arteko desegokitzapen sozialaren kasuetarako. Beraz, ondorenean bakarrik erabiltzekoa.

- Interesik ezari dagokionean, lehen ere esan dut baloreen gaineko diskurtso esplizitua botere-mintzaira den heinean disziplinari, ahaleginari, sakrifizioari, eskuzabaltasunari, atxiki

ohi zaiela. Baina horrek ondorio makurra du, batzuetan "garbi" hitz egitea galarazten digu, beste batzuetan errealismoz, gizarte jakin batean benetan funtzionatzen duten balore inplizituak zein diren zehazteko orduan. Jabetzen naiz ez dela atsegina izaten adibidez, asko praktikatzen den balore bat mesfidantza dela aitortzea, eta hezitzaile ororen zeregin behinena dela mesfidantza izaten modu ordenatu batez irakastea. Ikusi beharko litzateke astean zenbat aldiz gurasoek edo irakasleek kontseilatzen dieten seme-alabei ez "daitezela fida", "ez daitezela ergelak izan", "inork ez diezaietela adarra jo", azken buruan, "azkarrek eta erneak" izan daitezela (kualitate horiek berekin daramaten gardentasun falta eta leialtasun sozialik eza). Agian interesgari izango litzateke jakitea nola banatzen diren mota honetako kontseiluak eta batez ere, praktikan nola ikasten diren, jenero ezberdinen artean.

- Behar bada, kasuak desegiten hasiak garenez, argiago gerta daiteke honako baieztapen hau: gure gizartearen ezaugarri bat baldin bada azpimundu espezializatuetan bizitzea, eremu edo esparru instituzionaletan, logika eta joko-arauetan, nola pentsa dezakegu baloreak gizarte osorako orokorrak eta sistematikoak izan daitezkeela? Adibidez, gizaseme bat, aldi berean, banketxe bateko zuzendaritzan kalkulatzaile hotza eta bere parrokiari laguntza sozialerik sartuta dagoen kristau laiko eskuzabala, emaztearekin atsegina eta seme-alabekin autoritarioa, haien hezkuntzaz kezkatua, horrelako batek arlo guztietan balore berberak izango ote ditu? Zinez zera gertatzen da, oreka pertsonala eta soziala aurkituko duela esparru bakoitzeko erregela espezifikoek atxikiz jokatzen baldin badaki, ez dakion gerta banketxean eskuzabala izatea, kalkulatzaile hotza seme-alabekin, edo maitagarria parrokiako emakume katekistekin...

Halaber, ez da segurua bakoitzak pentsatzea mundu osoak berdín jokatu behar duela. Arau orokorra da, behinik behin, nor bere buruarekin errukarriagoa izatea, eta apika lagunekin ere bai, hurbileko auzoekin baino, eta zer esanik ere ez etsaiekin baino.

- Era berean, aurrekoaren ondorioz, zaila da "adierazitako baloreen" eta "jokabide frogatuen" artean lotura hertsia dagoela pentsatzea. Eta ez inoren borondate txarragatik, baizik eta denok dakigulako zein korapilotsua den bizitza, eta batek bere eskolako bileran telebista zein txarra den esaten badu ere, aurki bilatuko du aitzakiren bat bere burua zurrizteko, nola hasi Quijotea irakurtzen hain nekatuta egonik? Edo beste hura kexu da gizarte hau honen lehiakorra dela-eta, baina gero bere lantokian aukera guztiak aprobetxatzen ditu mailaz igotzeko: azken buruan "ez du norberak pagatuko orokorrak diren gaitz horien fakturak", eta gustoko ez badugu ere "aurrekoak erakusten du atzekoak nola dantzatu".

Eta hau dena diot inolako ironiarik eta asmo makurrik gabe, "arrazoi" horiek ulertu nahirik baizik.

Azken finean, badut ustea baloreen eta jokabideen arteko lotura hertsia hori egiaz ez dela gertatzen, eta egin daitekeen edozein ohar moralez aparte, nik diodan bakarra da nola-baiteko autonomia dagoela baloreen gaineko diskurtsoaren eta ekintzaren artean. Izan ere, diskurtsoa, kasu honetan baloreen gainekoa, ekintza ere bada, bere erregela eta guzti, eta nolaerebait pentsa zitekeen "baloreez hitz egiteak" ez ote duen bere logika instituzionala, nire ustez "politikaz hitz egiteak" duen bezala, hori ere zerbait autonomoa baita jokabide politikoetan bertan. Are gehiago, ondoko adibidea gaizki hartzen ez bada, modu bateko gizonen artea "emakumeez hitz egitea" bezala, zerikusi gutxi duena benetan emakumeekin izaten dituzten harremanekin.

4.

*Ikuspegi aldaketak,
ene iritziz erradikalegiak,
dakartzan ondorioak*

Alde batetik, orain arte esandakoak behartzen gaitu gogoetak hiru norabidetan egitera. Lehenbizikoa izango litzateke soziologia mota bat proposatzea, ez baloreena, baizik eta “baloreez hitz egiten duena”. Hori, baloreen gaineko diskurtsoaren eta horrek sortzen duen egoera sozialaren analisia izango litzateke. Bigarren bidea izango litzateke jakitea zein diren balore inplizitu horiek, honela definitzen direnak: Egoera espezifiko batzuen eta esparru instituzional konkretu batzuen aurrean izaten diren hobespen indibidual eta kolektiboen analisitik atera daitezkeen ereduak, zeinek agian izendatu beharko bailirateke oraindik imaginatu ez diren kontzeptuen bitartez. Kasu honetan balorea izango litzateke aukera bati buruz hartutako erabakian erabili den irizpidea, joko-araua. Baliteke Bourdieuren habitus kontzeptutik gertu egotea. Esate baterako, zer izen jarriko genioke etxean traste zahar, alferrikako, gogaikarriak metatzera bultzatzen duen “baloreari”? “Baliogarritasun ezaren” edo “hutsalaren” baloreari? eta hainbeste haur marka jakin batzuetako arropaz jaztera “bultzatzen duen” baloreari? “haur-etiketasuna” edo “markatze dotorea”?

Hirugarrenik, balore esplizituak aipatuko bagenitu, hau da, norberaren edo besteen jokabideen razionalizazioaren emaitza direnak, batik bat aurrikusitako igurikapen sozialei egokitzen ez zaizkienak, galdera zera litzateke: zilegi al zaigu oraindik ere “baloreen krisiaz mintzatzea”? Zein zentzutan?

Lehenbiziko aukera alde batera utziko dugu, uste baitut gure mintegiko interesetik urrundu-ko gintuzkeela. Eta zerbait esan dezagun beste bietaz.

4.1

**BALORE INPLIZITUAK,
KONTZIENTZIA HARTZEA
ETA KONTZIENTZIA KRITIKOA**

Nire iritziz “balore inplizituen” soziologia batek erantzun beharko lieke ondotik heldu diren galderari, denak gizarte aldaketarako edozein proiektutarako garrantzi handikoak.

- Zein puntutaraino da posible eta desiragarri erabaki-hartze “automatikoak” azaltzen ahal dituzten “balore implizituak” garden bilakatzea?, zein litzateke kontzientzia-hartze horren prezioa?, eta zeintzuk lirateke eskain genitzakeen bestelako “automatismoak”? Kontua litzateke ez bakarrik kontzientzia kritikoaren defentsa tolesgabea planteatzea, baita kontzientzia-hartze horretan aurrikusi ez diren ondorioak ere, eta orobat, sozialki “baliagarri” diren alternatibak, horri lagundu beharko lioketen tresnak baitira. Maizegi maila intelektual eta profesioaletan gizarte aldaketarako estrategiak diseinatzen dira proposatzaileen arabera eta eredura. Eta huts egiten badute, jakinekoa da, errua “jendearena” izango da, ez duelako pentsatzen, etab... Uste dut edozein gogoetak kontuan izan behar lituzkeela “gure berri onak” jasoko dituztenen baldintza sozialak.
- Zein motatako egoera soziala aipatzen genuen balore desinteresatuez mintzatu ginenean? Edo, gauza bera, nola azter daitezke eskuzabaltasuna, altruismoa, elkartasuna bezalako jokabideak ikuspegi soziologikotik? Bakarkako interesa-taldearen interesa erlazioa nola gartatu beharko litzateke “balore implizitu” horien analisisian? Edo, agian, nola ikasten da gertuko interes indibiduala helburu orokor, kolektibo edo epe luzeagokoen mesedetan atzeratzen?
- Nola iritsi daiteke –iritsi badaiteke– zentzu pertsonal orokor bat artikulatzera gizarte honetan, non gizabanakoei elkartasun partzialak eskatzen baitzaizkie? Zein da artikulazio orokor batek duen zailtasuna (koherentzia ideologikorik ezaren nolabaiteko “inposaketa sozialarena”)? Erreferentzia ideologikoko sistema bat galtzen denean tolerantziara, pluralismora eta erlatibizaziorako bidea ematen du beti, ala dogmatismo eta alderdikeriaren iturri izaten da?
- Nola artikulatzen dira diskurtsoa eta ekintza? Ekintzaren “narratiba” bat nola eraiki, iraganaren “oroimena”, orainaren zentzua eta etorkizuneko proiektua bat egiten dituenak? Ekintzaren gainean “hitz egiteko” zailtasuna ez al du adierazten hiru elementu horien arteko etendura? Zailtasun horrek ez al du adierazten bazterkeria objektiboa bat gizarte demokratiko bateko partaidetzan?

4.2

BALORE “ESPLIZITUAK” ETA BALORE KRISIA

Orokorrean “baloreak” deitzen direnez, hots, larrialdietarako prest egoten diren “errezeta-diskurtsoez” hitz egin nahi badugu, zeinetan ekintzari buruzko igurikapenak eta emaitzak ez diren aurrikusitakora egokitzen, orduan galderak beste batzuk dira:

- “Baloreen krisia”, besterik gabe ez ote zuen aipatuko, jokabide indibidual eta kolektiboen eta zenbait kolektibok dituen eredu ideologikoen artean izan daitezkeen desegokitzape-nei erantzuteko adostutako “errezetako diskurtsorik eza”?
- Diskurtso zilegitzailearen krisi hau, ez ote da modernitatearen diskurtso ideologikoak sor-tu krisiaren ondorio? izan ere, ezin baitu bere aurrikusmenetara egokitzen ez den gizarte baten azalpena egin. Beste hitzetan esateko, modernitate goxo baten “propaganda” (seku-larizazioa, gizabanakoaren autonomia, tolerantzia, unibertsalismoa, aniztasuna, aurrera-zaletasuna,...), ez al du eguneroko bizitzak gezurtatzen? (siniskeria, agintekeria, intoleran-zia, txokokeria, intrantsigentzia, pobrezia mota berriak eta gero eta larriagoak,...)
- Ez ote da egia “katekizatzeko” ohizko baliabide zorrotzago eta eraginkorrago batzuek ordezkatu dituztela, eta aldi berean, kontzientzia maila apalagoan dihardutela? Ez al da egia masa-kultura berriaren bidez, eta ikusentzunezko komunikabideen bitartez, bereziki pu-blizitatearen bidez, sortzen eta barreiatzen direla jokabide eredu berriak, gure gizartean na-gusitu diren balore sozialak?

5.

Ondorioa

Azkeneko lerroak galdera markarekin idatziz gero ez litzateke zilegi izan behar lan bat “on-dorioekin” bukatzea. Gehienez ere, nahiko nuke argi uztea baloreen gaineko eztabaida bat, nire paperetan azaltzen den bezala, funtsean boterearen erabilpenari buruzko ezta-baida dela. Eta eztabaida horren helburuak hauek izan beharko lukete: a) erabilpen horiek argiago eta gardenago izan daitezen saiatzea, eta b) gizartearen demokratizazioan sa-kontzeko asmoz, gizabanako gehiagok “hitza har dezaten” ahalegintzea.

JOSÉ MIGUEL APAOLAZA BERAZA

**Antropologia Sozialeko Irakasle
Titularra. E.H.U.ko Filosofia eta
Hezkuntza Zientziak
Fakultateko Baloreen Filosofia
eta Antropologia Sozialeko
Departamentua**

*Txostenari
ihardespena*

Gaurko honetan baloreen azterketan jarraitu beharreko metodologiari eta jenero eraikuntzekin duen erlazioari buruzko txostenean azalduakoa izango da nire aztergaia.

Txostenaren tituluak, "Baloreak epistemologia kritikoaren aldetik", igurikapen jakin batzuk markatzen dizkigu aztergaiaren izaeraz, baina gero txostenean ez dira ukitzen.

Behar-beharrezkoa da eta praktikan oso baliagarria hauen arteko bereizketa egitea: alde batetik epistemologia, ezagupenaren zientzia dena, ezagupen zientifikoa zein baldintzatan sortzen den estudiatzen duena, bai eta horren izaera eta nolakotasuna ere, nahitaezko urratsa bestalde, errealitate sozialaren sorkuntzan ezagupenak duen zeregina ezagutzeko, kasu honetan "baloreen" aldeko dimentsioan; eta bestetik praktika zientifikoa, aztergaitzat "baloreak" eta horiek jenero sistemen eraikuntzan duten eginkizuna hartzen dituenak, kontuan izanik ere baloreen esparrua, hein handi batean, ezagupen partikular eta berezi batek osatzen duela.

Txosten egileak soziologiatik aipatu duena ere azpimarragarria da eta antropologiaren ikuspuntutik ere onar daiteke. Bertan dio errealitate sozialak ez direla horren errealak, guk gizartea aztertzeko dugun modu bereziaren ondorio baizik. Errealitate sozialak produktu sozio-historikoak dira, izaera gertagarria eta arbitrarioa dute eta horiek eraikitzeke tresna berezi hauek erabiltzen dira: kontzeptuak, teoriak, metodologiak, eta datu bilketarako teknika ezberdinak.

Errealitate finkorik eta aldaezinik ez dago, ez gugandik kanpoko errealitate gisa kontsideratuta ez eta gure zeregin teorikoaren ondorio gisa ere.

Arlo sozialaren "naturalizazioa" baliabide ideologiko bat da, balore edo jokabide ezberdinak –zeinetan oinarritzen baita gizarte ordena–, "naturalak" direla-eta egokiago edo baliokoagoak bailiran aurkezten dituenak. Baliabide horren arabera, boteredunek martxan jarritako prozesu bat botereari berari eusteko estrategiaren parte bat bezala agertzen da.

Arlo sozialaren "desnaturalizazioa" berriz, ez da soziologiaren eginbeharra bakarrik, guztiona baino, zientifikoak izan edo ez, akademiako kide izan edo ez, guztiona, besteak konbenitzeko ahalmen handia izategatik inposatutako sineskeraren delako. Naturalizatzen diren ezberdintasuna, oroi zaitezte garai batean horren arrazoia Jainkoarengan jartzen zutela, ezberdintasunean tokirik hoberena okupatzen zutenek, noski, gainerakook onar genezan.

Askotan ahazten den fenomeno edo aldagaia aipatzen da txostenean, hots, aldaketa, baloreak –errealitate aldakorak baino aldakorragoak– ulertzeko beharrezkoa dena. Beharrezkoa deritzot aldaketa dimentsio horretan sakontzeari, jarrera esentzialistei itzuri egiteko

oinarrizko kontzeptuak definitzerakoan, eta baloreak nahiz jeneroa aztertzen hasteko behar izango ditugun ereduak diseinatzerakoan.

Lan zientifikoak prestatzean, idaztean, bereizi behar ditugu teoria eta zientzi metodo bat aplikatzearen emaitzak eta balioespen edo iritzi etikoak. Hauek ez dute zientzi diskurtso batean azaldu behar. Bere eskubideez baliatu eta halako praxis sozial bat garatzen duen hiritar gisa, batek eman ditzake bere iritzi etikoak, kontu handiz beti ere, horixe delako modurik errazenean eta horretaz ohartu ere gabe aurreiritzi etnozentrismo guztiak sartzeko bideetako bat.

Ez dut ulertzen zergatik bereizi behar diren soziologia kritikoa eta txostenean ingeniari-tza soziala deitzen den hori; gainera bi maila ezberdinetan kokatuko nituzke, batek lehentasuna ematen dio gizartearen ezagupen teorikoari eta besteak errealitate sozial berezien gaineko eskuhartze-programak tajutzeari. Jakintza soziala-kontrol soziala bikotea ez da premiazko erlazio bat, jakintza ez du botereak bakarrik zertan erabili behar, eta orain arte horrela izan bada autokritika bat egin beharko dugu gure partehartze-taktiken gainean, emakumeen kontrako bereizkeria ezabatzeko politiketan, eta gure kasu partikularrean, jenero-sistemak eraikitzerakoan "naturalak" bailiran agertzen zaizkigun baloreen aurkako politiketan. "Gauzak diren bezala izateko" eragina duten faktoreak ezagutzea beharrezkoa da praxis sozialaren protagonistek gizartea nahi duten norabidera aldatzeko politikak suspertzeko.

Ados nago "Hainbeste errealitate ezberdin eta askotan gatazkatsu, eraiki, mantendu eta transmititzea bezalako eguneroko balentria deskubritzea" aztertu behar dela. Gure praxis soziala eta gure interesen kontrakoak dituztenen praxia osatzen duten eguneroko estrategiak ezagutu behar ditugu, hor baitaude aldaketaren aukerak.

Ez dezagun ahantzi errealitate sozialek interes berezia izaten dutela era disimulatuan mantentzeko, bai eta gero aipatzen dituzun botere-erlazioek, zuk baloreen osagarritzat jotzen dituzun horiek ere. Duten izaera politikoak berak ezkututzen ditu; nonnahi ageri da ekintza politikoarekiko ukoa, zein interes haizunak, aitortezinak, defenditzeari lotzen baitzaio. Oso gutxi onartzen dute beren praxi soziala politika dela.

1.

Baloreez hitz egingo dugu

Gure azterketaren gai dira baloreak eta horien eragina jenero-sistemak eraikitzean, horietako aldagaiak direlako. Definizioen eta esparru teorikoen beharra izanez gero, darabilzagun lanabesak ezagutu behar ditugu. Hemen bai, argi dakusat soziologia kritikoaren eginkizuna, boterearekin bat egiten ez duen neurrian, edo Gramscik aipatzen duen “intelligentsia orgánica” delakoak justifikatzen duen heinean.

Baloreak beti daude aurrean, horietaz krisi garaian gehiago hitz egiten bada ere. Lehen jokabide soziala tajutzen zuten, orain, eraikin ideologiko bat ere badira (zentzu marxistan), errealitatea eskutatzen duena.

Botere-diskurtso bat da beti, eta izaera ideologikoa du.

Hizkuntza arruntean azaltzen den “baloreen” ideia –esanahi anitzeko hitza, diskurtso politikoan eta botere-diskurtsoan erabiltzen diren beste hitz askok bezala– eta kontzeptu zientifikoa ez datoz bat, are gehiago, azken hauek euren artean ere diferentiek dira, teoria ezberdinen arabera.

2.

Kasu arruntenei buruzko kritika

Kasu hauei buruzko kritika garrantzitsua da ezagupenaren prestakuntzan agertzen direnean, “iritzi publikoa” tajutzerakoan agintari zientifiko eta akademikoek duten eraginagatik.

“Baloreen eskalaz” ez da hitz egiten eta hitz egin beharko litzateke, bere dimentsio hierarkikoan identitateak eta jokabide sozialak eratzean daukan eginbeharragatik.

Ez nituzke “diskurtsoa” eta “ekintza” bereiziko eta hori egin ordez azkena aurrekoan integratuko nuke. Diskurtsoak eta ekintzak komunikatu egiten dute, zerbait esaten dute, kasu honetan baloreei eta jeneroari buruz, eta tratamendu bera eman behar zaie.

SALVADOR CARDÚS I ROS

**Soziologiako Irakasle Titularra.
Bartzelonako Unibertsitate
Autonomoko Soziologi
Departamentua**

Azken

berrikuspena

Gizarte zientzien erabilpenari buruz

Gizarte zientzietan sortzen den diskurtsoa zuzenean erabiltzeko zailtasun handiena da horren dimentsio kritikoak alde batetik eta gauzen egiazkotasunera hurbiltzeko dugun nahiak bestetik sortzen duten tentsioa. Beste modu batez esateko, "errealitate" sozialaren esperientzia tolesgabeak duen funtzio desnaturaltzaileak eta zientzia horiek arazo sozialen konponbidean laguntza emango duten itxaropenak sortzen duten tentsioa. Jenero eta baloreei buruzko ihardunaldietan aurkeztutako txostenen ondotik sortu eztabaidetan, behin eta berriz gatazka hori argi agertu zela iruditzen zait. Gainera ez da gatazka teoriko bat soilik, pentsamendu-eskolen artekoa, edo ikerketako metodologia ezberdinen artekoa, baizik eta, lanbide praktiken eta zientziaren erabilpen sozialen artekoa, batik bat.

Beraz, era horretako eztabaiden ondoko laketasunaren eta laketasun ezaren arrazoia ez zaio bakarrik aurkeztutako paperen kalitateari zor, baizik eta paper horien eta antolatzaileen nahiz partaideen helburuen artean sortzen diren loturei eta desloturei ere. Horrela, desnaturalizazio ariketa gisa ulertzen den gizarte zientzia baten ikuspegitik, proposatutako ikuspegi berria onartzeko nolabaiteko zailtasuna agertzea arrakasta neurtzeko ia beharrezko baldintza da –aski ez bada ere–. Desnaturaltzeak esan nahi du zalantzan jartzea ez bakarrik "dakiguna", baita gure ustez jakin daitekeena edo jakin behar dena ere, eta are nola dakigun ere. Eta hori, deserosoa da, jakina.

Baina zailtasunak ez dira bakarrik agertzen batek gizarte zientzien dimentsio kritikoa aipatzen duenean, ezenez gizarte zientziak arazo konkretuei erantzuna ematea erabakitzen duenean ere, orduan laketasunik-ez ugari agertzen dira, aurrekoak bezain larriak. Alde batetik, zientzilarien arteko, eta horrekin soluzio posible eta desiragarrien gaineko desadostasuna; bestetik, sarri gertatzen den soluzioen izaera teorikoa, zeinengatik urruntzen baitira horiek aplikatu behar dituztenen eguneroko zereginetatik; eta hirugarrenik, ustez eta zientifikoa dena ebaluatzeko zailtasunak, modei bai eta zientziaren zorrotzasunarekin zerikusirik ez duten bideetan lortutako prestigioei ere gero eta lotuago dagoelako.

Baloreen krisia azken esplikatario gisan

Baloreen analisiaren kasuan, materiagabekoa denez gero, agian arlo sozialean zentzua sakonkiago adierazi behar zuena aipatzen duelako, arestian adierazitako zailtasunak argi baino argiago agertzen dira. Zaila baldin bada, subertsiboa delako, nagusi diren baloreak sostengatu eta transmititzen dituen diskurtsoa desnaturalizatzea, zer esan balore kontzeptu beraren gaineko eta boterearen erabilpen eta borondatearen gaineko diskurtsoari buruzko kritikaz? Neurri bateraino etsaiaren botere-asmoak agertarazteak, zaila izanik ere, dibertigarri samarra ere bada. Baina gure diskurtsoak antolatzen dituen botere-sareak agirian jartzeari beste zahagi bateko ardoa da.

Baloreen krisiaren gaineko diskurtsoak gaur egun herrian duen arrakasta bi eginkizun publiko ditu. Alde batetik, gauzak zergatik "doazen gaizki" adieraztea, eta bestetik, inplizituki soluzioa proposatzea, balore zuzenak transmititzeko bide eraginkorra aurkitzea, alegia. Agi denez, arazoa baldin bada baloreen krisia, horren soluzioa baloreak aldatzea –edo berreskuratzea– izango da nonbait. Eta, gauzak horrela, jakintzat jotzen da baloreak jaiotzen direla, gaisotu edo berrindartu egiten direla heziketa eta propagandaren bidez, edozein dela ere balore horiek sortu, gaisotu edo berrindartzen direneko gizarte mota.

Norbanakoen eta taldeen erabaki-hartzean "balore eskala batek" izaera eraginkorra duela uste baldin bada, eskuhartzea, beraz, aipatu balore eskalan gertatu beharko da. Eta uste-kizun hori, inolako dudarik gabe, arrotz estimatzen dute gizartean zilegitzat jotzen diren transmisio ideologikoaren mota batean edo bestean aritzen diren guztiek.

Alderantziz, baloreen eraginkortasunaren gaineko eztabaida, eta gizarte jokoaren baldintza objektiboen adierazpen gisa, bai eta –ene txostenean proposatzen nuen bezala– okupatzen diren tokiak legitimatu behar diren ondorio gisa ere, baloreak aurkezteak suposatzen duen analisiaren alderantziketa kontuan hartuz aldaketa soziala izateko aukera ez da diskurtsoaren mailan kokatzen, egitura sozialarenean baizik. Eta maila horretan transmisio ideologikoaren profesionalak ez dute zer eginik.

Baloreen gainean pentsatzeko -eta ikertzeko, eta aldatzeko- beste modu bat

lhardunaldietan aurkeztutako txostenean eskema gisa lerro batzuk aurkeztera mugatu nintzen, baloreen gainean beste modu batera pentsarazteko. Horixe besterik ez. Eginkizun hari zerion galdera bikoitza zen: lehena, nola aztertu beharko lirateke baloreak?, eta bigarrena, politikoki helburu interesgarria izaten segitu beharko luke gizarte talde jakin baten baloreak baldintzatzeak?

Lehenbiziko gaiari dagokionez, nire iritziz funtsezko aldaketa izan beharko litzateke hemendik aurrera baloreak ez kontsideratzea zerbait material bailiran, jokabide indibidualak modu koherente baten baldintzatzeko ahalmenarekin, eta horren ordez horien adierazpen soziala diskurtso legitimatzaile gisa aztertzen hastea, hau da, sozialki gatazkatsuak izan daitezkeen erabakiak hartzean razionaltasun tresnak bezala hartzea. Bereziki, uste dut ikerketak erabaki-hartzeko kasu partikularrak aztertzeraz bideratu beharko liratekeela –hortxe ari omen dira baloreak– eta prozesu horiek metodologia egoki batekin zehatz-mehatz begiratzera. Adibide bat jartzeko, interesgarria litzateke gazte batzuen kasua aztertzea, bikote bizitari ekiteko unean berean, etxeko lanak banatzen hasten direnean. Zer faktorek baldintzatu dituzte hartu beharreko erabakiak? Zein motatako razionaltasuna erabiliko dituzte banaketa hura justifikatzeko? Eta etorkizunean egiturazko edo ideologiazko zein beste faktorek alda dezakete banaketa hori?

Kontua izango litzateke halako erreduzionismo idealista, hots, gizarte ereduaren aldaketa nolabaiteko “elkarriketa” pertsonaletan oinarritzen zuen erreduzionismoa, era kontzientean ihardungo zuketean baloreen “txipa” aldatzeak lekarkeena, ekiditea. Zergatik, bada, “ideiak argi eduki arren” justifikatzen dira gero iharduketa eredu ezberdinak? Nire iritziz, eta inolako zalantzarik gabe, Pierre Bourdieuk proposatutako azterketa ereduak, besteak beste kontzeptu hauek oinarri dituenak: eremua, habitusa, kultur kapitala eta indarkeria sinbolikoa, era honetako azterketetan aukerarik onena da. (Ikuspegi honetara lehenbiziko hurbiltze baterako, ikus P. Bourdieu eta J.L. Wacquant, *An invitation to reflexive sociology*, Chicago 1992, horren frantsesezko itzulpena, *Réponses*, Paris 1992, edo bestela katalanerazko itzulpena, *Per a una sociologia reflexiva*, Bartzelona, Herder 1994).

Beraz, alde batera utziko nituzke balore teorikoen balizko sistema eta eskalak, eta aztertzekotan aztertuko nuke horiek nola esplizitatzen diren egiturazko testuinguruetan... –baldin eta esplizitazera eta kontziente egitera iristen badira–, eta nolnahi ere, nola espresatzen diren.

Nire iduriko auzi horren bigarren parteari, baloreen esparruan –diskurtso zilegiarazleetan– eskuhartzeak duen baliagarritasun politikoari, erantzun aski zuzena eman zaio. Alde bateatik, ez dago zalantzan jartzerik diskurtso ideologikoak duen interes politikoa, diskurtsoak ere errealitate soziala eraikitzen duen neurrian. Baina, eskuarki, diskurtsoa produzitzea, hura jasotzeko baldintzen analisisa egin gabe, denbora alferrik galtzea da, eta are gehiago, gerta daiteke espero diren emaitzaren kontrakoak sortaraztea ere.

Duela gutxi izandako gertaera batek hobeto argi dezake nik diodana. Udal kataluniar batek martxan jarri du, berriki, kanpaina bat, gizonei eskatzeko etxeko lanetan esku hartzearen, honako goiburupean: “Gizona bazara ausartu zaitez”. Alde batera utziz esaldiak duen grazia eta zirikatze borondatea, eta ikuspuntu ideologikotik alde batera utzirik ere argudio matxista bat erabili dela matxismoaren beraren ohizko adierazpen baten kontra, zalantza emaitza praktikoan datza. Kanpainarekin batera gizonentzako “biziraupen” ikastaro bat eman zen –sukaldaritzan, jostuntza eta lisaketaren hastapenak, etab–, eta horrek Estatu-ko komunikabide guztien arreta izan zuen, baina oso gizon gutxirena eta, interesgarria litzateke jakitea haiek ez ote ziren ere agian lehendik etxeko lanetan dituzten mugez jabetuta dauden gizonak.

Horrela, bada, gizon batzuegan sortu ote du kontzientzia txarrik, beren eguneroko ohiturak aldatzeko adina?, eta zein motatakoak izango ote dira? Argudiorik aski eman ote du emakumeren batek, erronka horri helduz, etxeko lanen banaketan izaten den desberdintasuna neurri batean bederen aldatu ahal izan dezan? Eta azkenik, hori, soluzionatu beharko litzatekeen arazoaren muinari dagokion helburu partikularren bat ote da? Ez naiz ausartzen galdera hauei modu sinplean erantzuten, baina honelako galderak egin beharrekoak dira, baldin eta administrazioak era horretako kanpainaren bitartez euren iharduna justifikatzearekin, eta ondorio objektiboetatik landa, konformatu nahi ez badira. Amaitzeko, “gizona bazara ausartu zaitez” esaldi horrek proposatzen digun baloreen aldaketa eraginkorra ote da? Horixe da nire galdera.

TERESA CABRUJA I UBACH
Psikologia Sozialeko Irakaslea.
Gironako Unibertsitatea

*Jeneroa eta
baloreak:
horien lotura
identitatearen
teorietan eta
jenero
harremanak
ikuspegi
deseraikitzaile
batetik*

“Jeneroa eta baloreak” gai multzoari hatzemateko, psikologia sozialaren disziplinatik bada ere, nire hurbilketa oinarritzen da orientazio sozio-eraikitzaile batean, eta hortik abiatuz mundua ulertzeko ditugun terminoak tresna sozialak kontsideratzen dira eta ikerketaren gai bihurtzen dira mintzairan aipatzen ditugun entitateak, askotan naturalizat hartzen ditugunak. Alde horretatik, erronka jartzen zaio ohizko ezagupen objektiboari. Begibistakoa baldin bada ere baloreen¹ gaia, nolabait esateko irristakorra dela, eta aldatzen dela horreganako hurbilketa ezezik baita horren definizioa ere, hartutako ikuspegiaren arabera, nik hatzemango diodan bezala gaia bat etorriko litzateke hitzaren ikuspegi/ulermenarekin:

- Alde batetik, razionaltasun zientifikoa edo zientzia modernoa nola eratu den, berekiak dituen “neutraltasun” eta “objektibotasun” ezaugarriak eta guzti, hau da, “baloreetatik libre”, denok ezagutzen ditugun ondorioekin, besteak beste hauexek: ezagupen zientifikoa eta baloreak banatzea, hori dela-eta zientziari bere izaera transzendentala eta gizatasunaren esparrutik urruntasuna aitortzen zaiolarik. Azkenik, jeneroen arteko bereizketa dikotomikoa eginez, eta era berean erretorika eta zientzien artekoa ilustrazioko baloreak mamitzen duen proiektu gisa, ideologia konkretu batekin eta balore jakin batzuekin, maskulinoak hain justu (batzuek bai, bederen). Eraikuntza horien ondorioak ez dira emakumezkoak proiektu zientifikoetatik baztertzea soilik, hori baino gehiago, gizartean txertatzen dira eta gure subjektibitatea tajutzen dute, hau da, gizakia itxuratzen dute jenero bati eta besteari loturiko hizkuntza eta kategorian oinarrituta: esan nahi baita, “gizona” eta “emakumea” kategoriak sortzen dituztela.

- Beste alde batetik, aipatuko dut nola modernotasunaren baloreek edo, zehatzago esateko, ilustrazioaren proiektuok, osatzen duten subjektibotasuna, komeni den indibiduo mota sortu ahal izateko. Balore hitzaren bigarren esanahi horrentzat baloreak izango lirateke “gizarte edo ideologia konkretu bat osatzen duten siniskera nagusiak”. Kasu honetan, ilustrazio garaitik herdatutako balore liberalez mintzo naiz. Horretarako oinarrituko naiz psikologia sozialean “Nia-

¹ Psikologia sozialean baloreak eta jarrerak batera ibili dira, “neurtzeko” ezezik baita haien artean ranking bat egiteko ere. Alde batetik komenigarria izan badaiteke ere baloreen kontzeptua nola lantzen den aztertzea eta nolakoa den horren eraikuntza aipatu estudioetan (argibide gisa T. Ibáñez-en artikulua ikus daiteke (1989) lanarenganako jarrearen gainean: “La fallàcia de les actituds envers el treball”. *Mon labora*, 29. zk. 1989ko 1. seihilekoa), halaz guztiz ere lan honetan “balore” hitza zentzu zabalenean erabiliko dut, testuaren hasieran adierazi bezala, bide ematen dit eta zein motatako ezaugarriak diren “suspentzen” direnak azaltzeko, eta zein motatako adierazle diren helburu jakin batzuentzat, beraz, horrekin proiektu zientifikoaren ideologia (eta modernotasuna) sumatzen ahal da jenero harremani eta nortasunak eraikitzeari dagokienean.

ren” kontzeptualizazioan suertatu diren aldaketetan, batez ere Foucaultek burututako lanetik, feministen teoria kritikoetatik eta proposamen teoriko postmodernistek abiatuz.

Xede horretarako adibidetzat erabiliko ditut psikologia sozialetik hartuta, honako hauek: eraikuntza sozialean oinarritutako “Ni-ari” buruzko estudioen aldaketa; nola, gure “nortasunak” eraikitakotzat kontsideratzean, argi azaltzen den balore konkretu batzuei erantzuten dietela, ikuspegi sozio-psikologiko hertsia gaintzen duen alderdi batekin amaitzeko, hau da, gogoeta egitea harreman publiko/pribatuen eta indibidualismoaren gainean, proposamen “postmodernoen” eta kritika feministaren parte baten arteko gatazka-gunea baita. Hori baliozkoa iruditzen zait baloreen eta jeneroaren auziari dagokionean.

Hertsiki loturik dauden bi alderdi hauek erreferentziatzat hartuta, txosten honetan aztertuko dut baloreen eta jeneroaren auzia, ez bereizirik edo gainezarritako zerbait bezala, baizik eta jeneroaren eraikuntzarekin bat egiten duelako. Jeneroa bitan bereizteak, bata bestearen gainetik baloratzea dakar, bai eta gertatzen diren desberdintasunak legitimatzea ere.

Ikuspegi deseraikitzaile horrek bide ematen du ezagupen zientifikoa praktika ideologiko bat bezala birkokatzeko, eta zientzia berriz, eraikuntza sozio-historiko bat bezala. Beraz zientzia balore multzo baten garraiatzaile litzateke (eraiki, erreproduzitu eta legitimatzen duena). Izan ere, “jeneroa eta baloreak” gaiari buruzko bi hurbiltze mota bereizi ditudan arren, bereizketa horrek arrazoi bakarra du, alegia, azalpena errazteko bi segmento berezitan planteatzeko interesa, hain zuzen ere, dena agerpen bakar batean bildu daitekeelako, hots, nola modernotasunaren baloreek tajutzen dituzten norbanakoen subjektibotasunak edo, beste modu batera esateko, “gizona” eta “emakumea” kategoriak nola eraikitzen diren, ezin baitira bereizi ilustrazioaren razionaltasun zientifikoaren proiektua eraikitzea eta mendebaldeko gobernuen eta eredu demokratikoen sorrera. Alabaina, mendebaldeko norbanakoen kontzepzioak antzinateko iraganean izanik ere sorburua, modernotasun proiektuarekin duen loturak ematen dio bere dimentsiorik landuena, garatutako disziplina akademiko eta

² “Indibidualizatzeko” prozesua gizabanakoaren kontzeptu modernoarekin agertzen da eta, horrekin batera, gizartea kontrolatzeko erregimen ezberdinarekin. XVII, XVIII eta XIX. mendeetan zientzia modernoa sortu zeneko testuinguruan. Orditik hasita boterearen alde batek ihardungo zuen ezaugarri indibidualak neurtuz eta kalkulatu eta autonomia indibidualaren gaineko gero eta indar gehiagoko diskurtsoarekin bat eginez (Foucault, 1979 eta 1980). Hortik aurrera, Roseren lanak (1989 eta 1990), adibidez, erakusten digute nola psikologiak parte hartzen duen gizabanakoa bereizi eta disziplinatzen den hiztegia eta tresnak emanez. Bestalde, Ibañezen lanek (1990) argitzen dute nola funtzionatzen duten zientzia psikologikoei, demokraziek produzitzen eta behar dituzten “subjektu libreen”, hots, “hautatzeko” gai diren subjektibitatea produzitu eta gobernatzeko bide ematen duten tresnekin.

praktiko guztien sorreraren zentzuan, bai eta gizabanakoaren gaineko ezagupen produkzio osoa, edo "indibidualizatzeko" praktikak eta horrek XIX. mendeko Europa eta Iparramerikan eratzen den agintaritza politikoaren era berrietan izandako eragina. Beraz, bi alderdiok,

– gizabanako autonomia, librea, e.a., eraikitzeke premia eta hori identifikatu eta sailkatzeko prestatu den hiztegi osoa;

bai eta,

– zientzia "neutro" bat eraikitzea, azken buruan subjektibitate maskulinoari dagokiona, ari dira ilustrazioaren proiektuarena zen ezagupen zientifikoari lotzen zaizkion baloreak ehundu eta nortasun batzuk eta jenero bat besten gainetik defenditzen, dauden ezberdintasunak legitimatuz eta horiek politikaren, baloreen, ideologien, eta abarren gainetik kokatzen omen den razionaltasun zientifikoaren ideia gainean eraikiz.

1. *Zientziaren baloreen hastapenak: androzentrismoa eta etnozentrismoa, positibismoaren eraugarriak*

Zientzia positibista "neutro" dela esan ohi da, balorerik gabekoa, edo baloreen gainetikoa. Ildo horretan, ikuspegi postmodernoetatik zalantzan jarri dira ezagupen "zientifiko bat" produzitzeko behar omen den neutraltasuna eta objektibitatea, eta horrekin lotzen ziren kontzeptu guztiak, hala nola, subjektuaren eta objektuaren bereizkuntza, etab., zeinek mundua era razionalean kontrolatzeko eta ilustrazioaren proiektua garatzeko promesa egiten baitzuten. Horren orde, zientzia gizakiak eta gizarteak eraikitako produktua dela kontsideratzen da. "Postmodernitatearen" ikuspegitik³ ez dago zientziaren neutraltasunari eusterik, eta ez bakarrik bere "akatsengatik" kritika feministaren⁴ parte batek eta beste motatako gutxiengo etnikoetatik eginiko kritikek erakutsi duten bezala. Lehenbiziko momentuan, giza-diaren erdia produkzioetik baztertzean (zentzu guztietan): modernitatearen jakintza zientifikoaren subjektua eraikiz subjektu unibertsal, neutro eta ez araubidez bazik eta bere gisa ziharduena bailitzan. Foucaultek "egiak" produzitzearekin agirian jarritako botere-ondorio-

³ Postmodernitatea, hitza egokia den ala ez alde batera utzita, eta orobat, zein neurritan datorren bat postestruturalismoarekin (batzuek bakarrik erabiltzen dute postestruturalismoa, beste batzuek deserakuntza, eta beste batzuek berriz bata zein bestea), batez ere uler daiteke ilustrazioko diskurtsoari eta horren legitimazio razionalari eginiko kritikan "produzitutako" eztabaidatik abiatuz, edo Mendebaldeko jakintza legitimatzen duten narratiba handiekiko kritika deitu izan dena (Lyotard 1986), zeinek azpimarratu baititu mintzairaren eraikuntza eta ideologiaren dimentsioak, errepresentaziozkoak baino gehiago prestakuntzazkoak. Ikuspegi honek balio izan du zientziaren ideia ezezik baita mendebaldeko pentsamendu modernoa tajutzen duten dikotomia franko ere deserakitzeke, errepresentazio kontzeptua, beraz, adimena ezagupenaren kokalekutat jotzen duen kontzeptua auzitan jartzetik abiatuta. Ez diet hemen helduko maila epistemologikoan postmodernitatearen eta zientziari eginiko kritika feministen arteko erlazioei, proposamen franko haiei zor bazaie ere, eta ez dut aipatuko orobat Michel Foucaulti zor zaiona, lan honen esparrua gaintzen dutelako.

⁴ Hardingek (1986) hiru motatako feminismoak bereizten ditu: 1) Feminismo enpirizista, "zientzia gaiztoa" identifikatzen du, sexista eta androzentrikoa alegia, baina metodo zientifikoan konfidantza dauka, beraz, "zuzenketa" batzuk sartzen ditu emaitza objektiboak lortzeko; 2) "Ikuspegi feministarena", honen iritziz emakumeen esperientzia soziala da abiapuntu bakarra zientziaren joera matxista agirian jartzeko eta emakumeek zientziaren ikuspegi onargarriagoa proposatzen digute; eta 3) Feminismo postmodernoa, oinarritzko lorpen zientifikoak zalantzan jarri eta arrazoia aldarrikapen unibertsalistetan agertzeaz eszeptizismo sakona erakusten du, emakumeen politikaren ezberdintasunak eratzitzeaz gainera.

ak, jakin/ahal izan sistema izango litzateke zientziaren "egitekoari" buruzko lehenbiziko-
teko auzia, Kuhn, Feyerabend, Latour, Knorr-Cetina, eta abarren lanekin batera. Hortik au-
rrera, ikerketa prozesuan "baloreek" duten eginkizuna salatzea, ikerlea-subjektua botere-ha-
rremanak psikologiaren esparruan birplanteatuz, positibismoari egin zaion eraso gogorra
izan da (hasieran barren-barrenetik), zientzia positibista salatzeraino, linguistika, historia
eta ideologia aldetik ilustrazioaren proiektuari lotuta dagoelako.

Beste alde batetik, zientziaren androzentrismoa aipatzen dut, A. Morenok (1986) sexismo-
aren eta androzentrismoaren artean egiten duen bereizketari jarraikiz, egile horrek seina-
latzen duen bezala bi aldetatik: bata, gizonaren ikuspegiari lehentasuna ematea (gizon ba-
tzuk eta, aurrerago, gizon eta emakume batzuk), eta bestea, ikuspegi zentralista batean
kokatzea, "etnozentrismo hitzarekin bezalaxe (etnia edo "arraza" baten ikuspegi zentral
gisa). Diskurtso horretatik baztertu dira emakumeak eta beste gizarte talde batzuk, etniak,
etab., eta gainera, bi modutara: subjektu eta objektu diren aldetik. Beraz, Morenok agirian
jartzen du "horrelako elaborazio logiko-zientifikoak partzialak direla" eta "ikuspegi partzial
horrek bere alderdikeria ezkutatzen duela aldarrikatzen duenean unibertsa eta orokorga-
rria dela" (25. orr.). Alde horretatik, bada, argi dakusak zientziaren ikuspegi horrek balore
konkretu batzuk daramatzala, "arau" gisa ihardun dutenak.

Foucaulten aportazioetan oinarritzen bagara (1976) ikusi ahal izango dugu nola funtzio-
natzen duten diskurtsoek, baztertzeko tresna diren elementu batzuk irmo bihurtuz, eta argi
eta garbi dago modernitatearen ideologiak eta, bereziki, mendebaldeko jakintzak, bere ele-
mentu zehaztaileekin, hala nola razionaltasuna eta progresua, nola eraiki duten gizakiaren
ideia bi alde hauetatik:

- Bata, gizakiaren garapena, bizi guztirakoa dela, eboluziozkoa, etapak gaindituz, eta ho-
rrela suposatzen da autonomi puntu egoki batera iritsi behar duela (Burman 1991, Walker-
dine 1993), sistema demokratikorako egokia (Ibáñez 1990b). Horrela, parte hartzen ez du-
tenak, eredu honen jarraitzaile ez direnak, baztertuak, baliogabetuak, etab., izango dira.
- Eta bestea, pertsona helduaren ezaugarri izan behar duen razionaltasun horrek, botere-
az eta zilegitasunaz hornitzen baitu, bide ematen du alderantzizkoa eraikitzeko: irrazional-
tasuna, edo baita emozionalitatea ere, ezaugarri apalagoak nonbait, eta multzo horretan
sartzen ahal dira emakumeak, haurrak, beste etnietako gizonezkoak –hemen gizaki "basa-
tiaren" ideiak baluke tokirik– etab., beraz, behe mailakotzat jotzen direnak. Kontua da,
praktika diskurtsibo horiek guztiak botere-erlazio batzuk inplikatzeko dituztela, dauden ez-
berdintasunak zilegiztetik abiatuta, horiek mantentzeko eraikitakoekin batera.

Jarraian, zientzia modernoaren eta sexu/jenero sistemaren arteko erlazioez mintzatuko naiz, psikologiaz, zientzia positibista gisa, bai eta jeneroaren produzioaz ere.

1.1

ZIENTZIA MODERNOA ETA SEXU/JENERO ERLAZIOAK

Modernitatearen ideologiarekin eta zientzia modernoa eratzearekin zertuz joan da “jeneroaren banaketa”, dikotomia esentzialenaren bidez, hots, “objektibitatearen” eta “subjektibitatearen” arteko bereizkuntzaren bidez, eta hori urruntasuna ezartzeko beharrezkoa da, hortik definitzen baita ezagupen objektibo, egiazko, fidagarri, eta abarren eraikuntza, eta berarekin darama eta birsortzen du natura eta kulturaren arteko zatiketa, jenero bakoitza eta, horren ondorioz, bata bestearikiko menpekotasuna ere definitzeko oinarri gisa.

Esan badaiteke ere kulturaren eta naturalezaren arteko bereizkuntza aspaldidanik mende-baldeko pentsamenduaren ezaugarri diren dikotomietako bat dela, eta horri “darizkiola” hainbat eta hainbat kontrajarpen: arrazoia/emozioa, objektibitatea/subjektibitatea, etab., gakoa zerean datza, maskulinoa kulturarekin lotzean eta femeninoa naturalezarekin, eta horrek baztertu ditu, hain zuzen, emakumeak zientziaren arlotik. Interesgarria da abiapuntu hau aipatzea ulertu ahal izateko nola eraiki diren “gizon” eta “emakume” kategoriak, ideologia kultural konkretu batzuen ondorio gisa, eta zein den ilustrazioaren ideologiak eta zientzia modernoak duten eginkizuna afera horretan. Katgoria horiek eraiki dituzte horien arteko ezberdintasunak ezaugarri fisiologikoei zor balitzaizkie bezala eta ez batek eta besteak jaso dituen asoziazio sinbolikoei. Fox-Kellerren lanek (1991) auzi hau argitzen dute erakutsiz zein dinamika konplexua den historikoki zientzia eta maskulinitasuna lotu eta aldi berean femininitasuna zientziatik aldentzen duena.

Argi egon arren guztiontzat abiapuntu hori, halaz guztiz ere oroitaraztea interesatzen zait, ondotik beste hau planteatzeko, hau da, nola alderdi batzuk balorizatzeak besteak “balio-gabetzen” diren bitartean, berekin ekarri duen batzuen besteen gaineko boterea legeztatzea ezezik (eta hemen Izquierdoren azalpena aipatuko dut (1988): esparru batzuen besteen gaineko boterea –maskulinoa femeninoaren gainekoa– eta gizadiaren parte baten beste partearen gainekoa –gizonen emakumeen gainekoa–), baita gure subjektibitatea nola joan den eraikitzen (esan nahi baita, nola eraiki den gizon katgoria eta emakume katgoria). Eta puntu honetaz 2. atalean mintzatuko gara.

Psikologiari dagokionez, eta bereziki psikologia sozialaz, zenbait forma hartzen du, honako hauek adibidez:

- “Emakumea” subjektuaren ukapena eta “gizona” subjektuaren orokortasuna. Esate baterako ikerketaren arloan ikus daiteke nola hedatu den sexu batetik bestera eta ez alderantziz. Horrela, ikerketa egiten bazen emakumeen erakuskari batean desegokitzat jotzen zen. Beraz, “arautzat” subjektu maskulinoa hartzen zen (Guillaumin 1992) eta gainera estrapolatu egiten zen gizadi osora erakuskari konkretu baten bitartez: gizonak, klase ertaina, “txuriak”, mendebaldekoak, etab.
- Jeneroaren ezberdintasunak hainbat eta hainbat azterketatan gauzaki bihurtzea, azterketa horietan “sexua” aldagai independenteak sistematikoki bitan banatzen du “erakuskaria”, eta horietatik abiatuz burutzen dira interpretazio guztiak. Emakumeak “irrazionalak”, “emozionalak”... eta horrelako adjetiboen bidez definitzen duten azterlanen kopurua opa-roa da, eta erakuskaria sistematikoki bitan zatitu denetik edo emakumeak azterketaren subjektu bilakatu direnetik aurrera, jeneroaren desberdintasunen esentzialismoa nabarmendu egin da. Horrela, jenero desberdintasunak sexu desberdintasunera murriztean estali egiten dira agian beste norabideren bat hartuko zuketan ezberdintasunak. Gauza bera gertatu da kritika feminista batzuen aportazioekin, horiek nahiz eta “emakume” subjektua “gizon” subjektua bezalakoa edo ezberdina dela onartu, joera izan dute emakume guztiak berdina bailiran tratatzeko eta orobat gizon guztiak, botere erlazioak eta haien arteko diferentziak alde batera utzirik. Horrezaz gainera, femeninotasuna eta emakumeak birbaloratzeko asmoz, azkenean, esentzializatu egin dituzte. Horixe bera izango litzateke “psikologia feminista berdinzalearen” kasua (Squire, 1989), zeinek “zuzendu” nahi dituen psikologia tradizionalak jeneroari buruz dituen okerrak eta omisioak.
- Salbuespen bat egitea merezi dute, baita ere psikologian, jenero edo sexuaren, rol sexualen eta jenero identitatearen gaineko jenero edo sexu “estereotipo”⁵ deitutakoen gaineko azterlanek. Wetherellek dioen bezala (1986), jenero identitatearen psikologia sozialaren ezaugarriak hauek dira: lehenbizikoa, maskulino/femenino zatiketari zentzua bilatzea eta

⁵ Estereotipotzat jotzen da “gizonaren eta emakumearen ezaugarri ezberdinen gaineko pentsamendu edo adostutako errepresentazio” multzo bat” (Broverman eta beste, 1972, 64. or.).

bigarrena, kategoria horien behin-betiko edukia aurkitzeko gogo. Sarritan kategoria horiek finkatzen dituzte gizabanakoaren ezaugarriak bailiran, testuinguruaren arabera eta denboran zehar. Alde horretatik, egile honek argudiatzen du femininitasuna eta maskulinitasuna praktika ideologiko eragingarrietakoak direla, biologiaren edo esperientziaren emaitza natural eta ezinbestekoak diruditelako. Zerbait koherentea, gizabanakoaren ezaugarri bat balitz bezala adieraz daitekeena agertzea da, hain justu, mugimendu ideologiko honen ondorioa. Ekintzak eta auto-deskripzioak ondorio gisa "emeak" edo "arrak" sortaraziak dira eta haiei lotuak, eta era horretan halako moldez unibertsalizatuak non kategoriak homogenotu egiten baitira, eta aldi berean, beste identitateei dagokienez berezi eta menperatu ere bai.

Sexu/jenero tratamendu mota hau⁶ psikologiaren azpian datzan gizaki ereduari zor zaio, aurrez ontzat ematen duena subjektu natural batzuen aurre-existentzia –gizona eta emakumea– estereotipia prozesua baino aurreragokoak. Gainera, Billigek eta beste batzuek seinalatzen dutenez (1988), jenero kategorien edukia dokumentatu gogo duten akademikoek ("jenero estereotipoak") eta arlo hori lantzen ari diren psikologo sozialek askotan alde aurretik ontzat ematen dute jenero kategoriak egonkorak direla, unibertsalak, ezagupen egiturak kanpoko ingurunean "benetako ezberdintasunetan" aurki daitezkeenak. Giza arraza bi taldetan bana daiteke oso erraz: arrak eta emeak. Horren ondorio bat ezagupen kategorien garapena da, jeneroari dagokion informazioa deskribatu eta prozesatzeko. Estereotipo sexualak ikertuz, psikologo sozialek gehienetan onartzen dute jeneroaren kategorizazioa lehentasunezko faktorea dela eta galdetuei ez die besterik eskatzen emandako kategoriak, "gizonak" eta "emakumeak" etiketatuak deskriba ditzatela baizik. Era horretan bereganatzen dute jenero kategoriekin lotzen den esanahiaren funtsa, gauzaki bihurtuz. Alde horretatik, Henriquesek eta bestek (1984) adierazten digutenez: "Psikologiarentzat, emakumeen zapalkuntza eta gizonezkoen siniskerak emakumeekiko kontzeptu terminoetan daude teorizatuak, adibidez, aurreiritziak, okerreko iritziak, emakumeei buruzko informazio desegokietan oinarrituak, jarrerak eta gizonen eta emakumeen "ohizko" rolen sozializazioa" (116. orr.).

⁶ Gogorarazi behar da, hemen garatuko ez dugun arren, psikologian "androgina psikologikoa" izeneko kategoria, Sandra Bemek proposatuta (1974), sortu dela jeneroen kontzepzio dikotomikoa ez delako pertsona guztien egokitzen, batzuek "bien ezaugarriak zituztelako", baina kritika franko ere jaso ditu gizabanako/gizarte dikotomiari eusteagatik: gizartea zerbait homogenoa da eta gizabanako pasiboak ezaugarri batzuk zein besteak bereganatzen ditu.

Eta ahantzi egiten da, halaber, "sexua" kategorია ez dela datu natural bat, eraikin bat baizik, Foucaultek aditzera ematen duen bezala (1977, 187. orr.), zera baieztatzen duenean: "sexu nozioak bide eman zuen unitate artifizial batean elementu anatomikoak, funtzio biologikoak, jarrerak, sentipenak eta plazerrak biltzeko eta bide eman zuen, halaber, geuzurrezko unitate horrek kausazko printzipio gisa funtziona zezan".

Era horretako azterlanek ondorio batzuk ekarri dituzte, hala nola, "neskek" sobera lilurakorrak direla, "mutilek" ez bezala, helburuak lortzeko motibazio gutxiagokoak, ikasteko eta memorizatzeko hobeak direla, baina "maila goragoko eginkizunetan" ez direla horren onak, etab., etab. Egile batzuek, esate baterako Maccoby eta Jacklin (1974, Squirek aipatuak, 1989) saiatu izan dira ikerketa horiei kontra egiten, erakutsi nahiz ezberdintasunen gaineko hipotesi horiei eusterik ez dagoela, edo ezberdintasun horien sorburua bestelakoa dela.

Eta hori, oso laburtua, jeneroa nola sortzen den zientzien arloan erakusteko, kasu honetan psikologia enpirizistaren ikuspegitik eta nola gizabanakoen eraikuntza betikitzen ahal den, kasu honetan "emakumeak", halako moldez, non bereizkeria zilegi bihurtzen den.

2.

Nortasunaren gaineko ikerlanak eta subjektibitatearen eraikuntza ikuspegi postmodernoetatik

Beste alde batetik, eta hasieran proposatu nuen bezala, norberatasuna eraikitzearen auzia ikuspegi deseraikitzaile batetik aztertu nahi nuke bai eta horrek baloreekin eta jeneroarekin zer lotura duen ere.

Antropologoen eta etnografoen egindako azterlanetan oinarrituz, eta konkretuki, gizarte zientzia interpretatzaileen eremuan egin lanetan (Geertz 1989, Clifford eta Marcus 1986, ...), Foucaulten eta feministen aportazio kritikoetan, argi gelditu da gizabanakoari buruzko mendebaldeko ikuspegia, zeinen bidez gizakia bere buruaren jabe, independente eta entitate autonomo bilakatuz joan baita, guztia bere inguruan sortzen duen abiagunea da, barnean bere jokabidearen eragile diren ahalmenak dituen. Hor erakusten denez gizabanakoa sorkari historikoa da eta pertsonari buruzko ondoko nozioak, adibidez, "osotasun integratua", "unibertso dinamikoa" edo "zentro burujabea" zalantzan jartzeaz gainera entitate bi hauek, hots, gizabanakoa eta gizartea, ez dira jadanik lokabetzat hartzen (Henriques eta beste, 1984); Carrithers, Collins eta Lukes, 1985). Izan ere, kultura guztiek egiten dute bereizketa hau, ni-aren eta ni ez-aren artekoa, eta orobat ni-a zein gradutaraino den autonomoa edo "kontrolpekoa". Hala eta guztiz ere, kulturetan badira aldeak pertsonak dimentsio horietan kokatzeko moduari, beraz, pertsona kontzeptuari berari, dagokionez. Antropologia sozialaren azterlanek erakutsi digute nola gizarte ezberdinek mantentzen dituzten "pertsona izatearen" nozio ezberdin horiek, tinko atxikiak haien antolamendu sozialari eta haien historiari, batik bat industriaurreko gizarteetan (Stolcke 1987).

Labur-labur esanaz azterlan horietatik ondorio hauek ateratzen dira:

- Gizarteek berek sortzen dute beren ugalketarako behar duten izaera mota, bai eta ugalketa horri eusteko behar diren ideologiak ere.
- Indibidualtasunaren, autonomiaren eta askatasunaren ideologiek funtsezko eginkizuna betetzen dute gizarte baten ugalketan. Adibidez, autonomia kontzeptuak inplikazio politiko zehatzak ditu, hala nola, "subjektu libreen" beharra, hautesle izateko gai direnak, eredu demokratikoari komeni zaion eran (Ibáñez 1990, Sampson 1989 eta 1990).
- Gizabanakoa autonomotzat hartzearen ondorioa da "gauza" bati parekatzea, horrek dakartzan botere-ondorioak barne (Ibáñez 1982). Boterea erabiltzearen emaitza eta baldintza

diren pertsonak gauzaki bihurtzea, ezinbestez inplikaturata dago botereaz pentsatzeko askatasun irizpidea erabiltzen den unetik beretik. Foucaultek (1980) bere lanetan azaltzen digu nola "praktika zatitzaileetan" objektibatzen den subjektua, zeina zatitua gertatzen baita edo besteengandik bereizia, beraz, prozesu horren bidez gauza bihurtzen da. Horregatik, bada, azpimarratzen du gizarteari buruzko kontzientzia historikoa izan beharra.

Arront inportantea da kontuan hartzea, gaur egun mendebaldeko pentsamoldean "pertsonez izatea" zer den jakiteari buruzko eztabaiden bitartez, nola alda daitekeen guk geure buruaz azaltzen dugun jarrera.

Postmodernitateak hasita, hain zuzen ere, psikologia arloko eraikuntza sozialaren korrontetik, gertatzen den oinarritzko aldaketa, batez ere da nola ulertzen eta erabakitzen den ni hori, eta beste modu batera pentsatzeko bidea eman da, "erlazioan" oinarrituta, ni-aren teoria indibidualizatuak teoria erlazionalago batzuekin ordezkaturik (Gergen eta Davis, 1985; Gergen eta Shotter, 1989).

Parkerrekin ados bagaude ere (1990) zera dioenean, oso zaila dela geure buruaz dugun irudia baztertzea, izaki autonomo eta zatiez in izan gaitzkeen irudia, alegia, zentzu komunean hagitz errotua dagoela, hala disziplina akademiko batean nola horren ingurune kulturean, guztiarekin ere guk diogu ekintza hori beharrezkoa dela, horren ideologia eta boterea deseraiki nahi baldin bada.

Besteak beste, Foucaulten (1976), Roseren (1989 eta 1990) eta Sampsonen (1989 eta 1990) azterlanekin ados egonik, ohartzeko gara desiratzen diren "helburu" edo balore sozialak: ongizatea, zoriona, eraginkortasuna, etab, produkzioaren menpeko, bai eta hiritar bakoitzaren ahalmenen menpeko, argudio gisa eraiki direla

Kitzingerren lana (1989) hagitz interesgarria da alde horretatik. Bertan erakusten digu lesbianismoa despatologizatzen duten idazki liberalek –hobespen sexualtzat edo bizitzeko modutzat aurkezturik "gai"-mugimenduen aldetik harrera izugarri ona izan baitute–, alde batetik lesbianismoaren onarpen soziala ziurtatzen badute ere, beste alde batetik, ordena menderatzailearen helburuak zerbitzen dituztela, horren moral erretorikoa indartuz eta baliokotzat hartuz. Horrela, lesbianismoaren gaineko adierazpen liberal-humanistikoak, onartuak dauden mendebaldeko arau eta balore sozialetan oinarrituak (amodio erromantikoaren nagusitasuna, zorientasun pertsonalaren garrantzia eta autoerrealizazioa, etab...) tamalez, errealitate lesbianoak ankaz gora jarri dituen ideologia eta egitura sozial horien euskarri baizik ez dira. Lesbianismoaren arazoa sexu hobespen indibidualaren arazotzat hartzea da ez onartzea sexualitatearen gaineko kontrol patriarkalari erronka botatzeko modu bat dela.

Horrela, lesbianismoa aurkezten bada zorion osoaren eta barne harmoniatsua lortzeko bide bat bezala, egonezin indibidual baten soluzio pribatu bihurtzen da, hots, "despolitizatu" egiten da, ingurune pribatu bat sortuz, non bereiztasun indibiduala lokalizatu, eta horrenbestez, onartu egiten baita. Kontua ez da zorion pertsonalaren nagusitasuna, etab... ez aitortzea, baizik eta lehentasuna helburu "indibidualistei" ematea.

Kitzingerren lanetik ondorio hau ateratzen da, guri interesatzen zaiguna, hau da, identitateak ez direla gizabanakoen ondasun pribatuak, baizik eta eraikin sozialak, ezabatu edo suspertu egin daitezkeenak gailentzen den ordena sozialaren interes politikoen arabera. Gainera adibide horretaz baliatuko gara aurrerako indibidualismoaren gaia planteatzeko –gaur egungo ezaugarri gisa, "aro postmodernistaren" "baloreen krisia" deitzen denarekin batera–, bai eta betetzen duen rola ere, pribatutasunaren eta publikotasunaren bereizketa birsortu eta betirakotzeko bide ematen duena, are deseraikitzen saiatzen direnen parte batena ere.

Alabaina, aldez aurretik aipatu nahi dut postmodernitateak gizabanakoaren zatiketa edo dezentrazioa deitzen dena, eta gero jeneroaren deseraikitzearen gaiari helduko diot.

2.1

NORTASUN ZATIKATUA

Postmodernitateak planteatzen du nortasunaren izaera tenporala eta mugatua historiaren eta gizartearen aldetik, Tuckerrek (1990) adierazten duenez, horren eragin hertsatzaile nahiz askatzaileez jabetu ahal izateko, horrela:

"Gure artean elkar ulertzeko eta definitzeko ahaleginek nahitanahiez batera joan behar dute, bereizten gaituena ulertu eta definitzeko ahaleginekin. Gure esperientzia iristen den punturaino aztertzea –arau eta gradu bezala, zeinen bidez exotizatzen, mitologizatzen edo baztertzen dugun beste kulturen, "arrazen", belaunaldien, jeneroen nahiz siniskera sistemen esperientzia– urrats garrantzitsu bat da nortasuna baliabide ideologiko bat bezala ulertzeko, erraz erabil daitekeena helburu zapaltzaileen zerbitzura ezezik baita taldearen batasun zentzua sustatzeko ere: zapalkuntzaren kontrako borrokaren zentzu gorena. Nortasuna eraikin aldakorra dela esatea, "egia" eginkorra ez dela esatea baino modu hobea da, errepresentazio horiek betikoz iraunaraz diezaieten eragile hertsitzaileei aurre egiteko" (92. orr).

Nire iritziz aipu hori interesgarria da nortasunari buruz planteatu diren arazoetako bi aipatzen dituelako. Alde batetik, nortasun bat finkatzean nola baztertzen ahal diren bestela-

ko esperientzia guztiak. Mendebaldeko pentsamenduari dagokionez, argi dago bereiztasuna ez dela bi gauzen artekoa, Sánchezek (1991) ohartarazten duen bezala, baizik eta "bata bestearekikoa, lehenbizikoa ardatz eta erdigune gisa autoeraikia, eta ezberdintasuna arauaren desbideratze bihurtzen duena. Dikotomia hierarkikoa eta asimetricoa da. Ezberdintasuna izan daiteke: emakumeak, beste "arraza" batzuk, beste klase sozial batzuk, beste adin multzo batzuk" (170. orr.), hitz batez esateko, arautik aldentzea.

Eta bestalde, nortasun bat eraiki beharrak, talde menperatu bezala, borrokarako premiazkoa denak, ondorio berberak sor ditzake, hots, unibertsalizazioa (guztiei inposatzea) eta ezberdintasunak berriro ere ezabatzea. Hortik, bada, nortasun "aldakorra" kontzeptuaren premia, Tuckerrek dioen bezala (1990), eta ez "egia egonkor" gisa.

Laburbiltzeko, nire asmoa zen planteatzea nortasunak gizartearen edo boteredun sistema sozial baten sistemaren premia eta baloreen arabera eraikitzen direla, eta horrek tajutzen duela hein handi batean gure izateko modua. Bestalde, ezagupen mendebaldarrak, ilustraziotik aurrera batik bat, razionaltasun zientifikoa sortu zenetik, ezagupen zientifiko mota bat, "egiak" biltzen dituen, eraiki du, objektibitate eta neutralitatea bezalako ezaugarriekin bat egiten duena, baina egia horiek balore konkretu batzuk dakartzate, subjektibitate maskulinoarenak, alegia. Eragiketa biek ondorio sakonak ekarri dituzte gure esperientziaren arloan, botere-erlazioei dagozkien, bai eta gure subjektibitatearen tajukeran. Amaitzeko, alderdi konkretu bati buruzko iruzkina egingo dut, aurreko biak biltzen dituen: jeneroaren haustura edo deseraikuntza.

3.

Jenero-dikotomiaren gainetik: publikotasun/pribatutasun bereizketa eta indibidualismoaren arazoa

Psikologia sozialaren disziplinan gailentzen diren ikuspegietako parte batek erabilitako ezagupen eta metodologiaren aldetik, eta zuzen-zuzen positibismoaren korronteari lotzen zaizkionetik, zenbait balore baztertzen da. Maskulino eta femeninoaren arteko bereizketa eta batzuk publikotasunari atxikitzea eta besteak pribatutasunari, horrek berekin duen balorazio/eraikuntza elementuekin, gure bizitzaren zokorik zokoenean sartu da, "gizon" eta "emakume" kategoriak antolatuz eta moldatuz, zientziaren esparruan duen erabileraren gainetik. Alde horretatik jenero erlazioak, diskurtso zientifikoaren produktu direnez gero, bereziki ezagupen/botere erlazioaren ordezkari dira. Horrela, jeneroen arteko ezberdintasuna behin eta berriz birsortzen da, errealitate gisa eta oinarriak diskurtso zientifikoan dituela. Zientziaren beraren definizioa eratzean ezezik psikologia sozial positibistan ere ikusi dugunez, jeneroari dagozkion "errealitate" multzo bat eraikitzean zilegi egin da baten eta bestearen arteko bereizkeria.

Jeneroa bi termino kontrako osatua balego bezala eraiki denez, maskulinoa eta femeninoa, eta bi entitate ezberdini balegokie bezala: gizonak eta emakumeak, naturalizat hartu da eta gure izaeraren parte bereizi ezinezkotzat, eta ez zerbait erlaziozkotzat. Brown eta Jordanovak diotenez "gizonak eta emakumeak gizarte harremanen emaitza dira; gizarte harremanak aldatzen baditugu "gizon" eta "emakume" kategoriak aldatuko ditugu" (Brown eta Jordanova 1982, 393 or. in Moore 1991). Emakumezko egile hauek diotenei jarraikiz, sexuen arteko bereizkuntza biologikoen gure bizitzan eta esperientzietan duten garrantzia begibistakoa bada ere, ezin har daitezke esanahi berariazko edo unibertsala balute bezala. Zenbait aportazio teorikok azaltzen dutenez pentsamendu mendebaldarraren kategoria dikotomikoen, hala nola kolektiboa eta indibiduala, naturaleza eta kultura, etab., gizarte mundua ordenatzeko modu bat erantsi digute, sozialtasuna eratzearaino, hau da, ez dira neutroak baizik ezberdintasunen sistema bateko elementuak.

Funtsean, proposamen postmodernoen aldetik binarismoak gainditzea bilatu nahi da eta alde aurretiko teoria orokortzaile guztiak "baino haruntzago doan" mugimendu bat sortzea.

Haatik, horrek proiektu askatzaileei kontra egiten ahal die, orain arte planteatutakoei bederen.

Testuinguru honetan zehazki nire mintzagaia izango da maskulino eta femenino kategoriak deseraikitzea eta jeneroaren analisia.

Hautsi beharreko dikotomien artean dago gorputza-arrazoia, edo natura-kultura. Gorputz ongi delimitatu baten eraginari itzuri egiteko aipatzen da muga horien "lausotzea", eta horrekin batera "Niaren zatikatzea". Puntu hau ere aski korapilotsua agertzen da teoria feministetan proposamen postmodernoek dagokienean, horrek inplikatzeko baitu emakumeek bere esperientzia partikularrei uko egitea, orain arte behintzat, eta jenero eta sexuen arteko ezberdintasunen errealitateari ezikusi egiten. Hori da, hain zuzen ere, jeneroaren deseraikuntzan ager daitezkeen arriskuak bat.

De Lauretisek (1987) egindako kontzeptualizazioaren arabera jeneroa eratzen da kultur diskurtso eta errepresentazioetan oinarrituta, gizarte teknologia batzuen bidez, mass-mediak, eguneroko bizitzako harremanak, diskurtso instituzionalak eta disziplina ezberdinak, eta horrela jabetzen gara ez duela zerikusirik gorputzen ezaugarriekin eta hastapenean ez zela agertzen. Jeneroak, horratio, gizabanako bat edo entitate bat talde baten barruan kokatzen du eta beste taldeak bereizten. Esan nahi baita, gizabanakoak taldekatu egiten dituela, gizonen taldean edo emakumeenean.

Kontrakotasun batzuk ere agertzen dira, "femeninitasuna" sorkari maskulinoa izan arren, gaur eguneko egoeran bere eskubideak erreibindikatu behar direla diotenak, zeren, adibidez postestrukturalismoaren kasuan, ar/emea oposizioa gainditzeko duen asmoarekin, kategorien pisu politikoa gutxietsi egiten du. Horrekin adierazten denez, jenero, klase eta "arrazaz" desberdintasun-eremuak bailira bezala hitz egiteak –teoria garaikidearen formulazio komuna, bestalde– ezkutatu egiten du eremu horiek botere-eremuak direla (Barret 1987). Proposamenak "gizona" eta "emakumea" kategoriak deseraikitzearen ildotik doaz, horien barnean dauden beste motatako ezberdintasunak ere aztertuz eta ez horien artekoak soilik.

Emakumeen kasuan, "emakume" kategoriaren barnean ezberdintasunik badela aitortzea politika berria da, ohizko politika feminista oinarritzen deneko nortasun historikoa deseraiki nahi baitu. Delako politika feministak honako puntuak onartzen zituen:

- Emakume guztiak era berean ordezkatu nahia.
- Klasismoa eta "arrazakeria" emakumeen arteko ezberdintasun eragile nagusi gisa.
- Esentzialismoa, zeinen bidez suposatzen den badela ezberdintasunik gizonen eta emakumeen artean.

Arazoa da, Bordok (1990) seinalatzen duenaren arabera, jeneroaren bitasunak eraikitako kultura batean zaila dela gizakia huts-hutsik izatea, bada, gure mintzaira eta gure kultur historia jeneroak markatutakoak baitira. Eginahalak egin daitezke jeneroaren bitasunei gailentzeko, jarrera postmodernistetik proposatzen denaren antzo, eta gure jokamoldea maskulino edo femenino bezala kategorizatua ez edukitzeko, baina hala eta guztiz ere, gure kultura honetan, gure aktibitate guztiak kodetuak daude dagoeneko maskulino edo femenino gisa, eta gisa berean funtzionatuko lukete jenero eta botere erlazioetako sistema batean. Hortaz, arazoa ez da bereiztasunak franko direla, baizik eta bereiztasun horiek desberdintasunak dakartzatela beraiekin.

Horrexegatik zaila da oso onartzea, Bordok dioen bezala, bitasuna gainditzeak jenero bereiztasunak gainditzea dakarrela. Hala ere, postula daiteke maskulino/femenino oposizio hori gainditu beharra dagoela baldin eta diskriminaziorik ez izateko balioko duen sexu etiketen kode bat izango duen mundu bat erdietsi nahi bada.

Haatik, begibistan dagoenez, publiko eta pribatuaren, etxe eta gizartearen, eta maskulino eta femeninoaren arteko harremanak birplanteatzean egoera dilemaduna sortzen zaigu.

Proposamen postmodernoen aldetik, publiko eta pribatuaren auzia, bai eta indibidualtasunaren gaia oso era ezberdinean aztertu dira. Adibide bat ematearren, bizitza pribatura zokoratzea azter daiteke ekintza politikoaren ahultze bat eta aldi berean erantzun ahalmenaren murriztapen bat bezala, baina baita adituen eta politikoen manipulazio eta kontrolarekiko defentsa bezala ere (Baudrillard 1978, Lipovetsky 1983, Ferry eta Renault 1987, Béjar 1988, Maffesoli 1989, etab.); dena den, ez naiz arazo honetaz mintzatuko eta aipatu besterik ez dut egingo harreman publiko/pribatuei dagokienean.

Sheila Benhabib eta Drucilla Cornellen (1987) "Jeneroaren politikaz haratago" izenburua duen azterlanaren sarreran, egile horiek galdetzen dute zein izan daitekeen eremu publiko/pribatuen berregituraketa, ohartu direlarik beste egileekin batera bitasun horrek zein ondorio eskasak ekarri dizkien emakumeei:

"Adostasun nabaria dago Fraser, Young, Benhabib eta Markusen artean publiko/pribatuaren bitasuna, antolamendu sozialaren printzipio gisa, eta arrazoiaren eta zuzenbidearen kontzepzio ezberdinetan duen artikulatze ideologikoa, kaltegarri izan direla emakumeentzat. Fraserren iritziz, horren emaitza da jenero-botorearen harremanen mistifikazioa, ekonomia modernoaren eta estatuaren barne oinarria dena; Youngek ikusten du emakumeen bereiztasunarenganako errepresioa eta arlo publikotik egoztea; Benhabibek kritikatzan du emakumeen igurikapen eta ikuspegi moralen ondoriozko arinkeria, eta Markusek bere al-

detik azaltzen digu etxearen eta lanaren artean dagoen lotura bikoitza, bitasun horren ondorio dena. Alabaina, adostasunaz landa funtsezko auzia honako hau da: zein izan daiteke publiko/pribatu eremuen berreraikitze mota egokiena gure gizarteetan emakumeen emantzipazioa sustatzeko, eta aldi berean denontzako gizarte gizatiarragoa antolatzeko?". Emakumezko egile hauek kontuan hartzen dute eta aztertzen, halaber, publiko/pribatu bitasuna teoria politiko liberalarekin eztabaidatzean sortzen den gatazka, bai eta hor sortzen den egoera paradoxikoa, "Niaren" kontzeptio "publikoaren" –eskubidedunaren abstrakzio gisa– eta nortasun "pribatuaren" artean, eta, beraz, desberdintasunik nozitzeko arriskua duen "subjektu jeneralizatua" den aldetik.

Cornell eta Thurschwell (1987) logika bitarra kritikatzearen alde daude, bai eta bereiztasuna onartuz nortasuna eratzearen alde, maskulino/femenino oposizioa gainditzen duen harremana sortzeko, bada, jeneroaren dikotomia ideologiaren zerbitzura dago, sexu kategoriarekin gertatzen denaren antzo, Butlerrek argitzen digun bezala (1987), Foucaulten eredu erabiliz. Hona hemen:

"Sexua kategoria boterearen eredu juridikoari dagokio, "sexuen" arteko oposizio bitarrean oinarritzen dena. Oposizio bitarren subertsioa Foucaultentzat ez da horren traszendentziaren ondorioa, baizik eta horren ugaltzearena, halako puntura, non oposizio bitarrak zentzurik gabe geratuko baitira bereiztasun anitzak, bereiztasun bitarretara mugatzeke, oporak diren testuinguru batean. Antzinako botere-jokoa, zapaltzailearen eta zapalduaren artekoa lausotzeko estrategia hauek proposatzen ditu Foucaultek: "ugaltzea" eta "asimilazioa". Haren taktika, horrela esan badaiteke, ez da botere-harremanak gainditzea, baizik eta horien tajukera guztiak biderkatzea, boterearen eredu juridiko hori, zapaltzaile eta arauemaile gisa, ez dadin gehiago hegemonikoa izan. Zapaltzaileak eurak zanpatu bihurtzen direnean eta zapaldua egon denak botere-mota alternatiboak bereganatzen dituzenean, boterearen erlazio postmoderno baten aitzinean gaude. Foucaultentzat elkarrekintza horren emaitza botere ahalmen berriak eta korapilatsuagoak sortzea da eta oposizio bitarraren boterea lausoago bihurtzen da barne anbiguitasunaren eraginez." (Butler 1987, 206 or.)

Beste ikuspegi batetik bada ere, Kristevak (1979) bere lanetan esentzialismo-ezari eusten dio. Kristevarentzat ez du inolako zentzurik emakumeak definitzea eta femininotasunaren teoria marginalitate, subertsio eta disidentziaren teoria batez ordezkatzeko du.

Bat etorritik, beraz, bitartasunei buruzko eztabaida postmodernoarekin, zeinen azpian ezkutaturik hierarkiak baitaude, aterabidetzat multiplizitatea eta aniztasuna proposatzen da.

Mota berriko harremanak sortzen ari badira ere, ezin dira horren ondorioak kontutan hartu gabe utzi. Jeneroa deseraikitzen ahal da, denbora berean "emakumeen" taldeari bide emanez bere ihardunean jarrai dezan, baina Harding(1986), Flax (1987), Hutcheon (1989) eta beste batzuek erreibindikatzen duten bezala, erabiltzen diren kategoriak aldi baterakoak dira eta jadanik agortuak daudela gogoan eduki behar da, eta horiek esentzializatzea eta unibertsal egitea ekidin. Nicholsonen hitzetan, "eskaera sozialen konplexutasunekin sentibera izatea da kontua eta gizarte zentroekin, zeinek kategoria beraren erabilera arriskutsu eta bidenabar askatzaile bihur baitezakete" (Nicholson 1990, 16. or.). Horrekin batera beharrezkoa da, halaber, ezberdintasunezko egoerak agertaraztea, sarritan neutralizatuak daudelako sasi-deseraikuntza baten eraginpean, gezurrezko erretorika izanik gizonak eta emakumeak "libreak" bailiran eraikitzen dituen, gizartean edo eskuragai dauden hainbat eta hainbat alderditan hautatzeko. Nire ustez, azkeneko eraikin honek, modernitatearen ideologia isladatzen du, eskuarki, bi ikuspegi hauetatik bederen: lehenik eta behin, barruan/kanpoan eta gizabanakoa/gizartea dikotomien erreprodukzioetik, eta bigarrenik, ideologia liberalaren ezaugarri diren "psikologizaziotik" edo "indibidualismotik". Delako ideologia liberalak edozein ezberdintasun egoera despolitizatzen du eta esparru indibidualera igortzen, bide batez "askatasuna", eta bestelako baloreen produkzioari ekiten dio. Alde horretatik, badirudi ez dela ezinezkoa "pribatutasunaren" birbaloratze bat, baina ez kategoria unitario gisa, ezaugarri eta eremu konkretu batzuk "batzera" destinatua, baizik eta harreman egoera orokor eta osotasunezkoen barneko bereiztasunetan, ez "femeninotasunari" atxikiz gero esentzializatzeko, nahiz eta era positiboan izan. Horrela, bada, proposamena izango litzateke deseraikitzea publikotasunaren kontrako mutur den aldetik eta horren produkzioa eta eragina aztertzea.

Laburbilduz, alde batetik izango genuke gaur egungo arazo gehienetan gertatzen den despolitizazioa nabarmenduko litzatekeela eta, ondorioz, horien deskontestualizazioa, eremu pribatutik nola edo hala horien aierua ekarraraziz: psikologizatuz eta gizarte ekintza ahulduz (diskurtso liberalak egiten duen nortasun lesbianoen eraikuntza, Kitzingerrek aztertu duena, adibide egokia da). Era berean, indibidualtasunaz hitz egitean, azkenik, publiko eta pribatutasunaren arteko bereizketa zaharra errepikatzen da, giza bizitzaren alderdi franko marginalizatzeko, balioa eta zilegitasuna kentzeko trebezia handiz erabili den bereizketa, konpondu gabe utzi duena baten eta bestearen balorazioa (hemen sartzen ahal da feminismo erradikala ere, femeninotasuna birbaloratu beharrez berriro esentzializatzen baitu).

Adierazpenak adierazpen, ondorioak atera baino ideiak bilduko nituzke eta, batez ere, galdera batzuk:

- Baloreak ez dira jendearen ondare, ez eta gizarteak eskurarazten dituen aukera guztien artean bakoitzaren helburuei edo nortasunari gehien egokitzen zaizkienak “libreki” hautatzearen zentzu horretan ere, baizik eta gure subjektibitatea, bai eta sakoneneko nahikundeak ere, sortu baitira, Foucaultek dioen bezala (1979) “gure igurikapenak eta nahiak aurrikusi dizkiguten bezala”, eta beraz, interes konkretu batzurengatik gara gu garen bezalakoak. Alde horretatik, baloreak ez dira ez gizartearenak ez eta pribatuak ere, eta biek erantzuten diote gizarteak behar dituen indibiduoak eraikitzeke premiarri. Ezin daiteke pentsa baloreak eremu konkretu batean gauzatzen direnik, baizik eta sistema konplexuago bat dela, dauden praktketan gauzatzen dena, eta gainera gure subjektibotasuna arautzen duena.

- Eraiki den zientziak, modernitatearen ideologiari dagokionak, “balorea” eman dio giza bizitzaren alderdi edo kualitate zenbaiti eta ez beste batzuei, azken batean batzuek beste gainean duten dominazioa justifikatzeko eta beraien biziraupena ziurtatzeko. Razionaltasun zientifikoaren eta subjektibotasun maskulinoaren korrespondentziak balio izan du gizadiaren zati bat baztertzeko eta baita bazterketa hori legitimatzeko ere.

- Ikuspegi “postmodernotik” edo hurbilketa deseraikitzaile batetik asmoa dago jenero dikotomiak deseraikitzea ezezik baita publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomiak ere. Eta, alde horretatik, helburua litzateke ez bakarrik bata eta bestea baloratu gabe uztea, bai eta horien botere preskriptiboa eta esentzializatzailea ere kentzea, bata besteari kontra jartzen zaion heinean (beste jenero bateko jeneroa, espazio baten aurkako espazioa). Ikuspegi horretatik, erlaziozko eta “zaticako” identitateetan pentsatzeak –batzuetan horrela deitzen baitzaie– ez luke, ene iduriko eta maiz aski debateetan sortzen den bezala, edozein iharduera “askatzaile” edo “erresistentziazko” geldiaraziko, aitzitik baizik, kokapen berria emango lioke giza deliberazioaren esparruan (Ibáñez, 1990c), eta orobat, kategoriak erabiliko lituzke hura osatzen duten bereiztasunak bere eginez, inolako nahikunde totalizatzaile, unibertsalizatzaile edo esentzialistarik gabe.

Azkenik, sexu/jenero harremanak beste modu batera moldatzeak aukera ematen du lan desberdin bat izateko, zeinetan batzuen eta besteen bereiztasunak gauzaki bihurtzen ez diren,

eta era horretan zalantzan jartzen dira gizarte zientzien aldetiko desberdintasunak legitimatzea.

Interesa nuen argi uzteko ezin daitezkeela horren erraz bereizi jenero kategoria eta baloreen kategoria –ez zientziaren eraketari ez eta gizakien eraketari dagokionean–, eta ez bakarrik hasiera batean jeneroen arteko banaketak –jadanik aipatu dugun bezala– alderdien korrelatoa dakarrelako, batzuk positiboak eta beste batzuk ez, eta horri dagokion “balorzioa”, baizik eta, edozein dela ere horren eraikuntza, bereiztasun dikotomikoa mantentzen deino, zentzu batean edo bestean erreproduzitzen direlako botere erlazioak, eta hori horrela, interesgarriago dirudi hori haustea.

Bibliografia

- BÉJAR, Elena: *Eremu intimoa*, Madril, Alianza, 1988.
- BENHABIB, Seyla; CORNELL, Drucilla (arg. lit.): *Teoria feminista eta teoria kritikoa. Jeneroaren politikari buruzko entseuak beranduko kapitalismoaren gizarteetan*, Valentzia, Alfons el Magnànim, 1990.
- BILLIG, Michael, eta beste: *Ideological Dilemmas, A Social Psychology of Everyday Thinking*, Londres, Sage, 1988.
- BORDO, Susan: "Feminism, Post, modernism and Gender-scepticism", in L.J. Nicholson (arg.), 1990.
- BROVERMAN, R. eta beste: "Sex-role Stereotypes: a Current Appraisal", in *Journal of Social Issues*, 28, 1972.
- BURMAN, Erica: "Developmental Psychology and the Postmodern Child", *Postmodernism and Social Sciences*, Londres, MacMillan, 1991.
- BUTLER, Judith: "Sexuaren eta jeneroaren gaineko aldakuntzak", Beauvoir, Witting eta Foucault, *Teoria feminista eta teoria kritikoa. Jeneroaren politikari buruzko entseuak beranduko kapitalismoaren gizarteetan*, Valentzia, Alfons el Magnànim, 1990.
- BUTLER, Judith: "Gender Trouble, Feminist Theory and Psychoanalytic Discourse", *Feminism/Postmodernism*, 1990.
- CABRUJA, Teresa: *Postmodernitatearen bertsioak eta gizabanakoari buruzko proposamenak*, Bellaterra, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, mikrofitxak, 1991.
- CABRUJA, Teresa; PUJAL, Margot: "The Sexual Problematization of Psychosocial Knowledge: Some Examples", *ESESPen aurkeztutako txostena*, 1992.
- CARRITHERS, Michael; COLLINS, Steven; LUKES, Steven (arg. lit.): *The Category of the person. Anthropology, Philosophy, History*, Cambridge-New York-Melbourne, Cambridge University Press, 1985
- CLIFFORD, James; MARCUS, G.E. (arg. lit.): *Writing Culture. The Poetics and Politics of Ethnography*, Londres, University of California Press, 1986.
- FERRY, Luc; RENAUT, Alain: *68-86 Itinéraires de l'individu*, Paris, Gallimard, 1987.
- FLAX, Jane (1987): "Postmodernism and Gender Relations in Feminist Theory", in L.J. Nicholson (arg.) (1990), 39-62 orr.
- FOUCAULT, Michel: "Plazerren erabilpena", *Sexualitatearen historia*, 2. liburukia, Madril, Siglo XXI, 1987.

-
- FOUCAULT, Michel: *Niaren teknologiak eta arlo bereko beste testu batzuk*, Bartzelona, Paidós, 1990.
- FOX KELLER, Evelyn: "Feminism and Science", in *Sings*, 7. liburukia, 3. zk., The University of Chicago, 589-602 orr, 1982.
- GEERTZ, Clifford: *Antropologia autore bezala*, Bartzelona, Paidós, 1989.
- GERGEN, Kenneth J.; DAVIS, K.E. (arg. lit.): *The Social Construction of the Person*, New York, Springer, 1985.
- GUILLAMIN, Colette: *Sexe, race et pratique du pouvoir. L'idée de nature*, Paris, C'ôte-femmes, 1992.
- HARAWAY, Donna (1990): "A Manifesto of Cyborgs: Science, Technology, and Socialist Feminism in the 1980s" in L.J. Nicholson (arg.) (1990), 190-223 orr.
- HARDING, Sandra: *The Science Question in Feminism*, Stratford, Open University Press, 1986.
- HENRIQUES, Julian eta beste: *Changing the Subject. Psychology, Social Regulation and Subjectivity*, Londres, Methuen, 1984.
- IBAÑEZ, Tomás (arg. lit.): *Errealitate sozialaren ezagupena*, Bartzelona, Sendai, 1989.
- IBAÑEZ, Tomás: *Psikologia sozialarekiko hurbilketa*, Bartzelona, Sendai, 1990.
- IBAÑEZ, Tomás: "Gouverner l'intersubjectivité: psychologie sociale et politique". Argitaratugabe.
- IBAÑEZ, Tomás: "Eta, Jainkoa hil eta gero, zer?" in *Archipiélago*, 5, Iruñea, 1990.
- IBAÑEZ, Tomás: "Social Psychology and the Rhetoric of Truth", in *Theory and Psychology*, 1. liburukia 2. zk, 1991, Sage, 187-201 orr.
- IZQUIERDO, M. Jesús: "Emakumeak aztergai ote dira gizarte zientzietan?", in *Papers, Revista de Sociología*, 30 zk. 51-66 orr, 1988.
- JARDINE, Alice: *Gynesis, Configuration of Women and Modernity*, Cornell University Press, 1985.
- KITZINGER, Celia: "Liberal Feminism as an Ideology of Social Control: Regulation of Lesbian Identities", in J. Shotter eta K.J. Gergen (arg. lit.) (1989), 82-98 orr, 1989.
- LAURETIS, Teresa de (arg. lit.): *Feminist Studies/Critical Studies*, Bloomington-Indiana, Indiana University Press, 1986.
- LAURETIS, Teresa de (arg. lit.): *Technologies of Gender*, Bloomington-Indiana, Indiana University Press, 1987.

- LAURETIS, Teresa de: "Triangeluaren esentzia edo esentzialismoaren arriskua aintzakotzat hartzea: teoria feminista Italian, EE.BB.etan eta Britainia Handian", in *Debate feminista*, 1990eko iraila, 77-115 orr, 1989.
- LIPOVETSKY, Gilles: *L'ère de vide (Essais sur l'individualisme contemporain)*, Paris, Gallimard, 1983.
- MAFFESOLI, Michel: *Au creux des apparences. Pour une éthiquethétique*, Paris, PLON, 1990.
- MOORE, Henrietta L.: *Antropologia eta feminismoa*, Madril, Cátedra, 1991.
- MORENO, Amparo: *Gizonezko arketipoa historiaren protagonista*, Bartzelona, La Sal, 2. arg., 1987.
- NICHOLSON, Linda J. (arg. lit.): *Feminism/Postmodernism*, New York-Londres, Routledge, 1990.
- PARKER, Ian; SHOTTER, John (arg. lit.): *Deconstructing Social Psychology*, Londres-New York, Routledge, 1990.
- POTTER eta WETHERELL: *Discourse and Social Psychology*, Sage, Londres, 1987.
- ROSE, Nikolas: *Governing the Soul. The Shaping of Private Self*, Londres, Routledge, 1990.
- SAMPSON, Edward E.: "The Deconstruction of the Self", in J. Shotter eta K.J. Gergen (arg.) (1989), 1-19 orr.
- SÁNCHEZ, Ana: "Maskulinitasuna diskurtso zientifikoan: alderdi epistemiko-logikoak", *Emakumeak eta gizartea*, Bartzelona, Bartzelonako Unibertsitatea, 1991.
- SHOTTER, John; GERGEN, Kenneth J.: *Text of Identity*, Londres, Sage, 1987.
- SQUIRE, Corinne: *Significant Differences. Feminism in Psychology*, New York, Routledge, 1989.
- STOLCKE, Verena: *The Individual between Culture and Nature*, argitara gabea, 1987.
- STOLCKE, Verena: "Sexua jeneroarentzat arraza etniarentzat bezala ote da?", in *Mientras tanto*, 48, Bartzelona, 1992.
- TUCKER, Marcia: "Mechanism of Exclusion and relation: Identity", *Discours, Conversations in Postmodern Art and Culture*, Masachusets, MIT eta NMCA, 1990.
- WALKERDINE, Valerie: "Beyond Developmentalism?", in *Theory & Psychology*, 3. liburukia 4.zk., 451-469 orr., Sage, 1993.
- WETHERELL, Margaret: "Linguistic Repertoires and Literary Criticism. New Directions for Social Psychology of Gender", *Feminist Social Psychology*, Open University Press, 77-95 orr, 1986.

MARÍA LUZ ESTEBAN GALARZA
E.H.U.ko Emakumearen
Azterlanen Institutuko Kide
ikertzailea

Txostenari

ihardespena

Jeneroen arteko desberdintasunaren gaiari hurbilduko natzaio baina ez Psikologia Sozialaren ikuspuntutik Antropologia Sozialaren aldetik baizik, emakumeen osasunarekin eta gorputzarekin zerikusia duten gaiak landu ondotik. Oro har, bat nator Teresa Cabrujak bere txostenean planteatutako analisi eta tesiarekin. Beraz, zenbait ñabardura sartzera eta haren artikuluko edukin konkretu batzuei buruzko galdera batzuk aurkeztera mugatuko naiz, zertxobait aurreratzeko asmoz.

Ados nago berarekin, mundua ulertu eta adierazteko darabiltzagun tresnak eta kategoriak eraikin sozialak direla esatean. Zientzia Modernoa, Zientzia Positibista, ez da neutroa eta ez dago baloreetatik libre, eta horri datxekion kontzeptu guztiak, hala nola subjektuaren eta objektuaren banakuntza, edo gorputza-adimenarena, objektibitatea eta subjektibitatea, loturik daude eta gainera gizarte mota berariazko bat erreproduzitzeko laguntzen dute, interes politiko eta ekonomiko jakin batzuen zerbitzura.

Horrela, gaineratzen du Cabrujak, Modernitatearen ideologiarekin jeneroen arteko banaketa tajutu da, objektibitatearen eta subjektibitatearen arteko banaketaren bidez eta naturaliza eta kulturaren arteko zatiketa dela medio.

Nik neure aldetik seinalatuko nuke emakumeak eta beste talde sozialak diskriminatzeko zientziaren esparrutik erabili diren estrategien artean bi direla inportantzia berezia dutenak:

- Gizakia bi sexu biologikotan banatu eta antolatzea: maskulinoa eta femeninoa, nahiz ete hainbat subjektu ez batera eta ez bestera zehazki adskribatzen ez diren. XVIII. mendeaz geroztik eraiki zen "sexu" kategoria, Laqueur (1991) bezalako egileek frogatu duten bezala, izan ere, lehenago gorputz maskulinoaren eta femeninoaren arteko bereizketak ez zuen bi sexuen esistentzia inplikatzeko. Gainera, azken bi mendeotan gizonen eta emakumeen arteko hierarkizaziotik erabateko bereizketa egitera igaro gara: gaur egun, esparru zientifikoan ia inork ere ez du onartzen gizona emakumea baino gehiago dela, emakumea eta gizona ezberdinak direla baizik, eta gizona dela berebiziko eredu, erreferentziako eredu, Cabrujak Psikologiaren eremuan ere frogatzen duen bezala. Laqueurrek, bere azterlanean, frogatzen digu hierarkizazio-ez hori, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko bereizketa ez bezala, ezin dela ulertu emakumeentzako diskriminazio txikiagoa bailitzan, aitzitik baizik, horrek erakusten digu zientzia arloko paradigma batzuk mendebaldeko gizartearen aldaketa politikoetara egokituz joan direla¹.

¹ Lehengo mendeetan azpimarratu egiten zen emakumearen gorputzaren gutxiagotasuna eta gaur egun horren ikuspegi patologizatzailea gainditu da eta horrek azkenean delako gutxiagotasuna areagotu besterik ez du egiten (Esteban, 1993).

• Bigarren estrategia, aurrekoarekin lotzen dena, Biologia erabiltzea da gizakien arteko bereiztasuna eta bereizkeria legitimatzeko, haien arteko aldeak "berezkotzat" jotzeko, ez bakarrik sexu/jenero erlazioari dagokionez, bai eta arraza/etnia eta bestelako erlazioei ere. Gaur egun neurritz kanpo ari dira jenetika erabiltzen jokabide eta arazo sozial batzuk esplikatzen, besteak beste delitutzat hartzen diren aktibitateak, alkoholismoa, aukera sozial homosexuala eta lesbiana... horiek egitate sozialen irakurketa biologistak dira, ezkutuan giza kolektibo zenbait laidotzeko erabiltzen direnak.

Kontraesan baten aurrean gaude, beraz, mendebaldeko gizarte moderno honen oinarrian tranpa bat dago, alde batetik gizabanako libre, autonomo, aukera berdinak dituztenez osatutako gizartea aldarrikatzen da... eta ideia hori egokitu nahi da (bere hortan kontraesan-korra bada ere) subjektuen arteko "berezko" bereiztasunak azpimarratzearekin, eta horretarako kategoria biologikoak erabiltzen dira, azkenean hierarkizaziorako bide ematen digutenak (Stolcke, 19??). Nahitaezkoa da dinamika sozial hori ikustea, izan ere, ustez eta aurrerakoiak eta feministak diren ingurunetan ere oharkabean kategoria horiek indartzen segitzen baitugu, ezbaian jarri gabe eta horien dimentsio soziala ezin ulertuz. Sexu/jenero bereizkeria hori hausteko modu bat litzateke, adibidez, gizonen eta emakumeen berdintasunak eta gizabanakoen bereiztasunak lantzea.

Illo beretik, bat nator txostenean azaldu kritikarekin, hots, jenero diferentziak sexu bereiztasunera mugatzearekin, eta jenero diferentziak gauzaki bihurtzearekin. Medikuntzaren arloan, jarrera horren bitartez gizonen eta emakumeen arteko berdintasunak ezkutatu egiten dira, eta hori froga daiteke menopausiarekin zerikusia duten arazo kasuan edota patologia kardiobaskularrean, non azken aldi honetan nabarmen agiri baita gizonen eta emakumeen artean ez dagoela inolako alderik, baizik eta arazoak adin ezberdinetan agertzen direla².

Guztientzako mundu zuzenago bat lortu nahi bada halaberrez aldatu beharra dago Biologiaren, Jenetikaren eta antzeko disziplinen eredu zientifikoak. Baina Gizarte Zientzietatik ere laguntza eman daiteke aldaketa horietarako, kontzeptu eta terminologia ezberdinei buruzko jarrera kritikoak izanik, polarizazio hori hautsi ahal izateko eta praktikan jarriz pentsamendu eskema berri bat. Horren arabera biologia ez da "destinoa" izango, eta, aurre-

² Menopausiaren kasuan, frogatu da, esate baterako hausturak gizonen eta emakumeen artean, bizitzan zehar kopuru bertsuan gertatzen direla (emakumeen artean hormonon defizita dela eta osteoporosiarekin lotzen badira ere) (Van Hall, 1993).

koari kontrajarri nahiz ez gara pentsatzera iritsiko gizakiok erabat eta guztiz izaki sozialak garela, zeinetan gorputza moldea baizik ez den, Lewontin, Rose eta Kaminek (1987) eta Goulddek (19??) azaldutako gogoeta eta proposamenen ildotik. Egile horiek determinismo biologikoaren kontra daude guztiz, baina biologiaren arloa beste modu batez hartzearen alde azaltzen dira, pertsona orok duen ahalmen eta gaitasun biologikoan oinarrituz.

Egilearentzat naturaleza/kultura dikotomia da garrantzizkoena eta hortik abiatuz ateratzen dira gainerako binomioak (arrazoia/emozioa, objektibitatea/subjektibitatea, etab.), eta horren arabera emakumeak naturalezari lotzen zaizkio eta gizonak kulturari, baina gizarte mota ezberdinetan eginiko lan antropologikoek esku eman digute frogatzeko pentsamendu eredu horiek ez direla unibertsalak. Azterlan horien emaitzak kontuan hartuko bagenu eta beste gizarte batzuen esperientziak aztertuz gero, aiseago ulertuko genuke geure mundu hau, eta dikotomizazio fenomeno hori desagertarazteko bide emango liguke. Azken finean, garrantzi handikoa zaigu bai errealitatearen kontestualizazio historikoen laguntza bai eta beste gizarteen azterketa ere, ez badugu giza esperientziaren irakurketa sobera murriz eta etnozentrikoa egin nahi.

Egileak "norberaren deseraikuntza" deitzen duenari buruzko ikuspegi postmodernoen eta teoria feministaren ekarpenari dagokionez erabat ados nago harekin Nia birplanteatzen duenean "Ni erlazio baten barnean" bezala. Planteamendu horrek gizabanakoaren kontzepzio pluralistagoa inplikatu du, eta hor ez da hain erraza gizabanakoa eta gizartea bereiztea. Argi dago indibidualitatearen birbaieztapen horrek baduela loturarik gizarte mota bat mantentzearekin, eredu politiko jakin batekin, zeinetan ezkututzen baitzaigu zenbait kontzeptu, hala nola gizabanakoa eta pertsona, gizarte mota bakoitzaren arabera direla. Hala ere, ados nago pribatu eta publikoaren banaketak duen garrantziaz idatzi denarekin, bai eta identitateak eraikin sozialtzat hartzeko premiarekin.

Agian, egileak ez du behar beste azpimarratzen, ene iritziz, jenero harremanak sortu eta iraunarazteko zer garrantzizkoak diren diskurtsoak eta pertsonak burutzen dituzten ihar-duera ezberdinak. Ez dela bakarrik, zer ere esaten den eta pentsatzen den, horren emaitza soila, baizik eta bereizkeriak baliabide edo euskarri materiala duela eta egunerokotasunarekin baduela zerikusirik. Beraz, desberdintasunezko harreman horiek aldarazteko, aldatu beharko dira aldi berean harremanok gertatzen diren tokiko zereginak eta egoera bera ere. Egilearentzat behar-beharrezkoa da dikotomiak haustea, ezabatzea.

Haatik, horrekin lotuta galdera bat egiten digu, interesgarria oso: zein puntutaraino bazter ditzakegu gaur eguneko kategoriak eta identitateak azkenean ezinezkoa baldin bada giza-

ki soil gisa bizitzea jenero bikoiztasunean eraikitako kultura batean? Baina, zinez ezinezkoa al da gizarte honetan gizaki soil gisa bizitzea? Eta bigarren galdera, aurrekoarekin erlazionatua: gizon eta emakume diferente eta are kontraerriak izaten eta bizitzen jarraitzeak, nahitaez dakarkigu talde baten bestearekiko hierarkizazioa?

Gai horri buruz neure gogoeta adierazi nahi nuke, duela gutxi gorputzaren, identitatearen eta sexualitatearen bizipenean gertatzen diren aldaketei eta elkarren arteko erlazioei buruz hasi dudan ikerketa abiapuntutzat hartuz. Bertan frogatu nahi dut, adibidez, boterea emakumeekin banatzen saiatzen diren gizonek (esan nahi dut beren haurren arduraren hartzen duten gurasoak, gizon "kontzientziatuak", etab.) zein neurritan aldatzen edo/eta neutralizatzen duten beren identitatea gisaseme bezala. Nire abiapuntuzko hipotesia da horientzat boterea banatzea neutralizatzea dela, dikotomiaren bizipena haustea. Emaitzak azaltzeko goizegi bada ere, nire ustez hipotesi hau ezin izango da frogatu, zeren eta praktikan talde horiek boterea banatzearen eta emakumeen eskubide berdintasunaren aldeko birsozializazio prozesu batean egoteaz gain, beren gizasemetasuna indartzen segitzen dute, emakumetasunetik arras diferentziatua. Horrekin guztiarekin zalantzak ditut ea identitateen ezabaketa hori, postmodernoek hainbeste aipatzen dutena, benetan ez ote den identitateen berregituratze prozesu bat baizik. Gerta daiteke bereizkeria ezabatzearen sorburua dikotomien hausturatik bakarrik ez etortzea?

Bestalde, "emakume" kategoria hautsi edo desagiteko premia gero eta handiagoa dela dirudi, eta horrela barneratu du mugimendu feminista osoak.

Alabaina, hori horrela bada ere, praktikan emakumeak elementu berdinez osatutako multzo bat bezala hartzen dira, batez ere kategoria haustea dakarren zailtasunagatik beragatik³. Nolanahi dela ere, "emakume" kategoria deseraikitzeak zeharo baztertzea esan nahiko du?, eta esate baterako, emakumeengan soilik zentratutako azterlanak ezin izango dira egin? Ala, besterik gabe, balio digu askoz zorrotzago ibiltzeko kategoria hori erabiltzerakoan? Zernahi gisaz, noraino heltzen dira unibertsalak eta noraino bereiztasunak, ezberdintasuna?

Galdera havei buruzko nire jarrera honako hau da, alegia, teoria postmoderno batzuen aportazioak onartzen ditudan arren, partikularizatzeko eta kontestualizatzeko premia, egia handiez eta diskurtso bakarrez ez hitzegiteko beharraz, oraindik ere ez ditugula agor-

³ Deseraikitze kontzeptua bera ere ez da beti, ene iritziz behar bezain argi gelditzen eta hori, jakina ez da lagungarri izaten azaltzen diren problema metodologikoei aterabideak bilatzeko.

tu Modernitateak gure onerako eskaintzen dizkigun aukera guztiak. Horrezaz gainera, positibotzat jotzen dut emakumeen esperientziaren zenbait alderdi unibertsalizatzen segitzea, eta horrek ez du esan nahi haien arteko bereiztasunak errespetatzen ez direnik. Ene iduriko bi dira eutsi daitezkeen unibertsalak: 1) emakumeak, talde gisa, Botere Publikotik landa kokatzen direla; 2) emakumeak besteekin alderatuta definitzen direla oraindik ere, zeregin garrantzitsuentzat besteenganako dedikazioa egozten zaielarik. Bi egoera horien aurka ahalegindu behar dira emakume guztiak, nahiz eta bakoitzak bere egoera sozial, ekonomiko eta are pertsonalean soluzio ezberdinak aurkituko dituen.

Emakume guztiak ezin dute ordezkapen berbera izan, teoria feministak ezin du helburu hori izan. Bestalde, ezinbesteko arrazoi batengatik: gu geu ere, feminista, ikerle edo ekintzaile garen aldetik, dauzkagun ezaurarriek mugatzen gaituzte: klase soziala, etnia, aukera sexuala... eta eragin hori ez dugu beti behar bezala kontuan hartzen. Dena den, bat nator Celia Amorósekin esaten duenean unibertsalizatu ezin daitekeena ez dela erreibindikagarria. Azkenik, seinalatu nahi nuke zenbait teoria eta kategoria deseraikitzeak alde aurretiko edo batera doan ideia batekin baduela zerikusia, hots, zernolako mundua bilatzen ari garen jakitearekin. Nolakoa litzateke "utopiazko mundu hori", sexuaren eta jeneroaren bereizkeriarik, ez ela beste eratakorik, egongo ez litzatekeen mundu hori? Bada, nora joan nahi dugun halakoa izango da bidea ere. Ez dut esan nahi gizarte baten ezaugarriak zehazki ezagutzea ezinbestekoa denik, bai ordea, zentzu horretan akordio batzuk lortzeak bide eman diezagukeela geure ekintzak eta geure ikerketak hobeki bidera ditzagun.

Horren abstraktua den helburu batekin, hau da, emakumeenganako bereizkeria bukatzearekin, bat etortzeak ez du esan nahi, nahitanahiez enparauko gaietan ados egon behar dugunik. Gogoan hartu behar da, bestalde, ez dagoela feminismo bakar bat, korrente ezberdinak daudela, demagun berdintasunarena eta bereiztasunarena. Batzuentzat, behar bada, ez du hainbeste garrantzirik izango etorkizuneko gizartea gizaki soilez osatua egoteak, ez emakume eta gizasemez (nire kasuan), baina beste pertsona batzuentzat funtsezko arazoa izan daiteke. Edozein modutan ere, ematen du beharrezkoa izango dela eztabaidan aurrerantz egitea eta nolabaiteko adostasun maila bilatzen ahalegintzea.

Bibliografia

- ESTEBAN, M.L.: *Emakumeen jarrerak eta somaketak ugaltze eta sexu arloko osasunari buruz*. Doktoretza tesia, Bartzelonako Unibertsitatea, 1993 (arg. gabea)
- GOULD, S.J.: "Similarities between the Sexes". *The New York Times Book Review*, 7. or.
- LAQUEUR, T.: *Making, Sex: Body and Gender from the Greeks to Freud*, Harvard University Press, 1991.
- LEWONTIN, Rose; KAMIN: *Ez dago onenetan*, Madril, Grijalbo 1987.
- STOLCKE, V.: "Sexua jeneroarentzat arraza etniarentzat bezala ote da? *Mientras Tanto*, 48. zk. 87-111 orr., 1992.
- VAN HALL, V.: Mahaingurua. Workshop, *Emakumea, Osasuna eta Lana*, Bartzelona, 1993ko azaroak 12.

TERESA CABRUJA I UBACH
Psikologia Sozialeko Irakaslea.
Gironako Unibertsitatea

Azken

berrikuspena

Lehenik eta behin, eta ihardunaldietan barna gertatu zen bezala, nire esker ona azaldu nahi diot Mari Luz Estebani bere iruzkinengatik, izan ere, berak adierazi zuen bezala, guztiz bat datoz nik neure txostenean planteatutako tesiekin. Are gehiago, egiten duen azpimarratze hori bi sexuen arteko biologizazioan eta banakuntzan eta medikuntzako adibideak arras adierazgarriak dira eta hori baizik ez balitz ere aportazio aski interesgarria litzateke argi uzteko zernolako eragina duten zientzia biologikoek horrela –modu hain sinesgarrian– legitimatzeko gizakien arteko diferentzien “berezkotasuna” (Stölcke 1992), edonolakoak di-relarik ere alde horiek.

Horregatik gauza gutxi gaineratzen ahal diot Mari Luz Estebanen aportazioari, izan ere, harren zalantzak, nolaerebait esatearren nireak ere bai baitira. Dena den, nire ustez erreibindikagarri izan daitezke gai unibertsaliza-ezinak, baldin eta bakoitza bere enunziazioaren testuinguruan kokatua badago.

Bestalde, diskurtsoaz egin dudana azpimarratzeari dagokionez, ados egongo ginateke esatean bereizkeriak ez direla diskurtsoaren bidez soilik desegiten. Horiek, noski, gizartearen instituzio eta egituren eguneroko praktketan dute sustraia, bai eta egunerokotasunean. Niretzat diskurtsoen gaineko gogoeta batek ekar lezakeena izango litzateke pentsatzea alde batetik nola eraikitzen gaituzten ezagupen praktiken edo jakite/botere bikotearen bidez –Foucault jarraikiz, lehen azaldu dudana legez–, eta beste alde batetik, aldagai praktikoa-go baten bitartez, jakitea diskurtsoetan subjektiboki eta intersubjektiboki nola eraikitzen diren nortasunak, jenero harremanak edo edozein arrazoi dela-eta: “arraza”, etnia, kultura, hizkuntza... talde desberdinen arteko harremanak. Katetoria guzti horiek diskurtso bidez eraikiak dira, modu askotan, ideologia konkretuen emaitza gisa, beraz arazo ideologiko gisa, zeinetan modu sotil eta aldakorrez batzuen eta besteen arteko zatiketak (bir)sortzen baitira, desberdintasunaren adierazle eta legitimatzaile diren zatiketak.

Beste alde batetik, razionaltasun zientifikoaren baloreen gainean, gaineratu nahi nuke zientzia gidatzen duten baloreen eta ideologiaren ustezko neutraltasuna zalantzan jartzearekin nabarmen gelditzen direla, are gehiago, hautatutako gaietan eta, bereziki, hautatu ez direnetan arreta jarriz gero, eta gai horiek berak nola jorratzen diren –nolako hurbilketa egiten zaien– ikusirik. Horrela uler daiteke mendebaldeko pentsakera modernoko polaritatearen izaera ideologikoa, dikotomietan eratzen dena: razionaltasuna/emotibitate, objektiboa/subjektiboa, kultura/natureza, publikoa/pribatua, maskulinoa/femeninoa, etab... Kontrajarpen horien lehenbiziko elementua subjektibitate maskulinoarekin

lotu ohi da, "arautzat" hartzen dena, eta eredu horretatik aldentzen dena baztertu/be-reizi/alboratu egiten da.

Ez naiz berriro hasiko gai horrekin, baina gustatuko litzaidake txostenean behar bada argie-gi azaldu ez nuen alderdi bat aipatzea hemen, feminista batzuek "zientzia egiteko" modu tra-dizionalari kontrajartzen zaion "zientziaren ikuspegi feminista" deitzen dutena, alegia. Apor-tazio horien barnean jarrera ezberdinak badaude ere feminismoaren eta zientziaren harreman epistemologikoei buruz, batzuek proposatzen dute "emakumeek aztertzeo gaiekin ezartzen dituzten erlazioak "mutaziozkoak" direla dominazio/menpekotasunezkoak baino gehiago". (Sánchez 1991. 173 or.).

Egile horrek dioenez horrekin ez du esan nahi "ezaugarri horiek inolako balore espezifiko eta berezko edo esentzialei zor zaizkiela". Itxurazko kontraesan hori argitzen da "zientzia interaktiboaren" ideia bitartez (Fox-Kellerrek proposatu bezala, 1982) edo "konplexuta-sunaren epistemologiaren" bidez (Sánchez 1991). Horiek metodo batzuk eskurazten diz-kigute anbiguatearekin eta zehazgabetasunarekin lan egiteko baliagarri direnak. Erla-ziozko lan mota hori emakumeek zein gizasemeek burutu dezakete, zientzia positibistaren arloan nagusi den paradigmarekin gertatzen denaren antzera, zein emakumeen nahiz gi-zonen esku egon baitaiteke –eta horrela gertatzen da errealtatean–. Honako hau "irtenbi-de" bat izan badaiteke ere "emakume izateari" edo "gizon izateari" esleitu zaizkien esent-zialismo biologikoentzat, agian Fox-Kellerrek, nire ustez, segitzen du –esentzializatu gabe baina– zatiketa honekin: subjektibitate maskulinoa/subjektibitate femeninoa, egile berak so-zializazio prozesuan oinarritzen duena.

Txostenaren ondoko eztabaidan bi gai bederen agertu dira planteatutakoen artean: bata da zein praktika feminista burutzen ahal den eta nolatan, eta bestea, zernolako zailtasunak dau-den oinarritzko kategoriak, zeinen bidez gaurdaino geure burua definitu baitugu, alde ba-tera uzteko. Zentzu horretan problematikotzat jotzen da "berariaz femeninoa" dena errei-bindikatzerakoan, eta orobat emakumeen taldea zehazterakoan. Hala ere, esperientzia konkretuak agertu ziren, esate baterako, gizonak talde feministetan sartzea helburu zutena, edo emakumeei, bereziki amatasunari dagokionean, ezartzen zaien esentzializazioa haus-tearena.

Eztabaidan atera ziren planteamenduak tailerretan eginiko talde lanetan bildu ziren, eta ho-rregatik hain zuzen, aipatuko dut zein zen tailerraren helburua, edukia eta, ahal den neu-rrian eta ene ikuspuntutik a posteriori sortu zen dinamika komentatuko dut. Dena den, hemen beharrezkoak izango lirarteke partaideen aportazioak.

Txostenean azaldutakoari bagagozkio, azpimarratu egin da baloreak eta printzipioz ezberdinak diren bi esparru erlazionatzea: nortasunarena eta ezagupena eraikitzearena. Hau da: 1) Alde batetik, zein balore bultzatzen diren eta zein ezabatzen, sistemarentzat beharrezkoak diren subjektibitateak eraikitzeko; eta 2) Bestetik, zein balorek eraikitzen duten zientzia, berau subjektibitate maskulinoarekin duen loturagatik neutroa eta "baloreetatik aske" agertzeko. Alderdi biak mendebaldeko gizartean nagusi diren jenero/sexu harremanen arabera. (Hala eta guztiz ere, geroztiz azaltzen denez, guztiz estriaezinak dira, dituzten baldintzapen sozio-historikoak direla medio, zeinen bitartez, eta eratutako gizartea bere horretan mantendu beharrez, disziplina batzuk sortzen ahal diren premiazkoa den subjektu mota identifikatu, kalkulatu, tajutu eta kontrolatu ahal izateko).

Horrela, bada, tailerrera lan materialtzat proposatu nuen bi kasuotarako adierazgarri ziratekeen adibideen bilduma bat, ondoren zehaztu bezala:

A)

RAZIONALTASUN ZIENTIFIKOAREN BALOREAK

Tailerraren helburuetariko bat zen zenbait gai biltzea, jenero eta baloreen arteko harremanei buruzko txostenean aurkeztutako alderdi ezberdinak argitzearren. Kasu horretan, zientziaren baloreei eta jenero/sexu harremanei dagokienean, helburua zen alderdi nagusi hau seinalatzea:

Nola eraikitzen ahal dira ezagupen "zientifiko", "objektibo", etab-etik abiatuta subjektibitate maskulinoa eta femeninoa, halako moldez, ezen bata "bestelako" gisa eraten baita "arauarekin" alderatuta: esan beharrik ez dago, femeninoa maskulinoarekin alderatuta, guztiok ezagutzen ditugun ezaugarriekin: emozionalitatea, irreflexioa, menpekotasuna, etab... Horretarako aukeratu nuen, hain justu, psikologiazko lan bat, harreman pertsonalei buruzkoa, eta bereziki, "zeloak" direla-eta gizonen eta emakumeen artean zer desberdintasunak izaten diren azaltzen zuena¹. Kasu honetan ezagutzera ematen du gizonen eta emakumeen "psikologia" (?), eta nola betirakotzen diren jeneroen eta sexu/jenero sistemaren eraikin eta harreman klasikoak.

¹ Ez zait egokia iruditzen lan hori aipatzea gure xedea ez baita ikerle konkretu batzuei buruzko kritika egitea eta hautatu nituen adibideak "zientzia egiteko modu konkretu bati" dagozkio.

B)

**MASKULINOTASUN ETA
FEMENINOTASUNAREN
SUBJEKTIBIZAZIOARI DAGOZKION
BALOREAK: HARREMAN
PUBLIKO-PRIBATUAK**

Kontuan hartu beharreko beste alderdia, tailerlean proposatu nuena, txostenean azaldutakoa argitzeagatik baino gehiago, arlo publiko eta pribatuaren gaia jorratzeko zuen interesagatik eta horren "itxurazko" gainditze hori, bai eta subjektibitate ezberdinak nola sortzen ari diren ere salatzeagatik izan zen: maskulinoa eta femeninoa, mass-mediaetan eta egunkari nahiz aldizkarietako iragarkietan. Nire helburua zen tailerlean gertatutako eztabaida eta gogoetaren bitartez sor zitezkeen adierazpen eta interpretazioak denok batera lantzea. Horregatik hainbat egunkarik: "El País", "La Vanguardia" eta "El Periódico", igandeetan ateratzen dituzten eraskinetako iragarkiak hautatu nituen, bai eta telebista-kate batzuen emaldietan agertzen diren iragarkiak ere.

Denbora faltagatik azkenean tailerra izena emandako guztien artean egin zen, eta horregatik lehenbiziko gaia aurkeztu besterik ez zen egin eta, funtsean, denbora gehiena arlo publikoari eta arlo pribatuari zegokiena aztertzen eta eztabaidatzen eman genuen, une honetan nola eratzen diren eta zein diren horren ondorioak, eta bereziki sexu/jenero harremanak eta sustatutako baloreak azpimarratu ziren.

REGINA BAYO-BORRÁS FALCÓN
Cornelláko Adimenaren
Higienerako Zentroko Psikologo
psikoanalista eta Bartzelonako
haur eta nerabeekiko Klinika
Psikoanalitikoaren Eskolako
Irakaslea

Balorea eta

jeneroa:

ikuspegi

psikoanalitiko

bat

Jenero eta Balore hitzak eta kontzeptuak ausarki aztertu dira beste disziplina batzuetan. Horien eremua ikerketa soziologiko, politiko, ekonomiko edo etiko-filosofikoarena da batik bat. Baina, zein litzateke irakurketa psikoanalitikoaren ikuspegia, ikusmoldea? Ondoko orrialdeetan ohar hauek azaltzen saiatuko gara.

Aurrena, kontuan izatea inkontzienteak gizakian duen dimentsioa, beraz, gizadian. Sigmund Freud buru belarri aritu zen ikertzen mendebaldeko gizarte judu-kristauaren eta gizabanakoen ezaugarri eta dinamika barnekoak. Joan den mendeko azken aldera, pentsalari unibertsal hark beste arlo batzuk jorratu zituen, ametsak, sexualitatea, ondoez indibiduala eta kolektiboa, gerra eta kultura. Era berean klinikan aplikatzeko metodo bat asmatu zuen subjektuaren afekzio psikikoak ulertzeko eta hari laguntzeko. Haren aportazioak gaur egun ere ezinbestekoak dira "bistakoan dagoena baino haruntzagokoa" erdiesteko, gizonen eta emakumeen arteko bateratze eta banatze dinamikari dagokion esparru horretan dagoena. Horrela, bada, Freudengandik hasita, guztiontzat, emakumea nahiz gizona, haurra, nerabea nahiz nagusia, ezezaguna zen "bestelako eremuaren" ikuspegia sortu zen. Psikoanalisiarentzat gizabanakoa subjektu psikiko bihurtzen da, inkontzientearen, mintzairaren eta ordenamendu sinboliko sozialaren legeei atxikia. Bakoitzaren dinamika inkontzientean bada sartzerik, adierazpen kontzienteak, ametsak, egintza hutseginak, sintomak eta transferentziak aztertuz gero. Beraz, jenero jakin batekotzat bere burua eman aurretik gizakia subjektu psikiko gisa eratzen da, jarrera bisexualean, eta hortik emakume edo gizon bihurtuko da, ezaugarri maskulino nahiz femeninoekin.

Bigarrenik, ezin dugu psikoanaliaren aldetik jeneroaren nozioa femeninora soilik mugatu, erreduktionismo beragatik Gizona, oro har, gizakia adierazteko erabiltzen baita. Halaberean, ezin diogu jeneroa "emakumeari" soilik aplikatu, izan ere, etengabe ari gara ikusten nola femeninitasuna sexu bietan gertatzen den, gizonetan eta emakumeetan, eta era berean baita maskulinitasuna ere. Emakumeari eta femeninoari ezin dakiok ezpada gizonarekin eta maskulinoarekin erlazionatuta, "gizakia" ez bezalako dimentsioak baitira. Orduan, bada, jeneroak gizon/emakume subjektuen predikatu ezberdinak adierazten ditu: maskulinoa/femeninoa.

Hirugarrenik, sexu bietako predikatu hau –jeneroa–, tindatua agertzen zaigu, badituelako ezaugarriak, bereizgarriak, atributuak, irudiak, jazkiak, makilajeak, eta are disfrazak ere. Indarrean segitzen duen eztabaida da ea aktibitatea maskulinitasunarekin lotzen ahal den

eta pasibitatea femenotasunarekin, baina nire ustez bi kalifikazio horien konplexotasuna mozturik gera daiteke erreduzionismo horren bitartez. Aktibitate handia izan dezake jarrera femenino batek eta alderantziz, egundoko pasibotasuna jarrera maskulino batek.

Beraz, subjektu psikiko bakoitzak izan nahi duen dimentsio inkontzientea izango da, inondik ere, berak burutzen dituen aktibitateei ematen dien "balorea" itxuratuko duena –estimua–, bai eta bere inguruko pertsoneri ere –objektuei–. Baina hori burutuko du berak bere gurasoentzako suposatu duen "balorean" –narzisstiko eta libidinalean– oinarrituta, orain identifikazioen bitartez bere baitan bizi duen horretan. Azken finean, nire ekarpena da planteatzea subjektu bakoitzak balore bat duela besteentzat, eta berdin dio horiek zer diren, guraso, seme-alaba, bikote, sozio, etab., eta balorea izateaz gainera subjektuak bere buruari galdetzen dio etengabe: zer balio dut nik besteentzat?

Balorearen gaiari heltzen diot hemen batbederak mundu honetan duen singulartasunetik hartuta, eta beraz, bakoitzaren gurasoek izan nahi duten egituraren aldetik. Horretarako Ni Ideala eta Niaren Ideala nola formatzen den azaltzen saiatuko naiz. Atal honetan planteatu dezakegu zer esan nahi duen "eme" baten jaiotzak eta bere horretan zernolako Ni Ideal eratzen ahal duen familia batean, non adibidez Niaren Ideala maskulinoaren "balorazioarekin" lotzen baita; edo alderantziz, gizonezkoaren jaiotza femenotasunarekiko gurasoen nahiaren irudikapen "baloratzaila" baita –gurasoen inkontzientean eta haien ideal aurrekontziente/kontzienteetan oinarrituta–.

Baina aurreko galdera hark, "zer balio dut nik besteentzat?", badu eraginik gizartearen balore mailaketan. Nola isladatzen da hori? Bakoitzaren berarizkotasunak badu benetako eraginik –edo irudipeneko nahiz sinbolikorik– fenomeno sozial orokorrak produzitzeko? Hauek bestalde, bakoitzak dituen intersubjektibotasunaren ezaugarriak edo seinaleak atzera-elikatzeko al dituzte? Hemendik aurrera segituko dut baloreen gaiarekin, baina intersubjektibotasuna gizartearekin loturik, hau da, sozialtasunaren adierazpenek nola "espikatzen" –edukiz betetzen– dituzten "maskulino" eta "femenino" bezala ulertzen duguna, eta zer maila ematen dien baloratzeari. Horretarako inkesta batez baliatu naiz, nazio osoan zabaltzen den egunkari batean argitaratua, eta aitzakitza hartzen dut direlako baloreak eztabaidara ateratzeko eta ikusteko nola artikulatzen ahal diren bi jeneroen nozio arketipikoarekin.

Eztabaidarako gaiak:

- Jeneroaren ezaugarriak –arketipoak, atributuak, kalifikatiboak– nola edo hala subjektuaren Ni Idealean / Niaren Idealean sartzen direnentz.

-
- Jarrera femeninoko emakumezko subjektu baten aktibitate/pasibitate handiagoa, bere nahiaren aurrean eta bestearen nahiaren aurrean, bere barneko koordenada psikikoei zor zaienentz, edo aitzitik, hezkuntza arloko etengabeko errepikatzearen bitartez, nagusi diren eredu kulturelek eragindakoei. (Gauza bera gertatuko da gizonezkoaren kasuan).
 - Bakoitzaren aktibo/pasibotasunean ere zerikusia izango du gurasoentzat izan duen esanahi libidinal eta narzisstaren arabera, baina batez ere amarentzat. Oinarri psikiko horiei jarraikiz izan da subjektu bakoitza "baloratua" –estimatu– eta berak bere burua "baloratu" –estimatu– ahalko du.

Jasotzen duen balorazioak eta berak bere buruari eman diezaiokeen balorazioak eraginik izango du sozialki baloratzen den toki bat erdiesteko gaitasuna eta aukerak lortzeko. Hemen berean agertzen zaigu arazo nagusienetako bat, mintegi honetan garatu ezin izango bada ere, zera, ama diren emakumeek beren alabengandik jasotzen duten balorazioa, alabek amangandik eta familiako emazteki guztiengandik. (1. oharra)

Sozialtasuna subjektu psikikoaren egituraketan

Psikoanalisi, prozesu inkontzienteak ikertzeko metodo gisa, buru-belarri murgildu zen sintoma neurotikoak eta ametsen egitura inkontzientea ulertu nahian ezezik baita, eta batez ere, gizakiaren alderdi ilunenetan sakondu guran ere, haren esentzia, gunea, "egia" eratzten duen horretan. Eta horrekin batera subjektu bakoitza itxuratzen duen bakoiztasun eta singularitasun hori aurkitzearen alde postura egin zuen: nortasunaren egitura berezia eta desio inkontzientearen dinamika, zein baita norberak bere burua aurkitu nahian burutzen dituen alferrikako ahaleginen iturria.

Ez da erraza izaten psikoanaliaren subjektua edo psikoanaliarentzako subjektua beste disziplinetako subjektu berariazkoak bereiztea, izan ere Freuden ondorengo garapen teorioak ere ezagunak baitira, besteak beste, gai horri buruz erakusten dituzten desadostasun ugariengatik.

Freuden ikuspegi psikoanalitikoaren ildotik arituko naiz, zeinetan umearen haurtzaroak neurri historikoa hartzen baitu –momentu funtsezkoa den zentzuan, oinarriak finkatzen direnekoa–. Bizitzaren aro horretan eratzen da subjektu psikiko bakoitza. Lehenbiziko aro hori, sortzetik nerabazaroraino, ez da bakar-bakarrik bilakaera bat, haurraren garapen fisikoa eta libidinala fasez fase edo etapaz etapa burutzen denekoa –egoera ezberdinak iraganez, hala nola aldaketak, hausturak, egokitzapenak, aurrerapen eta atzerapenak–, eta ezta eten-gabe mugitzen den uhin pulsional bat ere, lokabea, zatikatua eta partziala. Haurraren esentzia/egitura den hori beste koordenada psikiko eta sozialen mende dago, aurkezpenen azaldu dudan bezala.

Zer dago jokoan haurtzaroan? Zer eraikitzen/eratzen da aro horretan?

Aldi horretan, eta gorabehera franko izaten delarik, gizakiaren funtsezko koordenada psikikoak eraikitzen dira –haren identifikazioak–. Nortasunaren sarea edo egitura aldiro-aldiri joango da gorpuzten, haur subjektuaren aurretik zegoen egitura desiratzaileren arabera. Egitura hori askoz ere lehenagotik sortua da, izan ere jaiotza biologikoaren aitzinetik baitzegoen, gurasoen nahiaren egituraz ari naiz eta horren egituratze identifikatzaileaz.

Ezinezkoa da kontuan ez izatea haurrak aurkituko duen ingurunea, familia, gizartea eta kultura. Ez eta gurasoen diskurtso desiratzaille eta adierazlea ere, haurraren babesa izango dena. Onarpen edo erdeinuaren ondorioz izena emango zaio –berea– eta toki bat –sinbolikoa– edipikoki egituratzen den belaunaldi-katean; horren ondorioz gurasoekiko modu ba-

teko edo besteko harremanak. Gurasoak, bestalde, historia bereizi batean daude murgilduak, familiaren egituraren zati bat dira, eta beren puska jartzen dute talde sozial baten idealak eraikitzeko zeregin horretan.

Freudek bere obran zehar frogatzen du gizakia mota ezberdineko prozesu identifikatzailei esker eratzen dela, egituratze psikikoaren prozesu hori lortzen ahal dela gurasoen objektuekiko erlazio libidinalak barneratzearen poderioz, eta lotura sozialak ezarriz. Testuinguru horretan, subjektuaren dinamika psikiko inkontzientea eratzen da indar kontrajarrien arteko gatazka menera-ezinen bitartez; sexualitatea eta errepresioa; kontrako irriken arteko borroka; eta apeta kontrajarrien arteko gatazka. Guztiarekin ere, Freudek baieztatzen du psikologia indibidual oro, aldi berean eta zentzu zabalean, psikologia soziala dela, zeren eta gizakiak ezin baititu "bestearekiko" harremanak ekidin, dela eredu gisa, objektu, laguntzaile nahiz arerio gisa. (Hemen gelditzera gizonak eta emakumeak dimentsio erlazional banatan kokatu beharko genituzke, bai eta haien ezaugarri diferentzial eta ezkutuko gatazkak ere).

Subjektuaren historia haren identifikazioen historia bera da, eta hauek bere alde, lokarri guztien gorabeherak adierazten dituzte. Beraz, subjektu psikikoa eta soziala, bata bestea-rengandik sortzen dira. Baina ez dago haien artean alde zuzeneko ezarritako harmoniarik, justu alderantziz baizik, gatazka da nagusi eta gainera ondoeza eta tentsioa. (2. oharra) Gizakia subjektu psikiko bihurtu daiteke, eta hortaz, gizarte bateko kide, baldin eta arau sozialak barneratzen baditu, eta zailtasunik gabe sartuko da sinbolikotasunaren, kulturaren eta mintzairaren erregistroan. Horrela haur orok pairatzen du bizi duen gizartearen eragina, bertako kulturarena eta hura antolatzen duten arauena, eta horren guztiaren kontra hil edo biziko aukera bat besterik ez dauka: guztiaren menpe jarri edo eritasun fisiko nahiz psiki-koan ito. (Hemen gaia era zabalagoan jorra genezake emakumeek kultura arloan jasaten duten egonezina seinalatuz, sintoma "femeninoen" ekoizle gisa).

Ikus dezagun orain nola eta non eratzen eta azaltzen den gizakia bere desiraren arabera. Lehenbiziko harremanak amarekin edo haren ordezkorekin izaten dira. Horren poderioz, haurra libidinizatuz eta narziszizatuz joango da, kontuan izanik haurra amarentzat duen garrantzi sinbolikoa eta emozionala, bai eta umearen sexu biologikoa. Gurasoak, bata zein bestea, eredu identifikatzaile gisa agertuko zaizkio haurrari, identifikatuko dute jenero eta sexu batekin, bat badatoz nahiz ez badatoz. Horretan errotuko da haurrak gurasoekin identifikatzeko jarrera, eta orobat norberaren egitura identifikagarria eratzekoa.

Itxura, markak, seinaleak, ezaugarriak eta tasun identifikagarriak munta handiko alderdiak dira subjektu psikikoa eratzean, jaio berritan izaten den heldutasun biologikorik eza dela medio. Animalia lurtarren artean sortzez goiztiarra da, koordinazio motrizik gabekoa, nerbio-sistema fetalizazio aldi duena, eta horrexegatik aldi luze batez besteekiko menpekotasun osoan egon beharrekoa. Nagusiek elikatzen dute, zaintzen eta ematen dizkiote biziraupen fisikorako beharrezkoak diren gai guztiak ezezik baita bestelakoak ere, h.d., libidinalak, narzisistak eta kulturalak, zeinen bidez subjektu bihurtuko baita, bere buruaz irudi bateratu bat lortu arte.

Subjektuaren marka da, beraz, hasieran ezdeusa izatea. Baina ez da horratio ondoratzen, zeren, arestian esan dugun bezala, bera sortu aitzineko matrize sinbolikoa den mundu batera iristen delako eta mundu horrek bere baitan hartzen duelako. Matrize sinboliko hau kulturaren eta gizartearen azaltzen da mintzairaren bidez, antolakuntza juridiko-sozialaren eta familiararen bidez, eta azken honetan, senidetasun legeen bitartez.

Familiak mamitzen du egitura sinboliko hori eta baloreen, idealen eta ideologiaren igorle bihurtzen da. Familian berean bikotea bihurtzen da eskenategi/pantaila pribilegiatu, non haur horrek bereganatuko baitu objektuekiko, bere buruarekiko eta bere desioarekiko erlazioa. Aita-amak haurraren zai daudenean, haurra sortzearekin batera fantasiak eta modu askotako desioak ere sortzen ari ohi dira. Umea jaio aurretik ere gurasoen beren irudimezko mundu horretan errepresentazioz eta idealez janzten dute. Dagoeneko ezarri zaio toki bat edipikoki egituratutako belaunaldiaren hurrenkeran, baina beste toki bat ere ezarriko zaio –eta horrek zehaztuko ditu belaunaldian dagokion toki horren ezaugarriak– sexuen bereiztasunari dagokiona. Horrek esan nahi du egokitu beharko dela bere gurasoen historia eta ibilbide edipikora –gizon nahiz emakumezkoaren jarrerarekin– sare zabal batean, zeina Freuden iritziz Ni-goitiaren/Niaren idealaren instantziaren bidez ordezkaturia eta bideratua baitago.

Amaitzeko, ez da subjekturik gizarte-egituren baitan ez bada. Baina psikoanalisiaren bitartez baino ez dira orain arte argituak izan bakoitzaren bide partikularrak –nor bere familiararen nobelan eta bere mito indibidualean– zeinen bidez bereganatzen baitu desatzailearen lekua norberaz beste guztiek osatzen duten objektuen mundu honetan. (3. oharra)

3.

*Jeneroaren auzia ikuspegi
psikoanalitikoetik. Maskulinoa
eta femeninoa, aktiboa eta
pasiboa erakuntza psikikoan*

Jeneroari buruzko ideia eta sexuarena desberdinak direla ez zaio arrotz egiten pentsakera psikoanalitikoari. Freudek berak adierazi zuen jeneroen arteko bereiztasuna sexuen artekoa baino lehenago onartu zela. Subjektu batek bere buruaz egiten duen lehenbiziko bereizketak, "ni neskatila naiz" - "ni mutikoa naiz", badu zerikusia itxurarekin, irudiarekin, ikusten denarekin, irudipenarekin. Jenero batekoa ala bestekoa izatearen lehenbiziko "identitate" horren berri emango duten ezaugarriak izango dira jantziak, orrazkerak eta gorputzaren kolore eta formak. Halarik ere, gerta daiteke horiek guztiek inolako zerikusirik ez izatea sexu anatomikoarekin ez eta subjektuaren barneko jarrera desiragarriarekin. "Ni neskatila naiz" esatean ez da besterik adierazten nork bere burua giza talde zabal batekotzat jotzen duela baizik -edo jo nahi duela-, zeinekin, agian, jarrera desiragarriarekin eta gozatzeko ahalmenarekin bat ez etorri arren, kanpoko ezaugarrietan eta bestelako atributuetan, gizartean halako balorazioa izaten duten horietan, bat baitator.

Subjektuak, neskatikoak kasu honetan, pubertarora iritsi arte gurutzagune franko ibili ditu, mekanismo psikiko konplexuak direla medio bereganatu, gorde eta barneratu ditu bere amaren eta aitaren, edo funtzio hori betetzen dutenen ezaugarri aktiboak eta pasiboak, oralak, analak eta faliko/genitalak; eta orobat aitona-amononak edota haurrak begikoa duen familiako batenak. Nerabezaroan bere inguruneko pertsonaia inportante bakoitzarekin izandako harremanak barneratuak ditu jadanik -inskribatuak, idazketan bezalaxe-, eta horrek bide ematen du bigarren mailako identifikazioak behin-betikoz itxuratzeke.

Zer aipatu nahi dugu "femenino-maskulinoarekin"?

Feminitateari buruz Freudek 1932an eman zuen hitzaldian, (4. oharra) ahalegindu zen auzi hauen berri ematen, baina aldeztatik jakinarazi zuen behatutako gertaerak baizik ez zituela azalduko, ia inolako ekarpen espekulatiborik gabe, gaur egun ere jendearentzat ezinago interesgarria den gai bati buruz.

Haren ikuspuntutik pertsona batekin elkartzen garenean egiten dugun lehenbiziko diferentzia "maskulinoaren" eta "femeninoaren" artekoa izaten da... "Zientzia anatomikoak ziur-

tapen horrekin puntu batean bat dator baina ez askoz gehiagotan”, eta gaineratzen du: “gizabanakoa baitan maskulinoa eta femeninoa nahasirik aurkitzen da eta proportzio arront ezberdinetan”, eta horrenbestez “maskulinitasuna edo femeninitasuna osatzen duena zerbait ezezaguna da, anatomiak hatzeman ez dezakeena”.

Izan ere, Freudek frogatzen du ohituta gaudela “maskulinoa eta femeninoa” nolakotasun psikologiko bezala erabiltzera, sexubitasunaren ikuspuntua bizitza animikora iraganarazi dugun modu berean. “Orduan esaten dugu gizaki batek, arra izan nahiz emea izan, une batean era maskulinoan eta beste batean berriz era femeninoan jokatzen duela”. “Baina, ohartarazten du, aurki ikusiko duzue hori anatomiara eta konbentziora makurtzeagatik egiten dugula. Ezinezkoa da maskulino eta femenino kontzeptuei eduki berririk ematea... zuek “maskulino” esaten duzuenen, ia beti “aktibotasuna” duzue buruan, eta “pasibotasuna” berriz, “femenino” darabilzuenen.

Freuden gogoeta hori azpamirratu beharra daukagu ohartarazten baitigu nola makurtzen garen anatomia eta konbentzioetara –konbentzio juridiko-sozialetara, alegia–, harreman genital heterosexuala paradigmaticoa den heinean emakumeek izan ditzaketen beste motatako harremanekin alderatuta: beren bikotearekin duten bizimodua, familiarra eta soziala.

Freudek horrelako zerbait hartzen du aintzakotzat bere artikulu horretan, eta dio giza bizitza sexualaren arloan ez dela inola ere zehatza jokabide maskulinoa aktibitatearekin bat egitea eta femeninoa pasibitatearekin, zeren eta ama bat alde guztietatik begiratuta aktiboa baita bere umea hazten ari denean –bere gurariaren helburu deino–, eta emakumeek lan eskergea egin dezakete arlo ezberdinetan, eta gizasemeek, ordea, ez dute berak bezalakoeekin bizitzerik, non ez duten otzantasan pasibozko gradu handi bat garatzen. Gogoeta horiek amaitzen zituen esanaz berak ez duela kontseilatzen aktiboa eta maskulinoa, eta pasiboa eta femeninoa bat egitea, desegokia iruditzen zaiolako eta gainera ez duelako gai horri buruzko ezer berririk ekartzen.

Hirurogei eta gehiago urte beranduago artean ere Freuden testua aipatzen segitzen dugu, izan ere, estu eta larri jartzen gaitu zehaztu beharrean aurkitzen garenean zer den berezia eta espezifikoa jeneroaren atributu hauetako bakoitzarentzat. Baina itzul gaitzen Freudengana, honelako hausnarketa egiten duenean: “Ahaleginak egin daitezke feminitatea psikologiaren ikuspegitik karakterizatzeke, helburu pasiboen hobespenean datzala esanaz. Jaki na denez, hori eta pasibotasuna ez da gauza bera; premiazkoa izan daiteke aktibitate dosi handi bat –eta makilaje ugari– helburu pasibo bat erdiesteko, a.b., mirestua izatea. Emakumeen kasuan gertatzen ahal da sexu eginkizunetan duen partaidetza mota bere bizitzako

beste arloetara hedatzea, eta horrela jokabide pasiboenganako hobespena agertzea, bai eta helburu pasiboetarako joera ere. Alabaina, ez dezagun ahantzi arau sozialek duten eragina, horiek ere emakumea egoera pasiboetara bultzatzen baitute. Dena den, hori guztia ilun dago oraindik.”

Baina, zer esan nahi dugu “aktibo/pasiborekin”?

lkerketa psikoanalitikoak erlazionatzen du aktibo/pasibo kontraktotasuna subjektuaren garapen libidinalaren une oso zehatz batekin: uzkiaroarekin. Aldi horretan haurrengan bulkada erotikoa zenbait “aktibatzen” dira, jokabide aktiboak eta pasiboak izateko bide ematen dutenak.

“Arrazoi fisiologiko batzuek esplikatzen dute zer lotura dagoen uzkiaroko erotismoaren eta anibalentziaren eta bisexualtasunaren artean. Uzkiaroko erotismoaren bitartez haurrak objektu bat –iraizkina– modu kontrajarrarian tratatzen du: umeak gorozkia bere gorputzetik iraitzen du baina aldi berean eutsi ere egiten dio, maitatzen duen zerbait bailitzan; eta horixe da, hain justu, “anibalentzia analaren” sustrai fisiologikoa. Gainera, aipagarria da hondarrestea iraitzen-organo hutsa dela; horregatik zerbait kanporatzeko gai da eta, hutsa denez gero, gorpuzki arrotz baten bidez estimulatua izan daiteke baldin eta bertan sartzen bada. Pentsamendu psikoanalitikoak kontsideratu du joera maskulinoak lehenbiziko gaitasunetik eratorriak direla –iraitzi eta sartzea–, eta joera femeninoak –eutsi eta barneratua izatea– bigarrenetik. Beraz, horixe da uzkiaroko erotismoaren eta bisexualtasunaren arteko loturaren sustrai fisiologikoa”. (5. oharra).

Horrela, bada, umearen hastapeneko jokabide maskulinoek eta femeninoek badute zerikusirik garapen libidinaleko fase horretan, uzkiaroan, sortzen den harreman dinamikarekin. Aro horretan jokoan daude, halaber, bestelako erlazioak ere, agintea, boterea, bestea menperatzea/menperatua izatea. Uzkiar aldi berean da iraitzen organo aktiboa eta zulo bat, bertan objektu bat sartuz gero estimulatzen ahal dena. Subjektuaren antolakuntza psikosexualaren une horretantxe jarriko dira aurkez aurke aukera biak, barneko objektuari dagozkionez –gorozkia–, kanpoko objektuak –amak– esfinterra kontrolatzeko ikasketa prozesuan zehar egiten dizkion eskarien poderioz.

Gai hauek bisexualitatearekin erlazionatzean, zein gizakiaren osagaia baita, garrantzizkoa da zehaztu ahal izatea ea pertsonak, oro har, bere bizitzan jarrera aktiboa duen, “aurrera egitekoarena”, edo jarrera pasiboago bat, “behatzailea”. Maskulinitasun eta femininitasun alderdi horiek batzutan gizabanako berebete bat egiten dute, baina beste batzuetan, berriz, ez dute loturarik izaten sexu biologikoarekin. Berriz azpimarratu nahi genuke “mas-

kulino" eta "femenino" deitzen dena faktore kulturaleri eta sozialei zor zaiela gehiago faktore biologikoei baino. Klinika psikoanalitikoak eta errealitate sozialak aldioro frogatzen ditugute sexu batean zein bestean xede aktiboko bulkadak adina bulkada pasiboak izaten direla.

Hori dela-eta, haurrek jasaten ohi duten hezkuntzan ideal kontraerriak derrigorrez sartu nahi izateak –independentzia eta menpekotasuna–, areagotu besterik ez du egiten joera aktibo-maskulinoen eta pasibo-femeninoen arteko gatazka. Borroka hau modu askotakoa izan daiteke: esate baterako subjektu batek izan dezake azaleko jarrera pasiboarentzako halako atxikimendu bat -baina, edonola ere, sakonagoko jarrera pasiboaren kontrako erreakzio moduan-; eta alderantziz, agiriko jarrera pasibo bat, hainbat modutara, jarrera aktibo bat bezala arrazionalizatua izan daiteke.

Dena den, "maskulinoaren" eta "femeninoaren" arteko kontrakotasuna jasoa dago psikoanalisian, eta honek frogatu egin du jendeak uste baino konplexuagoa dela. S. Tubertek zehaztu ditu hitz hauei datxezkien adiera ezberdinak. (6. oharra)

Lehenbizi, adiera biologikoa, sexu-ezaugarri primarioen eta sekundarioen arabera finkatzen dena. Arlo horretan kontzeptuek arront zentzu zehatza dute: gizon eta emakume gara gorputzaren errealitate anatomikoaren aldetik, baina ez horregatik soilik edo horretan oinarrituta. Psikoanalisiak argi utzi du datu biologiko horiek ez direla aski gizabanakoen jokabide psikosexuala eta haien barneko guraria adierazi eta ulertzeko. (Ikus, adibidez, fetitxismoa). Bigarrenik, adiera soziologikoa. Aldagai honetan biltzen dira gizonei eta emakumeei aztertzen den kulturaren edo zibilizazio motan esleitzen zaizkien eginkizun erreal edo sinbolikoak. Hemengo honetan atxikitzen ahal dizkiogu femininotasunaren Niaren Idealari, zein eratzen baita kultur arloko idealekiko identifikazioen bidez, nahiz beti ez duten euren arteko harmoniarik iristen.

Azkenik, adiera psikosexuala, aurreko biek in halabeharrez estekatua, baina batik bat adiera sozialarekin.

Aurreko guztiarekin agertzen zaigu auzi hauen konplexotasuna eta problematika, beraz, nire iduriko, zuhur izan beharra dago erabateko kategoriatzat hartu baino lehen. Adibidez, kualitate bereizi batzuk, hala nola autonomia, kementa eta ekimena eskatzen dituen iharduera profesional batean ari den emakume bat ez da horregatik beste emakume bat baino maskulinoagoa izango, honek bere iharduera seme-alabak zaintzera eta etxeko lanetara bideratzen duelako. Biek, nor bere tokian, aktibitate handia burutzen dute, eta alde horretatik ezaugarri "maskulinoak" dituzte.

Modu orokorrean esan daiteke psikoanaliaren jokatze bat aztertzean, "maskulino-femenino" pareari dagokionez, fantasia inkontzientek benetan erabakigarriak direla –aktiboak nahiz pasiboak–. Horiek subjektuaren barnean kokatzen dira eta ikerketa kliniko psikoanalitikoaren bidez baizik ez dira aurkitzen ahal. Horregatik Freudek planteatu zuen bere 32. Konferentzian psikoanaliaren helburua ez dela emakumea zer den deskribatzea –"berretzat ia soluziorik gabeko xedea"–, baizik eta nola garatzen den hasieran jarrera bisexuala duen subjektu batetik abiatuta.

Sexubikotasun kontzeptuak, bai sustratu biologikoan oinarritu nahi bada eta baita identifikazio eta egoera edipikoetan ulertu nahi bada ere, gizaki orotan sintesi bat inplikatzen du, harmonikoa edo ez hain harmonikoa, ongi edo gaizki onartua, berezitasun femenino eta maskulinoena. Gizabanakoaren garapenaren ikuspuntutik, psikoanaliak agirian uzten du umearengan hasiera batean ez dagoela kontrajarpen maskulino-femeninorik, eta aldez aurretik fase batzuk izaten dituela, zeinetan eginkizun behinena kontrakotasun aktibo-pasiboa baitago, eta ondoren faliko-irenduan, hala sexu batean nola bestean. Freudek feminitateaz ez da mintzatzen harik eta neskatikoak, neurri batean behintzat, alderdi erogenoa (klitoritik maginara), eta maitasunaren helburua (hasieran ama, gero aita) aldatzeko eginkizun psikikoa burutzen duen arte. (7. oharra).

4.

*Subjektuaren identifikazio
prozesuaren gorabeherak,
lehenbizikoz neskatila eta ondoren
emakume heldua izango dena.
Ni Idealetik Niaren Idealera*

“Psikoanalisiarentzat identifikazioa da beste pertsonarekiko lotura afektiboaren adierazpenik goiztarrena. Eginkizun garrantzitsua du Edipo-konplexuaren historiaurrean. Mutikoak bere aitarenganako interes berezia agertzen du: hazi eta hura bezalakoa izan nahi du, haren ordezkoa izan arlo guztietan. Esan dezagun aita hartzen duela bere idealtzat.” (8. oharra)

S. Freuden aipu honetan biltzen dira hemen aurkeztu nahi ditudan galdekizun oinarritzkoak, Ni Idealaren eta Niaren Idealaren artean subjektu ororen psikebarneko eraketan izaten diren funtsezko diferentziak finkatzeko: zein garrantzi handikoak diren identifikazioak nortasuna tajutzerakoan, h.d. Nia, Ni-goitia eta Niaren Ideala eratzeko.

Bereziki bi gai seinalatu behar dira: Freudek aita hori aita-amaren arteko sintesi bat bezala hartzen duela, bi izaki eta topiko bildurik; eta haren ustez Niaren eraketa da subjektuaren identifikazioen batura edo emaitza. Prozesu identifikatzaile hori kokatuko da eta garatuko hautxoak objektuarekin (ama) ezartzen duen loturatik hasita, hark baitu zainketaren ardura bere bizitzaren hasierako etapa horietan.

Zehaztu beharra dago identifikazio prozesuak ez duela jatorrizkoaren “kopia leiala” edo “fotokopia” egitea esan nahi, errealitateko amarena edo aitarena, baizik eta subjektuak pertsona horiekin errepresentazio edo irudiekin lortzen duela identifikazioa. Eraketa horietan, bestalde, hamaika faktoren eragina dago, hala nola haurraren beraren proiektzioak, gurariak eta beharrak. Beraz, identifikazio prozesuaz mintzatzen garenean izaera psikikozko eragiketa batez ari gara, urteen buruan eraikitzen eta garatzen dena, zenbait aldiren mugimenduan zehar, hasi jaiotzetikan –baita lehenagotik ere, nola itxaroten den– eta adolezentsia bitarte.

Prozesu identifikatzaile horren bitartez, lehenbizi haur bularretakoak, gero neskatikoak eta geroago nerabe-adoleszenteak bereganatuko ditu bere ingurunekoan alderdi eta ezauga-

riak. Esan gabe doa, amak toki berezia izango du alabaren interesetan, eta honek haren-gana joko du mundu honetan bizirik sostengatzeko erreferentzi nagusi eta funtsezkoa ama duelako.

Identifikazio primarioaren unean, historiaurre pertsonaleko aita/amarekin izaten da identifikazioa –mitoaren ordenean–, seme/alabak eredu edo idealtzat hartzen d(it)uelarik. Subjektuentzat aita eta ama, biak, dira eredu idealak. Baina aldi berean, haurra ere objektu maitatuaren parte bat da, haiekiko dituen identifikazio masibo eta orokorren bidez. Prozesu hau oinarria izango da ondoko identifikazio prozesuentzako –identifikazio sekundarioak–, helduagoak eta garatuagoak, eta horietan haurrak ez du dagoeneko nahi objektuarekin bat egiterik, baizik eta etorkizunean nagusiaren pareko izatea, itxuraz, ezaugarri batez, nortasunez, etab. Identifikazio berri horietatik abiatuta hasten da sozializazioa.

Era berean, narzisismo primarioaren garaian, haurrak bere burua hartzen du maitasunaren objektutzat, baina, aurkezpenean agertzen nuen bezala, haurrak bere gurasoentzat, hau da, guraso bikotearen Niaren Idealentzat, zer garrantzi duen, halakoa izango da hori ere. Umeak bere gorputza eta bere sexu identitatea libidinizatzen ahal du, baldin eta horiek amaren/aitaren desirak libidinizatu, narziszatu –baloratu– baldin baditu; izan ere nork bere gorputzaren irudia eratzea hagitz inportantea da subjektuaren nortasuna eratzeko.

Aldi narzisistan, hots, identifikazio primarioak gertatzen diren garaian, eratzen da ere Ni Ideala, haur-narzisismo primitiboko gordeleku edo biltegi dena. Ni Ideal hori psikebarneko eraketa inkontziente bihurtuko da. Ni narzisistaren ezaugarri guztiak ditu, hala nola perfekzioa, ahalguztetasuna, lilura, osotasunez bizitzea, etab.

Dagoeneko esana dudan bezala, Ni Ideala sor dadin, haurra beste norbaitek maitatua behar du izan, eta beste Norbait horrek errepresentazio bat behar du izan, amaz bestelakoa, ezberdina, eta sexuatua. Horrela gertatzen ez bada haurra amaren Idealaren tokian iraungo du, perfekzio narzisisista guztien kokagunea, eta orduan Ni Idealari atxikia iraun dezake. Egoera horrek identifikazio primario bat inplikatzeko du ahalguztiduna den beste izaki batekin (ama).

Zerbait gertatu behar da haurraren Nia ideal horren topikotik, Ni Idealetik, desidentifikatzeko, non arriskurik baden subjektu psikiko gisa desagertzeko. Eta zerbait hori gatazka edipikoa izango da, zeinen bidez umea ohartuko baita ez dela eta ez daukala bere amak libidinizatzen, narziszatzen eta baloratzen duen guztia, amak ere bere begirada eta interesa beste objektuetara –pertsonak– eta aktibitateetara zuzentzen dituelako. Horregatik, bada, umea, neurri batean bederen, amaren gurari esparrutik beztertua izango da.

Egoera dual horretatik, ama-umearen arteko osotasunezko bikote narzisista horretatik ateratzean, haurrak zauri narzisista bat izaten du. Etsipen horren poderioz beste bide bat har dezake: identifikatu beharko da amaren Niaren Idealarekin, eta horrela etorkizunerako bidea egiten hasiko da; agertzen hasten dira norberak geroan izan nahi duenaren irudikapenak. Hain zuzen ere, amarekin guztiz bat agin ahal ez izateak jartzen du abiadan desiren mugimendua, eta horretarako hasten da bilatzen beste objektu-aukerak eta beste idealak, bere-bereak, katibamendu narzisista horretatik atera ahal izateko.

Niaren Idealak dimensio tenporal bat irekitzen du: Ni Ideala orainaldian kokatzen den bitartean Niaren Ideala etorkizunari begira dago. Subjektua ez da Ideala, baina izatera irits daiteke. Lehengo helburua ahalguztutasuna zena, gero perfekzio eskari bihurtuko da (Niaren Ideala). Baten eta bestearen artean igurikapen eta promesen denbora kokatzen da eta horiek ekarriko dute aldaketa.

Freudek dio Niaren Idealak batez ere sorburu narzisista duela: "subjektuak bere aitzinean ideal bezala proiektatzen duena da bere haurtzaroan galdutako narzisismoaren ordezkoa; garai hartan bera zen bere ideala". Egoera narzisista hori, Freudek handikeriazko eldarnioarekin konparatzen duena, baztertu egingo da, batez ere gurasoek egiten duten kritikaren kariaz.

Horrela, Niaren Ideala narzisismoaren (Niaren idealizazioa) eta gurasoen identifikazioen eta ideal kolektiboen arteko konbergentzian sortzen den nortasunaren instantziari lotzen zaio. Instantzia bereiztua den aldetik, Niaren Ideala eredu bat da, eta subjektua hari egokitzen saiatuko da.

Neskatikoak bere amaren jokabideaz eta hitzez ohartzen da, begiratu egiten dio, ikusten du, arreta jartzen du eta kodifikatzen –bere fantasien arabera–. Amak, bere alde, emakumea eta ama den aldetik eta orobat alabak berarentzat duen garrantziaren aldetik, mezu kontziente eta berbalizatuak igortzen dizkio, baina baita inkontzienteak eta egintzazkoak ere, (praktikaren errealitatera eramanak).

Alabak barneratu dituen amaren mezu, hitz, jokabide eta egintza horien eraginez alaba aldatuz doa guztiz edo hein batean, hark eskaintzen dion ereduari begira. Eta "eredu" horrek biltzen ditu bai amaren aldetikako "aktibo" eta "pasibo" guztia eta baita arruntean "masculino" eta "femenino" aldetik amak duen guztia ere, lehen nioen bezala, irrika sexualari, norberaren feminitatea bereganatzeari eta ama izateko desioari dagokienean.

Egoera "normalizatu" batean, Edipo-komplexuaren erabakiak inplikatzeko sexu bereko gurasoekiko identifikazioen nagusitasuna, nahiz eta beti ere bikoitzak diren, hau da, identifi-

kazio aktiboak eta pasiboak, maskulinoak bezain femeninoak. Identifikazio sekundarioek, beraz, forma ez hain narzisistak inplikatzeko eta tipifikatzeko dute subjektuaren sexu-identitatea.

Eta Ni Idealetik Niaren Idealerako ibilbide horretan subjektua irits daiteke sublimaziozko aktibitateara, eta hortik atsegina eskura dezake. Sublimazioa da irrikaren jomuga mota bat, zeinen bidez atsegina lortzen ahal den, helburu sexuala aldatuz balore sozial bihurtzen delako, norberegantutako ideal etiko eta estetikoekin jarraikiz. Alderdi hori da, hain zuzen ere, jokoan dauden Baloreen gaiarekin artikulatu dezakeguna, berari eman dizkieten baloreen, emakume bakoitzak bere gurasoen psikearen bitartez eredutzat izan dituenaren eta Ideal sozialekiko identifikazioen bidez transmititu dituen diskurtsoaren arabera.

Jeneroaren baloreak: ariketa intelektual bat

Aurkezpenean nioen, Ni ideala - Niaren Idealaren tajukerari buruzko alderdi batzuez hitz egin ondoren, adibidez, nola zertzen diren instantzia psikiko hauek neskato-emakume baten baitan, kontraktasun aktibo-pasiboaz eta nola horren dinamika sartzen den maskulino-femenotasunean, saiatuko nintzela bi auzi horiek baloreen gaiari lotzen, baina ez desioen egitura intersubjektiboaren barnean baizik eta esparru sozialean: nola adierazpen sozialek "espikatzen" eta edukiz betetzen duten guk maskulino eta femenino gisa ulertzen duguna, eta zernolako maila ematen dioten. Horretarako "inkesta" bat erabiliko dut (9. oharra), bertan testu literario zenbaiten autoreen sexua igartzea eskatzen zen, irakurketaren analisiaren bidez, eta ea estilo literarioan jenero baten (maskulino-femenino) zantzua soma zitekeen. "Dibertimendu intelektual" hori idatzizko komunikabide garrantzitsu eta ezagun batek proposatzen zien bere irakurleei (hauek ere bildu behar lirateke populazioaren sektore jakin batean, arazo soziologiko-filosofiko-psikoanalitikoek arduratzen dena).

Kontaketa literario horiek lau testu dira maitasunari eta pertsonen arteko harreman erotikomodiozkoei buruzkoak. Laurak aurkeztu zaizkie irakurleei sinatu gabe, eta horixe da igarri behar dena. Hortik aurrera irakurleagoak interpretazio ariketa bat burutu behar du. Gauza bera egin behar denez psikoanalisian ere, hurbil gaitezen pentsamendu sozialaren agerpen horretara, zeinak berezko esentzia ematen dion femenino eta maskulinitasunari. Alabaina, edukiari heldu baino lehen, ikus ditzagun datu esanguratsu batzuk: jasotako kartatik pilo horretan, erantzunetako % 4k baizik ez dute lau emaitzak asmatu; % 16k ez dute aukeretako bat bera ere igarri; gehienek bi erantzun antzeman dituzte. Zer ondorio atera dezakegu? Bakarrik dakigu erantzuleen % 50 gizonetakoak zirela eta beste % 50 emakumeak, baina ez dakigu sexu bakoitzeko zer portzentaiak igarri edo porrot egin zuen beren erantzunetan. Gainera, irakurle askok zalantzan jarri dute testu batean asma zitekeela ere gizona ala emakumea den idatzi duena, zeren uste baitute "idazle batek aise egiten ahal dituela kontrakoaren plantak, eta klabe baten zein bestean idazterik baduela". Adierazpen horiek finkatu besterik ez dute egiten guk lehentxeago geniona: norberaren femeninoa eta maskulinoa gure ihardueretarik edozeinetan sor daiteke, batez ere idazketa bezala sublimazio-lan eskerge nahitaezkoa duten horietan. Femeninoa edo maskulinoa desioen dialektikan abiadan jarrita, beste alderdi bat da, batzuetan nahasten dena.

Beste batzuek, ordea, uste dute bereiztasunik egon behar duela, bada, "are biologiarren aldetik, baina batik bat, gizarte eta kulturaren aldetik guztiz modu ezberdinetan hezitzen direla gizasemeak eta emakumeak". Erantzun multzo horretan soma dezakegu nola naturaren eta fisiologiak mantentzen duen, kategoria-kualitate-atributu-ideal-esentzien adskripzioan lehenengo tokia ez bada ere, bai bederen inportantzia nabarmena. Are gehiago, siniste irmoa agertzen da gizarte baten alderdi soziala, hezkuntzako eta kulturala (aurrekontziente-kontzientea) subjektoa, gizon zein emakume, baino lehenagotik dagoela, ezaugarri femininokoak nahiz maskulinokoak izanda ere.

Ez da zaila konturatzea partaideek sexu batekoa eta bestekoa zer den erantzutean adierazitakoen alderdiak modu aski simetrikoan egokitzen zaizkiola emakumeak bere historia osoan bizi eta burutu duenari; hau da, bere jarrera aktibo eta pasiboen ezaugarriei, beraren aurrean subjektu desiratzaille moduan, bere bikotearen aurrean, jatorrizko familiaren aurrean, familia berriaren aurrean, gizartearen aurrean, amatasunaren aurrean. Eta alderik baldin badago bi sexuen artean, beren jeneroen konbinazioan dago, osagarriak izan daitezkeen ala ez, bizi duten esparru deseatzailen baitan. Koordenada hauexek izango dira arantzak eta latzguneak aterako dituztenak ukitzen gaituen auzi hau jorratzeko orduan, gu guztiok gizaki garen aldetik. Orain arte ez ziren hain gertutik kontrajarri subjektu eta objektu aztergaiak... horregatik, bada, "dibertimendu intelektualaren" arrazioa.

Baina itzul gaitzen "jeneroari buruzko inkognitaren" azterketa xume, labur eta bakun honetara. Atera daitekeen ondorioa da amodiozko eskenaren irakurle/ikusleak ezin izan duela, ia ehunetik ehun, behar bezala asmatu eta parekatu idazle bakoitzari zein jenero dagoen, holakorik balitz bezala edo, are egon beharko balitz bezala. Gogoeta honi atxikitzen zaizkio beste batzuenak ere, zeinek asmatzen baitute baieztatzen dutenean ia ezinezkoa dela igartzea, baten edo bestearen lekuan jarriz itxurak ere egin daitezkeelako. Berehala sortzen dira galderak, orduan, itxurak zein alde egiten ditu? Nondik dator trebezia/erorkortasun hori besteen aurrekaldera jenero batetik zein bestetik agertzeko? Trebezia/erorkortasun horiek ez dira idazlearenak bakarrik, gizakiaren dimentsio unibertsalaren osagai baino, bere izakera bisexualari zor zaiona lehen aipatu bezala, bai eta, ikusi dugunez, subjektu hiztuna osatzen duten identifikazioen joko gurutzatuari ere.

Beste gogoeta bat gehiago, diferentziaren bat egon behar duela defenditzen dutenei buruz, zeinen iritziz biologiak baldintzatzen baititu (azpimarratzen badute ere hori ez dela garrantzizkoena), baina batez ere arlo sozialak eta kulturalak. Pertsona horiek erantzun borobilak bilatzen dituzte, bukatuak, behin-betikoak, itzuri egin nahian batzuetan sexu biologi-

koaren eta jenero sozialaren artean suertatzen den amildegi ikaragarriak sortutako herstura edo egonezinari (Ikus ebakuntza egin gabeko transexualak). Bada, azken buruan, bilatzen dena edo bilatu behar dena, sexuaren eta jeneroaren identitatea da, horrekin balizko "gizon maskulinoa" edo "emakume femeninoa" eskuratzeko, eta bidenabar subjektuen arteko desiozko gurutzatze eta identifikatzaile ugari eta desberdinek sortarazitako ondoeza baretu dadin.

Hezkuntza dago beste behin ere lehenengo tokian faktore "eragileen" artean, subjektua, arestian genion bezala, gizon maskulino eta emakume femenino bilakatzen, bihurtzen, eratzten dutenen artean. Emaitza hori lortzeko, behartzea –heziketaren xedearen ezaugarri–, edo jenero bati nahiz besteari egotzitako formak, estiloak, moduak, modak, jarrerak, ereduak eta idealak –prozesu soil edo konplexuaren bidez– ikaste soila behin-betiko tresna arrakastatsua izango bailitzan.

Eta aldez aurreko iruzkin hauekin amaitzeko eta irakurleek idatzitakoa aurkezten hasteko, interesgarri iruditzen zait MAITASUNA izatea sexua eta horri "dagokion" jeneroa lotzeko aukeratu den gaia: amodiozko dimentsioa paradigma erlazionala da, bi pertsona horietako bakoitzean, subjektu desiratzaila diren aldetik, zer dagoen jokoan erakusten diguna: lilura narzisista, emozioak, sentimenduak, fantasiak, identifikazioak eta idealak. Amodiozko harremanetan barna iratzartzen dira, biziagotzen eta lehertzen desioak eta ikarak, "barne-subjektibizatutako sozial arloak" gizakiengan arautu dituenak "batbederari dagokion jeneroaren" identifikazio aski zehatzetan, edo ez al da hala!

5.1

EGUNGO ARKETIPOAK

Estilo maskulinoaren ezaugarri gisa eta, "beraz", gizonezko idazle bati dagozkionak, hauek agertu dituzte:

Lexiko gogorra. Erritmo ebakia. Pentsamendu linealagoa. Mintzaira biluzia: kontatu besterik ez du egiten emozioen eta sentipenen deskripzioetara lerratu gabe. Kontakizun itxia, sugerentzietarako tokirik uzten ez duena. Testuan indarkeria eta ekintza gehiago dago.

Deskribatutako pertsonaia maskulinoei buruz: lotura handia dute kanpoko munduarekin. Ez dira horren sentiberak. Ez dute beren sentimenduak azaltzeko ohiturarik, ez eta beren akatsak agertzeko ere. Nork bere buruarekiko kupida eta satisfakzioa izaten du. Nork bere in-

teresean pentsatzen du gehien eta bizitzan arrakasta izatea hagitz inportantea zaie. Segur-
tasuna itxurazkoa da.

Estilo femeninoaren ezaugarri gisa eta, "beraz", emakumezko idazle bati dagozkionak,
hauek agertu dituzte:

Emakumezkoaren idazteko modua barnekoia goa da, oro har; maskulinoak baino joera han-
diagoa du beren obretan sortutako pertsonaien psikologia deskribatzeko. Aditz mota sub-
jektiboak erabiltzen ditu. Amodiozko egoeraren alderdi ez berbalenganako kezka. Ñabar-
dura txikiak biltzen ditu, deskribatu eta baloratu. Kontaketa samurra eta xehetasunez josia.
Aieruz betea. Zolia, bihotz-hunkigarria. Beren kezka agertzen dute gizonen eta emakumeen
arteko komunikazio ezagatik eta adiezintasunagatik. Deskribatutako pertsonaia femeninoei
dagokienez: pertsonaien ariman barneratze handiagoa nabari da. Emakumeek bere bizi-
penei erasten dieten emozioa ere agertzen da. Jarrera urduria, lotsatia eta pasiboa gizo-
nezkoaren ekimen eta segurtasunaren aldean. Egiatzko maitasuna aurkitzeko irrika dute.

Nola erlazionatzen ahal ditugu jeneroen gaineko gogoeta sozial horiek bertan dauden ba-
lore implizitoekin? Egungo arketipoak dira ala betikoak? Zergatik ez dute aldatzen? 1993ko
baloreak al dira edo denboratasun gabeak, betikoak? Hala balitz, zerekin lukete zerikusia,
une jakin batean nagusi den kulturarekin ala bakoitzaren barneko alderdi psikikoekin?

Irakurleen iruzkin bakoitzaren balorazioa –pertsonala eta soziala– mintegi honetan intere-
satuek egin dezatela proposa dezakegu. Ni gai honetara mugatuko naiz, hots, idazketa fe-
meninoa barnekoia goa dela... eta bere obretan pertsonaien psikologia deskribatzeko joera
duela. Baieztapen honek halako logika bat du pentsatzen badugu gizakiaren historian ze-
har emakumezkoak etxeko zereginez arduratu direla, barnekoez, familiakoez. Eta hori bu-
ruru dute kontsumorako ondasunak produzitzeko eguneroko, gertuko, betidaniko tokian. De-
dikazio hori ez dakigu noiztik dagoen sexu biologiko batekoa izateagatik baldintzatua,
edota bestelako zirkunstantziak ere parte hartzen duten, eta zeintzu diren. (Ikus mende ho-
netako gerra europarretan lanera joaten ziren emakumeek lortu zituzten abantailen gainean
eta etxeko lanetara itzultzeari muzin egitearen gainean egin diren gogoetak). Lorpen horri
ez diote uko egin nahi. Ez eta borondatezko amatasunari, "modu askean" aukeratutakoari.
Hasitako bideak ez du itzulpiderik, eta horren protagonistak gizonak eta emakumeak dira.
Hamarkada honetan jenero auziak jakinmin nabaria sortu du. Egundaino egon al da horren
zalantzan, auzitan, mehatxatua, maskulinitasuna gizonetan eta femininitasuna emakume-
etan eusten zituen zutabea? Zerk kordokatzen du horrela? Sexuz aldatzea posible da gaur
egun –subjektu batzuk berengandik eta beren gorputz-iruditik bereizirik hautematen dituzten

atributuei egokitzeko—; eta orobat lehen bakarrik gizasemeen esku zeuden aktibitateetara emakumeek ere sarbiderik badute (instituzio garrantzitsuetan, adibidez eliza, armada, estatua); eta gizonak etxeko lanetara eta aita izatearen eginkizunetara lehen baino behartuago daude; eta puntu honetan gai batzuetaz arduratzen garenok lanean jarri gaituzte: esplikazioak bilatu behar dira, erantzunak eman behar dira, ulertu behar da non dagoen baten eta bestearen muga eta zedea. Azken finean, esparruak definitu behar dira, irizpideak mugatu, baloreak hierarkizatu, eta are unibertsalizatzen saiatu, “des-jenerazio” berri eta puri-purian dagoen honen egonezina baretzeko. Halarik ere, ez dut uste behin-betiko arrapostu, boro-bil eta erabatekorik dagoenik. “Des-jenerazioa” ez da besterik “trans-jenerazioa” baino, subjektu psikikoak, mintzairaren jabe egin zenez geroztik, bere baitan gorde duena.

Lan topaketa honen izenburuak eta gaiak hainbat gogoeta egitera bultzatzen naute, aipatu besterik egingo ez ditudanak gero eztabaidariak eta lan taldeek egingo dituzten iruzkinetarako uztearren.

Aurrena, uste dut disziplina ezberdinetako ikuspegitik ezezik baita psikoanalisiaren alderdi espezifikogotik ere –edo inkontzientearen estudiotik– “Jeneroa eta Baloreak” gaia jorrateak oroitarazten dizkigu batez ere gizonen eta emakumeen arteko aginte eta botore erlazioak, agirikoak nahiz ezkutukoak.

Freud horretaz ohartu zen, eta horrela zioen 1921 ean (10. oharra), bi pertsonen artean harreman barnekoa eta luzea gertatzen denean, adibidez, gurasoen eta seme-alaben artekoa, adiskidetasunezkoa edo ezkontzako, halako herra bat, autorizazio kentze bat –desbalorizazio bat– metatuz-metatuz joaten da, eta horrek ekartzen du errepresioaren beharra, sentipen horiek nabarmendu ez daitezke. Agian salbuespen bakarra izan daitezke amak bere semearekin dituen harremanak, gero ez direlako inolako lehiatan lausotzen, eta gainera indartu ere indartzen direlako objektu heterosexualen aldeko aukera sexuala egitean.

Lehenbiziko gogoeta: azken zehaztapen hori, emakume batentzat semeak duen adiera, alabak ez bezala, agian izan daiteke kontuan hartu beharreko kontsiderazioetako bat, kultura honetan emakumeek duten ongietza zertxobait bederen ulertzeko. Ongiez hori azaltzen zaigu hasi “histerikaren bapateko feminismotik” (11. oharra), eta etxeoandreaen somatizazio ugari eta larrietara (12. oharra); hau da, neskatikoak altzoan daudela nola hartzen dituzten, nola narzisizatzen eta baloratzen bereiztea –bereizkeriarekin ala gabe?– bai eta mikrokultura amatarrean eta familiarrean, harik eta gizartean txertatu arte: gai izango al dira lehenbiziko erlazio intersubjektiboaren baitan izan ez zuten balorazio-narzisizazioa bilatu eta erdiesteko gero gizarte, lan eta profesioaren esparruan eta bikotearen harremanetan? Baina segi dezagun gizonen eta emakumeen harremanen ildotik, non Freudek inplizitoki seinatzen duena bildu baitezakegu, zera dioenean, pertsonen arteko diferentziak handiagok direnean jokoan egoten denari buruz ari dela... “orduan ez gaitu harritzen emaitza ia gainditu ezineko gorrotoa izateak, hala nola galoak germanoen kontra, arioak semiten, zurriak beltzaranen” ... jarrai genezake gizonak emakumeen aurka, emakumeak gizonen? Hala eta guztiz ere, honela segitzen du, “etsaigoa pertsona maitatuetara bideratzen denean esaten dugu anibalentzia afektiboa dela, eta hori adierazten dugu, modu sobera arraziona-

lista batean, dudarik gabe, harreman barne-barnekoietan interes-gatazkek sortzeko okasio eta aitzaki franko sortzen omen delako”.

Bigarren gogoeta izango litzateke: beharbada auzi hauek direla medio, sexuen arteko eta jeneroen arteko dinamika erlazonala eta “aurkaketaren” berezitasuna (aurrez aurre elkarri begiratzea), “lehiatzaileek” daramaten agiriko edo ezkutuko borroka, eta hortik eratortzen diren ondorio edo/eta eraginak –aurrez aurre begiratzearenak eta hortik sor daitekeen borrokarenak–, horiek guztiek hein handi batean markatzen dituzte ez haien arteko amodiozko harremanak bakarrik, baita gaur egun mundu kontraesaneko honetan gertatzen diren fenomeno sozial, politiko eta ekonomikoak ere.

Gure kultura, jatorriz eta tradizioz judu-kristaua, eta horren bitartez bizi gareneko antolakuntza soziala, izan da pentsamendu maskulinoaren espresabide bakarra, eta horrek bide eman dio emakumeari bere “garapen” eta “askatasuna” lor dezan (“hazkuntza” bat, bila-kaera diakroniko baten antzo, “haurtzarotik” “heldutasunera” bitarte), eta garapen hori ez dute lortu beste kultura edo/eta gizarte batzuek, komunitate patriarkalak horiek ere, baina siniskera “arkaikoago”, “primitiboago”, “ilunzaleago”, “atzerakoiago” eta beraz “matxistagoetan”. Esan nahi baita, gizarte “alienanteago” eta “diskriminatzaileagoak” emakumeekiko, are ankerrago eta “basatiagoak”. Eta ez emakumeekin bakarrik, baita umeekin eta oro har haur guztiekin ere. (Apika, hori litzateke emakumeentzat “femenino” izendatzea eta gizonentzat “maskulino”... egoera esentzial edo natural zabalago bat).

Siniskera eta praktika erlijioso “ilunzale” horiek eduki ideologiko “itsugarritz” mukururaino beterik daude, horien baloreak direlarik ahulenaren menpekotasuna; gizabanako batzuen agintekeria, totalitarismoa eta diktadura besteenganako, gizonezkoen emakumeenganako (Ikus eta irakur, adibidez, “Ez nire alaba gabe”, emakumeen egoeraz Iranen). Praktika horiek menpekoengan sortarazten duten ondorioa, ezinezkoa badirudi ere, neurritz gaineko idealizazioa eta lilura izaten da botere diskriminatzailea bere esku daukateneanako eta aplikatzen duteneanako.

Hirugarren gogoeta honakoa litzateke: gure “gizarte patriarkalean” –batez ere modalitate judu-kristauan–, aurrekoekin konparatuta, mende batzuk “aurrerago” aurkitzen da, eta bide eman die emakumeei –“sakrifizioaren truke” bada ere eta “ukapenaren kostu handiarekin”– subjektu bezala harreman sozialetako beste toki batzuetan eta beste modu batez ere “kartzeko”.

Beste toki batzuk diodanean batez ere gogoan ditut lehen gizonen esku egoten zirenak, esate baterako boto eskubidea, Europako nazio batzuetan duela berrogeita hamar urte arte gi-

zonek bakarrik baitzuten. (Ikus Daens, a.b.: Belgikan, gizonen eta emakumeen borrokaren ondoren, 1985an lortu zen sufragio "unibertala", zeinen bidez boto eskubidea 25 urtez gorako gizonezko guztiei eman zitzaien). Emakumeek jadanik irabazia dute hautestontzirako tokia, gizarte patriarkal gehienetan behinik behin.

Beste leku batzuek gizonen eskutan segitzen dute, hala nola ejertzittoa eta politika, baina emeki-emeki emakumeak sartzen ari dira, jendartean eztabaidarik falta ez bada ere, bai eta aurkapen dialektikoak, legezko batailak edo gurutzada ideologiko-taktikoak, eta maiz aski ikusten ari gara "lehenbiziko" emakumeak ejertzitooan, "lehenbiziko" emakumeak apez ordenatuak, "lehenbiziko" emakumeak lehen ministro eta estatuburuaren kargutan, eta horrez gain, lanpostu franko –artean ere ez modu jeneralizatuan– botere publikoaren administrazioetako bigarren mailatan. Hortaz, emakumeak hasiak dira postu batzuk betetzen, zeinetan hautatu egiten baita, erabaki, praktikan jarri, exekutatu, eta gainera horietan lehenatasunezko zat jotzen dena pentsatu eta burutzen da. Hurrengo urratsa izango litzateke ikustea nola erabiltzen den botere hori eta zernolako interes–premia–desirak defenditzen dituen, zein diren helburuak, zein diren ikusten dituen etsaiak, eta nola borrokatzen duen negoziatu eta hitzarmenak lortzeko. Boterea erabiltzeak berekin ekarri behar du transakzioak lortzea. Bat bakarria ateratzen bada irabazle, menpekotasuna egongo da, eta boterea botere absolutu bihurtuko da.

Laugarren gogoeta: "Jenero eta Baloreak" izenburuak badu zerikusia, nire ustez, emakumeek beren buruaz duten iritzi bereziarekin. Alde horretatik komeni da seinalatzea emakumeen esku daudela oraindik, arestian aipatu ditugun tokiez gainera, ezinbesteko esparru etxetarra, amaren eginkizuna (eta frangotan aitari dagozkion zereginak ere) umeen zaintzan. Diferentzia zerean dago, gaur egun, ukapen eta sakrifizio eta guzti, eginkizun horiek antzina baino egoera pertsonal eta sozial egokiagotan burutzen dituztela, alegia. Begibistakoa da gure gizarte mendebaldeko kapitalista honek aukera eman duela etxeko eta familiako baldintzak hobetu ahal daitezen. Emakumeak jadanik bi gauza edo hiru egin ditzake era batera: etxekoandrea izatea, ama eta langilea. Hori dela-eta, etxeko eginbeharrak eta ama-eginkizunak aldatu egin dira funtsean (edo beraiek lortu dute aldatzea) lan munduan haien parte hartzea errazteko: dagoeneko kontua ez da hainbeste –hain maiz ez behintzat– arropak ikuztea, garbitzea, janaria prestatzea, jostea eta lisatzea –pertsonalki ez sozialki baloratzen ez diren zereginak–, eta bitartean bere familiakoak zaindu, haien arta izan, osatu, larrialdiak eta ikarak baretu eta familiagune handi nahiz txikiaren kideei emozionalki eusten die. Baina, argi dagoenez, dena aldi berean egiterik ez da, eta zeregin bat beste bat-

zuekin batera egin behar denean ezin izango da hartara soilik dedikatuz gero atera daitekeen emaitzik atera.

Bosgarren eta azken gogoeta: ikustea nola emakume bakoitzaren indibidualtasunean sartzen diren eta "aktiboki" burutzen diren sakrifizioa eta ukapena, bai eta analisatzea haren txertaketa gizartean, gehienbat femeninoak diren talde profesionalen bitartez.

Horrek ba al du ondoriorik emakumearen intersubjektibitatean?, edo haren igoera etengabe eta geldiezinak subjektu desiratzaille gisa bultzatu ditu aldaketa horietako asko egitera historian zehar? Ba al da zerbait bestearen aurretik dagoena, ala fenomeno biak egitura aldetik erlazionatuta al daude?

Bestalde, beste leku batzuk betetzea esaten dudanean, gurasoaren eginkizunaz ari naiz, antzina-antzinatik amak bakarrik burutzen duen horretaz. Guraso bakarreko familiak, emakumeek beren hurrekin osatzen dituztenak, ez dira errealitate sozial berri bat. Makina bat seme eta alabek izan dute erreferentzia garrantzitsuentzat eta are bakartzat emakumearen figura amaren eginkizun eta tokian, nondik transmititu baitu bere egitura desiratzaille berezia, bai eta horri dagokion egitura identifikatzailea ere.

Segi genezake, ondorio gisa, emakumeari eta femeninotasunari buruzko gogoeta freudiarak izendatzen, eta horietatik abiatuz ñabardura soilak eransten?

Bibliografi aipamenak

- 1. oharra: GONZÁLEZ DE CHÁVEZ, Asunción: "Ama-alabaren arteko erlazioa", in *Emakumea eta Adimen Osasuna, Lehenengo Ihardunaldiak*, Madril, Kultura Ministerioa, Emakumearen Institutua, 1985eko maiatza.
- 2. oharra: SCHUTT, Fanny: "Subjektu psikikoa, subjektu soziala. Ikuspegi psikoanalitiko". 1993ko martxoaren 6an Cerdanyolan (Bartzelona) egin zen *Adimen Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak, espazio komunitario bat* izeneko Sinposiumean aurkeztutako komunikazioa.
- 3. oharra: SAAL, Frida: Izakiez, esakerez, emakumeez, in *La bella (in)diferencia*, Marta Lamas eta Frida Saalen artean, Mexiko, Siglo XXI, 1991.
- 4. oharra: FREUD, Sigmund: "Femeninitatea", In *Psikoanalisiari sarrera. Hitzaldi Berriak*. Buenos Aires, Amorrortu, 22. liburukia, 1986.
- 5. oharra: FENICHEL, Otto: *Neurosien teoria psikoanalitiko*, Buenos Aires, Paidós, 1966.
- 6. oharra: TUBERT, Silvia: "Feminitatearen eraketa eta ama izateko desira", In *Gorputza eta subjektibitate femeninoa, Osasuna eta jeneroa*, M^a Asunción González de Chávez, Siglo XXI, 1993ko maiatza.
- 7. oharra: LA PLANCHE, J.; PONTALIS, J.B.: *Psikoanaliaren hiztegia*, Bartzelona, Labor, 1971.
- 8. oharra: FREUD, Sigmund: *Masen psikologia eta niaren analisisa*, 7. kap. 18. liburukia, Buenos Aires, Amorrortu, 1986.
- 9. oharra: ARIAS, Juan: "Idazketaren jeneroa, irakurleen erantzuna kontaketa maskulino eta femeninoen aurrean". 113.zk. In *Babelia; El País*, 1993ko abenduaren 11.
- 10. oharra: FREUD, Sigmund: op. cit. 8. oharra.
- 11. oharra: DIO BLEICHMAR, Emilce: *Histeriaren bapateko feminismoa, Feminitatearen nahazmendu nartzisistei buruzko azterlanak*, Madril, Adotraf, 1985.
- 12. oharra: *Emakumea, Osasuna eta Lana* Nazioarteko Sinposiumaren ondorioak, Bartzelona, 1993.eko urria.

CARMEN DíEZ MíNTEGUI

**Antropologia Sozialeko Irakasle
Titularra.**

**E.H.U.ko Filosofia eta Hezkuntza
Zientziak**

**Fakultateko Baloreen Filosofia
eta Antropologia Sozialeko
Departamentua**

Txostenari

ihardespena

“Erljio guztiak bezalaxe (kristautasuna, marxismoa...), kontzeptu zurrunezko zolaren gainean, (psikoanalisia) malgutasun gogaikarrian agertzen zaigu. Doktrinaren hitzari erasotzen bazaio, izpiritua ahanzten dela dio eta izpiritua onartuz gero, berehala hitzaren barnean atxilotu nahi gaitu”.

Simone de Beauvoir. *Bigarren Sexua*¹

Bi modu bederen badira iruzkina egiteko azalpen bati, zeinek oinarritzat sistema bat baitu, nolaerebait itxia, giza portaeraren ezagupen eta hatzematearen gainean: bata da kanpotik egiten dena eta bestea barrutik, hau da, haren irizpideak erabiliz edo erabili gabe; hemen aurkezten duguna bigarren aukeratik doa.

Giza jeneroari buruzko unibertsalen batez hitz egin badaiteke, ikuspuntu etnozentrikoak alde batera utzirik eta kontuan hartuz existitzeko modua zenbat forma kulturaletan azaltzen den, hori izango litzateke lurreko existentziari buruzko zergatiaren galderari etengabe esplikazio bat bilatzea. Zer garen, nondik gatozen eta nora goazen –zuzenean jaiotzarekin, heriotzarekin eta talde sozial batentzat pertsona zer den erantzuten duen definizioarekin erlazonatutako auziak– denak daude ezagutzen diren giza talde guztiek amankomunean duten jatorria ezezik baita nolabaiteko anbiguotasuna duten giza egoera eta aldaketak esplikatu eta erritualizatu behar horretan.

Horrela, gure animalitasunaren barruan, beste espezieen artetik bereizten gaituen ezaugarri bakarra izendatzeko ahalmena da; ezaugarri behinena, gure existentziaz kontziente egiten baikaitu. Izendatzeko ahalmen hori dela medio, gai gara geure ingurunea, erreala nahiz irudipenezkoa, bereizi, zehaztu eta ordenatzeko. Ipuigile petoak gara, bizi ahal izateko gerok asmatutako ixtorioak sinisten ditugu; Weberren nozioak ederki asko erakusten duenez “gizona da berak eratutako adiera-sarean zintzilikatutako animalia”.

Ikuspegi horretatik, mendebaldeko gizartearen historian bi bide daude, bi mota sistematzatu, gure existentziaren misterioari erantzun bat eman nahi izan dutenak eta orain ere nahi dutenak: erlijioa eta zientzia. Biak dira, zein bere erara, siniskera sistemak.

Horrela, psikoanaliaren, edo hobeto esan, teoria psikoanalitikoaren agerpena kokatuko dut Gizarte Zientziak deitzen diren horien sorreran, joan den mendeko erdi aldera, gataz-

¹ Beauvoir, Simone de: *Bigarren sexua*, Buenos Aires, Siglo XX. 1981

kez jositako gizarte batean, non aldaketa handiak gertatzen ari baitziren bere egitura sozial eta ekonomikoan eta esplikazio teologikoak, Jainkoaren hitzak, ordurarte gehiengoan izan zuen onarpena galdua baitzuen.

Garai hartako beste azalpen-ikuspegi batzuek bezala, teoria psikoanalistak diskurtso bat eratzen du gure existentziaren alderdi ukiezin, frogakaitz eta ilunaren gainean², eta horren zutoin gisa erabili zuen biologia, giza naturalezaz; inoiz ere definitua izan ez den naturalezaz, bestalde, (Rosset, 1974)³ eta puntuz puntukako interpretazio eta egokitzapen mota guztiak izan ditzakeena.

Testuinguru horretan, non “dagoena”, hots, enpirikoki frogatu daitekeena eta razionala ezagupenaren oinarrian baitzeuden, Sigmund Freudek irrazionala razional bilakatzen du, baztertutako intelektuari entzunarazten dio, eritasuna ezagupenaren baliabide bihurtzen du (Mann, 1984)⁴. Izan ere, gure existentziaren paradoxa ikaragarria –mendebaldeko kulturaren eremuan bederen– tentsio batean laburbiltzen da, hots, existitu ahal izateko izaki sozialak izan behar diren eta gutariko bakoitza zerbait indibiduala, bakarra izateaz dugun kontzientziaren arteko tentsioan.

Egitura sozial konkretu batean jaiotzen gara, bere arauak dituen; ingurumen hori gabe ez ginateke benetako gizaki izatera iristsiko. “Dagoenaren” aurrean geroago gure ahalmena egongo da, asmatzekoa, hitz egitekoa, ihardutekoa. Hezi behar gaituzte (sozializatu) eta gogoz kontrara onartzen dugu agintzen digutena, baina aldi berean horren aurka errebelatzen gara. Modu ezberdinez errebelatzen gara; askotan eritasuna –neurosia “eritasuna” dela esan badaiteke–, histeria edo depresioa (Szasz, 1993)⁵ errebolta modu bat izan ohi dira. Jakina, badira errebelatzeko beste modu batzuk, ekonomia eta pertsonarentzat ez horren garestiak: heroi/heroisak, gerrilariak, feministak eta emakume eta gizon ugari beren eguneroko bizitzan, eta hemen psikoanalisiak, edo Bertha Pappenheim-Anna O-k deitu zuen bezala, “hitzen bidez sendatzeak”, laguntzen ahal gaitu gure existentziaren aurrean hartzen ditugun bideak argitzen.

Egoera horren aurrean, badirudi inportantea litzatekeela gogoeta egitea zein den gure ingurune sozial eta kulturalean instituzio sozializatzaile nagusien egitekoa: hezkuntza sistema

² Steiner, George: *Presentzai errealak*, Bartzelona, Destino. 1989.

³ Rosset, Clement: *Anti-naturalezaz*, Madril, Taurus. 1974.

⁴ Mann, Thomas: *Shopenhauer, Nietzsche, Freud*, Bruguera, 1984.

⁵ Huelbes, Elvira: “En el café con Voltaire”. Thomas Szaszekin elkarrizketa. *El Viejo Topo*. 70. zk. 1993ko abendua. 58-63 orr.

eta familiakoa. Prestatzen gaituzte gizabanako autonomo, erabakiak hartzeko gai, "informatuak" izateko, hitzaren zentzurik zabalenean. Nahi gaituzte esaneko eta produktiboak, "dagoenari" eta "horrela izan da beti" esamoldeari egokituak. Ez da harrizkekoa, beraz, menpekotasuna, infantilismoa, existentzia bere gordintasunean eta den bezala onartu eta bizitzeko bildurra izatea mendebaldeko kulturaren ezaugarriak.

Mintzagai dudan txostenera itzuliz, uste dut funtsezkoa dela nire iritziz garrantzia handikoa eta Baloreen kontzeptuarekin erlazionatzen den gai bati heltzea. Regina Bayo-Borrásen azalpenean zehar, Balorearen gaia Desirarekin loturik agertzen da; nik Baloreak ukitzen ditudan ikuspegitik, funtsezkoa da balorea eta desira ez nahastea, gauza bat da nahi izatea eta beste bat baloratzea. Koadro bat balora dezakegu nahiz eta guretzat nahi ez; emakume askok baloratzen dute lan alokatuak ematen duen independentzia ekonomikoa, baina ez dituzte gogoko beren lanpostuan burutu behar dituzten iharduera errepikatu eta aspergarriak (Del Valle, et. al., 1985)⁶.

Ortega y Gassetek entseiu zorrotz baten bidez (1983)⁷ baloreak zer diren gaitzat hartuz oinarrizko arazoak planteatzen ditu. Horrela seinatzen du baieztatu daitekeela "baloreak ez direla desiatzen" eta ez dela pentsatu behar baloreen zeregina dela gure interesen eta apeten helmuga izatea. Baloreek balioa dute gure interesen eta gure sentimenduen helmuga izan baino lehen eta horretaz aparte. Baloreak "eskubidez" dira balore, eta ez "izatez". Baloreak dira gauzetan aurkitzen diren kalitate irrealak. Ez dira gauzak, erlazioak baizik, adimenak gauzen artean ezartzen dituenak, ikusten duelako egitura batzuetan txertatuak daudela eta horiek adimenaren eta errealitatearen arteko emaitza direla.

Gai honen haritik, ulertzen dut zentzurik baduela "jenero eta baloreez" hitz egiteak, horiek sistema sozial baten osagarri eta partaide direla onartzen baitut. Sistema horrek, hain zuzen, bideratzen du giza existentzia, kasu honetan atributu sexualen arabera eta, orokorrean, "sentimenduen sistematizazio bat" bezala. Ikuspegi psikoanalitikoak, funtsean subjektuaren norabide bakarreko posizio batetik abiatzen baita, subjektu psikiko gisa eraikitzeari dagokionean, baliteke beste motatako ikuspegi eragozteak, Freudek berak ohartarazi bazuen ere zer garrantzia duten faktore kulturelek eta sozialek "femenino" eta "maskulino" kontzeptuetan. Ene iritziz kontzeptu hauek metaforak dira, "baloreak", "kalitateak", "erla-

⁶ Valle, T. del eta beste: *Euskal emakumea. Irudia eta Errealitatea*, Bartzelona, Anthropos. 1985.

⁷ Ortega y Gasset: "Balioespen baten hastapenak", *Zer dira baloreak? Lan Guztiak*, VI. liburukia, Madril, Alianza, 1983.

zioak” biltzen dituztenak, eta adierazten dute nola testuinguru sozial batek bideratzen duen gure “egiazko emakumeen” portaera, edo “benetako gizonena”, “egiazko pertsonen” portaera bilatu beharrean.

Modu horretan, nire ustez, agian geure buruari egiten diogun galdera ez da zer balio dut nik besteentzako?, honako hau baizik: besteek nola baloratuko naute gehiago?; horrela, azken horren aurrean ihardungo dugu aldez aurretik ezarritako arau sozialekin adostasunean, testuinguru espezifikoaren arabera alda daitezkeen arauak, bestalde. Era berean, askotan geure desioen aurkako gauzak egingo ditugu, nolakoak diren gure helburuak, jomugak edo egoerak.

Giza moldeen zentzu esentzializatzaile eta zehaztaile horretan, teoria psikoanalitikoaren asmoa da “egiazko niaren” existentzia defenditzea, geure barnean daukagun “norbera horren” izatea defenditzea. Ea “Norbera hori” existitzen den galderari, nire ikuspuntutik, erantzun negatiboa zor zaio eta iruzkin honen hasieran argudiatzen nuenari helduko diot berriro: ixtorio multzo edo bilduma bat “gara” eta horiek desagertzen direnean geratzen dena da jasanezineko ezereza. Era berean gu gara ni bat edo ni batzuk; edo gure nia da halako “ni banatu bat” psikologia kulturalak proposatzen duenez (Bruner, 1992)⁸.

Teoria psikoanalitikoaren oinarri biologiko horrek eraikitzen ditu “haur sexualitatearen garapenaren lehenbiziko etapak”, azkenik bi motatako sexualitate arruntetan pausatzeko: maskulina eta femeninoa” (Sáez Buenaventura, 1988:67)⁹. Giza portaera esplikatzeko modu hori ez du teoria psikoanalitikoak bakarrik erabili, alderantziz baino, garaiko diskurtso filosofiko, mediko, politiko gehienak saiatu baitziren klase sozialaren, arrazaren nahiz sexua- ren bereiztasunak “giza naturalezari” datxezkion bereiztasun biologikoen bitartez esplika- tzen.

Bereiztasun “biologiko” horien bidez justifikatzen ziren gizarte mailako benetako desber- dintasunak. Sexu bereiztasunei zegokienez, horrek ekarri zuen kolektibo taldeei modu fin- koan esleitzea “naturelezak” egokitu zien egiteko behinena: ama izatea. Teoria psikoanali- tikoa emakume-amaren bizkar uzten du seme-alabei etorkizun “normal” eta arazorik gabeko bat eskurarazteko kargua eta erantzukizuna. Haurrok, berriz, beren hartzaroko une batean lokarriak moztu eta amaren magaletik ihes egin beharko dute, nork bere existentzia “nor-

⁸ Bruner, Jerome: *Adiera-egintzak. Iraultza kognitiboa baino haratago*, 1992.

⁹ Sáez Buenaventura, Carmen: “Feminismoa eta Teoria Psikoanalitikoak” in *Emakumea eta Errealitate Soziala*. Mundu mailako II. Euskal Kongresua, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1988.

mala" izan dezan sexualitate heterosexualaren barnean. Alabei dagokienez, ebazpen zuzena hartuz gero nork bere feminitatea onartuko du, amaren ereduari oinarrituta, eta horrekin berari ere ama izateko nahia sortuko zaio. Jakina, eredu hori onartzen ez denean kasu "anormaltzat" hartzen da.

Ez naiz geldituko zientziaren ustezko objektibitateari, orokorki, deseraikuntzatik eta zehazkiago kritika deseraikitzaile feministatik azken bi hamarkadetan egin zaizkion kritikak aztertzen. Teoria psikoanalista ere kritika horien helburu izan da, noski, eta esaterako, arestian aipatutako Sáez Buenaventuraren artikuluak (1988) holakoez ongi hornitutako bilduma dakar; kritiken artean adostasun bat suertatu da kontsideratzean emakumearen auzia teoria horren alderik ahulena dela esateko.

Sasoi hartan eratu ziren diskurtsoekin ohituta dagoen edonorrentzat hori ez da bat ere harritzekoa. Denek bat zetozen emakumea amatasunera eta etxeko lanetara murriztu eta mugatzeko, familia burgesaren eredu idealari jarraikiz. Baina horrezaz gainera, ukapen pertsonalaren masokismoak norberaren semeari uko egitea zekarren; ereduaren Maria, ama birgina eta txit maitatzailea, han, gurutzearen ondoan; ez zen behin ere ahaztu behar; eta horrekin batera balore eskuraezinen idealizazioa, izan ere "lortu ezineko eredu bat goraitpatzea da egiazko gizakiak gaitzesteko modu bat" (Juliano, 1986:26)¹⁰.

Amaitzeko, iruzkin bat egin nahi dut txostengileak azken partean proposatzen dituen gogoeta batzuei buruz. Egungo ikuspegi antropologikoaren alde handi batean, ni ere barne, gogorki kritikatzeko irizpide etnozentriko eta eurozentrikoen planteamendua, hala bizitzaren eredu orokorrari buruzkoa nola emakume guztientzako balioko lukeen eredu "idealari" bereziki dagokiona ere.

Hori ez da planteamendu etikoa bakarrik. Gaur egungo munduaren egoerak eta historiak frogatzen digute mendebaldeko gizarte kapitalista eta industrialak ez dela "eredu" bakarra edo hobereana, beste edozein esparru ekologiko eta sozio-kulturalean txerta daitekeena. "Mundu mailako ordena" baten proposamenaren interesak begibistakoak dira, interes kolonizatzaile eta hurrupatzaileak, noski.

Beste alde batetik, honako baieztapenari buruz, "gure kultura, jatorriz eta tradizioz judu-kristaua, eta horren bitartez bizi gareneko antolakuntza soziala, izan da pentsamendu maskulinoaren adierazpide bakarra, eta horrek bide eman dio emakumeari bere "garapen" edo "askatasuna" lor dezan..." (26. or.) nire iritziz horrek norabide bakarreko ikuspegi ebolu-

¹⁰ Juliano, Dolores: "Kultura Herrikoa", *Cuadernos de Antropología*, Bartzelona, Anthropos, 1986.

zionista erakusten digu, mendebaldeko "aurrerapenaren" metafora eta guzti, jartzen gaituztelako edozein giza zibilizazio orain arte iritsi den punturik gorenean. Berriro esan behar da ez ditugula ezagutu ere egiten beste kulturak, bizitzeko eta komunikatzeko beste kodeak eta horiek errespetatu egin behar ditugula. Bat nator hori alderdi irristakorra dela esatean eta "denak balio du" bezalako erlatibismo gogorrera lerratzeari itzuri egin behar zaiola; hatik, "etika unibertsal" kontzeptua ere berraztertze dago, bai eta haren "aldez aurrekoak" ere.

Ilido horretatik, emakume talde afrikar edo latinamerikarren proposamenak, haien erreibindikazio berarizkoak eta "feminismo" kontzeptua bera ere auzitan jartzeak, kontuan hartzeak dira eta gogoeta egin beharko genuke gure kulturako erakunde publiko guztietan geure presentzia ziurtatu eta aktiboki parte hartzeko dugun helburua –mendebaldeko emakume guztiak ere ez datoz horrekin bat–, baliagarri dela, baina ez dela modu bakarra subjektu aktibo eta erreibindikatzaile sentitzeko. Guk geure aldetik bat gatoz proposamen honekin, hots, emakumeak, egitura sozial ororen elementu aktibo eta dinamikoak direnez, betidanik borrokatu eta negoziatu dutela –modu oso desberdinez bada ere– espazio bat izateko¹¹. Egun ditugun erreibindikazioek, dudarik gabe, bizitza egokitu zaigun momentu sozio-historiko-ekonomikoari erantzuten diote.

¹¹ Gai honi dagokionez interesgarria da Dolores Juliano antropologoaren lana, *Maltzurkerien jokoak*, Horas y Horas, Madril, 1992.

REGINA BAYO-BORRÁS FALCÓN

**Cornelláko Adimenaren
Higienerako Zentroko Psikologo
psikoanalista eta Bartzelonako
haur eta nerabeekiko Klinika
Psikoanalitikoaren Eskolako
Irakaslea**

Azken

berrituspena

Azken gogoeta hauek ez ditut aipamen batekin hasiko. Aipamenak, zehatzak eta itxuraz argiak, berez partzialak izaten dira, zatikatuak, interesatuak. Jakina, norberaren argudioari ondo egokitzen zaizkionak hautatzen ditugu. Horrexegatik, nire azalpena –ez zen zehatz–mehatz hemen argitaratutako testu bera, baina bertan jasotzen da– egin ondotik sortu eztabaida eta elkarrizketaren ondoren zer ondorio atera pentsatzen hasi nintzenean, batez ere solasaldian parte hartu zuten batzuen jarrera erreakziozkoaz oroitzen nintzen, haien argudio intelektualez baino gehiago. Eta partaide haietako batzuek –ez gehienek– nigan izan zuten eragin emozionala erlazionatzen dut gaiari buruzko ikuspegi psikoanalitiko batekin izan zuten harrera gogorrek. Planteatu ziren galdera eta iruzkinei buruz, hain eztabaidagarria den gai honetaz, hots, Baloreak Jeneroari buruz –edo alderantziz–, inkontzientearen teoriak duen ikuspuntua argitzen eta gizakian inkontzienteak duen dinamika eta espresioa gezurtatzen baino denbora gehiago eman genuen psikoanaliaren beraren baliagarritasuna auzitan jartzen. Berrito ere, eta emakumearen gaiarekin lotuta –batzuetan jenero gaiarekin mozorrotuta– konbokatzen diren mahainguru edo ihardunaldietan salbuespena izan ez zedin, Freud izan zen aurreiritziz beterik, haren obraz deus ez dakitenez, beste argirik, primarik edo dimentsio intelektualik onartzen ez dutenez, ihautikitako eztenkaden jasale.

Giza subjektuaren funtsezko mekanismo psikikoak ezagutu eta ulertzeko psikoanalisiak irekitzen duen dimentsioa disziplinarreko bilera batzuetan zenbait kasutan aipatzen bada ere –teoria horren kontrakotasuna hain gogorra ez denetan, “hitz egin dezan” uzten baitzaio– gertatzen da Gasteizen, 94ko urtarrilean izan zuten harrera izatea eta aurrerantzean ere izaten segitzea. Ez dakit orduan eman nuen azalpen trinko hark zer eragin izan zezakeen, bai arratsalde hartan bertaratu ziren pertsonen dimentsio desiratzailleengan bai eta intelektualean ere, baina ondotik izan zen eztabaidagatik iruditzen zait halako uhin batzuk utzi zituela, harriak ur putzu batera botatakoan uzten dituen moduan. Horrelakoxeak dira transmisio psikoanalitikoak uzten dituen lorratzak, eta horixe frogatzen du mende eskasean mundu osoan lortu duen berebiziko praktika eta zabalpena. Ezin da ezjakinarena egin –behartuta ez bada– Freuden psikoanalisiak 1900etik aitzina izan duen bilakaera oparoaren eta garapen interesgarriaren aurrean. Transmisio klinikoa ez da agortzen, produkzio orala etengabe ari da, eta idatzizkoek, berriz, bizitasunez beterik dagoen gorputz teoriko baten berri ematen digute.

Ihardunaldien gai nagusia, oroituko zaretela uste dut, ez zen honako hau, noski, ea ikuspegi psikoanalista baliagarria den –eta zergatik ez “baliozkoa”, horixe baita gaia– disziplina “baliokide edo” direnen arteko bi kontzeptuen gainean gogoeta egin eta horiek artikulatze-

rako orduan. (Baliteke "gizatasunaren" dimentsioa izatea elkarri entzunarazten ziena, baina askotan gizatasun horixe bera izaten da hurbilketa galerazten duena.)

Laburbiltzeko, edo bukatzeko: nire parte hartzea funtsean ikuspuntu bat adieraztera mugatu da, non jeneroa ez baita jeneralizagarria, baizik eta subjeto bakoitzarengan gertatzen den konbinaketa bereizi eta gurutzatua. Eta baloreari buruz, esan behar da emakumearen balorea –berarentzat eta, horren arabera, gizartearentzat– lotuta dagoela bera jaio aurretik izandako, hartutako eta transmititutako desiraren kalitatearekin.

Planteamendu hauetatik abiatuta, eta emakumeak gizarte–lan–profesio arloan kokatu ahal izateko –ez bigarren sexu–jeneroaz besteko tokian, hau da, ez menpekotasun, ukapen eta sakrifiziozko posizio eta jarrerarekin (agian, beste aldarre baterako gaiak), baizik eta beren dimentsio desiatzaile eta inkontzientearekin, beraz singularrarekin, lotuago egongo litzatekeen jarrera beretzakotzen dutelarik–, proposamena litzateke ea ez ote den behar-beharrezkoa eztabaida ez etetea, kontrakoa baizik. Eta eztabaidan jarrai dezatela ezinbesteko kontraesanak agertzen, horiek ekartzen baitituzte aldaketa intersubjektibo eta sozialak. Halaberean, iritzi ezberdinen partaidetzari ez dakiola entzun nahi ez duenaren gorraren harrera egin.

Solasaldian itzuri ezineko gai batzuk agertu ziren, azaletik baizik argitu ez zirenak. Horiek azterketa hobea eta sakonagoa eskatzen dute:

- Emakumearen "psikologia", gizonaren begirada, adiera eta analitika (fisiologia maskulinoa duelako?) –aurrez aurreko gaitzespena ez bada ere– behinik behin jarrera intelektual oso zuhurra eskatzen du.
- Amak izaten dira azkenean, edo hasieratik dira, guztiaren errudun, erantzule nagusiak, "pelikulako gaiztoak".
- Horrenbesteko erantzukizuna duen karga emozionala arintzeko moduak: amatasunean partaidetza, bikotearekin, amarekin, zenbait ordezkorekin.
- Soluzioak eta errezetak.

Geneukan denboraren zati eder bat erabili behar izan genuen gaizki ulertzeak eta kontzeptu teorikoak argitzen, baina nire iritziz azalpenari harrera hona egin zioten bertaratu ziren gehienek eta ekarpen iradokor bezala hartua izan zen. Ekarpenak soluzio konkretu baino galdera gehiago egiten zituen, eta elementu batzuk sortarazi. Horiek gero, banan-banako edo taldekako elaborazioaren bidez pentsatzeko bidea eman zuten.